

Jakin198

iraila-urria
2013



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI HONETAN

7

LIBURUAK

11 Euskal liburugintza 2012
JOAN MARI TORREALDAI

GAIAK

55 Giza naturatik animalien eskubideetara:
espezie partaidetza eta deliberamendu etikoa
MIKEL TORRES ALDAVE

EGUNEN GURPILEAN

87 HAIZEA BARCENILLA
INAKI IRAZABALBEITIA
GOIZALDE LANDABASO
LIONEL JOLY
JOSU LARRINAGA

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jakingunea.com
www.jakingunea.com

2013ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,20 €	12 €
EUROPAN		
Harpidetza	70 €	—
Ale arrunta	11,70 €	15,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	85 €	—
Ale arrunta	15 €	18 €



BASQUE BIBLIOGRAPHY 2012

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2012. In this year, 2.005 books were published in the Basque language, 241 less than in 2011. Most of these publications are school books (36%), followed by children's and young people's literature (28,5%), books on human and social sciences (13,5%) and literature for adults (13,5%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. **JOAN MARI TORREALDAI**

HUMAN NATURE AND ANIMAL RIGHTS: SPECIES MEMBERSHIP AND ETHICAL DELIBERATION

Mikel Torres Aldave, a graduate in Philosophy, reflects on the moral standpoint of human nature and animal rights. The author argues that the human capacity to act morally imposes exclusive obligations and responsibilities on us that cannot be assigned to other animals. According to the author, among these obligations would be included that of treating animals with respect. **MIKEL TORRES ALDAVE**

NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Haizea Barcenilla, Inaki Irazabalbeitia, Goizalde Landabaso, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 198. zenbakia da eta 2013. urteko bosgarrena.

Zenbaki honetako edukien artean *Liburuak* saila dugu lehenik. Bertan, Joan Mari Torrealdai *Jakineko* zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren ildo beretik, 2012. urtean euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten digu. Izan ere, Torrealdaik urtero egiten duen lana ez da mugatzen liburuen zerrenda hutsa osatzera (www.jakingunea.com webgunean dago 2012ko liburuen zerrenda hori). Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du.

2012ko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrarekin batera, analisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, liburu produkzioaren zifren eta iturrien inguruko zenbait ohar; bigarrenik, tituluen eta orrialde kopuruen arteko erlazioari buruzko datuak; hirugarrenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, argitaletxe emankorrenen aipamena, eta argitalpen digitalaren datuak; laugarrenik, kanpoko eta bertoko argitaletxeen ekoizpenaren azterketa, bion arteko indar erlazioa kanpokoen alde lerratzen ari dela eta; bosgarrenik, argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluen zifrak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearren, 2012an 2.005 liburu argitaratu ziren, 2011n baino 241 gutxiago. Urtero legez —2010ean izan ezik—, gehienak hezkuntza eta irakaskuntza arlokoak izan ziren: 727 (produktzio osoaren %36); ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (575, %28,5), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (270, %13,5) eta hel-duen literaturakoak (267, %13,5).

Ondoren, *Gaiak* sailean, Mikel Torres Aldaveren artikulua dator. Bertan, giza naturaren izaera moralaren eta animalien eskubideen auzia jo-

rratzen da. Egileak argudiatzen duenez, gizakiak moralki jokatzeko duen gaitasun berezi paregabeak gainontzeko animaliek ez dauzkaten betebeharrak eta erantzukizunak inposatzen dizkio, eta betebeharrak nahiz erantzukizun horien artean animaliak begirunez ondo tratatzeko betebeharra aurkitzen da.

Egunen gurrupilean saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azkenaldiko berrien iruzkin labur eta biziak egin dituzte Haizea Barcenillak Artetan, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Goizalde Landabasok Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikan eta Josu Larrinagak Glocalia atalean. ¶

LIBURUAK

Euskal liburugintza 2012

11 JOAN MARI TORREALDAI

Euskal liburugintza 2012

JOAN MARI TORREALDAI

Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziaduna

2012. urtean 2.005 titulu argitaratu dira euskaraz, aurreko urtean baino 241 titulu gutxiago. Titulutan 11 puntu jaitsi da ekoizpena, eta orrialdetan 12, puntu bat gehiago. 256.172 orrialde publikatu dira, aurreko urtean baino 35.643 orrialde gutxiago.

Titulu guztietatik %69 nobedadeak dira, liburu berriak. Horietan izan da jaitsiera, eta apenas berrargitaratuetan. Nobedadeen barruan, itzulpenak ez du indarririk galdu, baina bai jatorriz euskaraz sortuak, horrek jasan baitu beherapen osoa.

Gaien eremuan betiko ordena da lege, hezkuntza liburua-ren nagusitasuna, alegia. Ekoitzi den guztiaren %36 alor horretakoa da. Horren ondoan kokatzekoa da haur eta gazteentzako liburua, ranking horretan bigarrena (%28,5). Bi alor horien pisua, azken batean haur eta gazteentzako liburuez hornitua, handia da, oso handia: ekoizpenaren %64,5 osatzen du.

Ekoizle askok esku hartzen du liburugintzaren produkzio honetan, era askotakoak, bertokoak eta kanpokoak, profesionalak eta ez, pribatuak eta publikoak. Aurten arreta bere-

zia jarri dugu kanpoko argialetxeetan, gora eta gora baita-
toz, bereziki haur eta gazteen munduko liburuetan.

Hori guzti hori modu zabalean, eta aldi berean zehatzean,
jorratuko dugu jarraian.

Estatistiketatik harago: lan bibliografikoa

Aurtengoarekin 36 urte badira lan berean jardun naizena.
Lan honen helburua, ez hasieran eta ez orain, ez da euskal
liburuaren estatistika bat ezagutzera ematea. Harago doa,
askoz harago: titulu bakoitzaren fitxa osatzen dugu, 17 osa-
gaiez hornitua. Eta gero azterketa egiten dugu.

Lan bibliografiko honek, hasieran bezala orain, ez du libu-
rutebietako lanaren parekoa izan nahi, tresna funtzional eta
praktikoa baizik. Horregatik aukeratu dugu ISBNk erabili
ohi duen fitxaketa sistema.

Lanik handienetakoa, hori bai, ekoizpen osoa biltzea da.
Eta ez da erraza, esan beharra dago. Laguntza handia eman
ohi digute, urtea joan eta urtea etorri, argialetxeek beraiek,
nahiz eta ez guztiek, utzikieriaz edo setakeriaz. Elkarre ez
profesional eta udalek hobeto erantzuten digute askotan be-
ren burua profesionaltzat duten zenbait argialetxeek baino.
Argialetxeen beraien eskutik jasotzen dugu %43, batzuek
liburu aleak bidaliz eta beste batzuek fitxa emanaz.

Liburutegi zenbaiten laguntza ere estimagarria da, %16,5
jasotzen baitugu bide horretatik. Paregabea da bereziki Kol-
do Mitxelena eta Donostiako Udal Liburutegiak eman ohi
diguten laguntza.

Osotasunera iristeko bide luzea dugu oraindik. ISBN eta
ELSNko fitxategiak aztertuz informazio ugari (%30) eskura-
tzen dugu. Eta, azkenik, beste bide batzuetatik ere jasotzen
dugu liburu berri, Internet bidez bereziki: %10,5.

Ahalegin eta laguntza horien guztien fruitu da fitxa biblio-
grafikoz osatua dagoen liburu zerrenda, Jakinen webgunean
kontsulta daitekeena ([www.jakingunea.com/grafikoak/libu-
rugintza_2012.pdf](http://www.jakingunea.com/grafikoak/liburugintza_2012.pdf)).

Tituluak eta orrialdeak

2.005 titulu argitaratu dira 2012an euskaraz, horietatik %95 liburu analogiko moduan, paperean.

Titulu horiek guztiek ISBN daukate, nortasun agiria, eta bakoitza bere fitxarekin dago zerrendan. Beste iturri batzuek ez dute kopuru bera ematen, ondoko taulan ikusten denez. Batzuetan, gainera, diferentziak handiak dira. Ez da aurtengo arazoa soilki; taulak erakusten duenez, urtea joan eta urtea etorri, froga moduan hor daude gorak eta beherak.

<i>Iturria</i>	<i>ISBN espainiar agentzia</i>	<i>Precisa / Conecta</i>	<i>Joan Mari Torrealdai</i>
2000	1.425	1.589	1.519
2001	1.326	1.621	1.488
2002	1.342	1.588	1.667
2003	1.487	1.576	1.949
2004	1.904	1.584	1.859
2005	1.793	2.094	2.098
2006	1.525	1.710	1.873
2007	1.552	2.009	2.173
2008	2.156	2.094	2.597
2009	2.040	2.022	2.363
2010	1.852	2.006	2.111
2011	1.809	—	2.246
2012	1.810	1.985	2.005

Bakoitzak du bere metodologia, bakoitzak ditu bere iturriak. Guk gureak agertu ditugu. Nori berea: nik dakidala, Precisa/Conectari editoreek titulu kopurua ematen diote, ez fitxa bibliografikoa. Berak bere aldetik ez du bilaketa propio-rik egiten. ISBNren kasuan, editoreek fitxa bibliografikoa bidaltzen dute, eta hark jaso, beste lanik gabe. Kontu ezaguna da euskal editore askok ez diotela ISBNri berrinprimaketen berri ematen. Batean eta bestean jatorrian dagokeen oker edo gabezia gero ere han agertuko da, ez baita kontrasterik egiten.

<i>Orrialdeak / Urtea</i>	<i>2007</i>	<i>2008</i>	<i>2009</i>	<i>2010</i>	<i>2011</i>	<i>2012</i>
Orrialdeak guztira	318.382	369.662	312.475	267.239	291.815	256.172
Urtetik urtera %Δ	24,27	16,11	-15,47	-14,48	9,20	-12,21
Batez beste liburuko	147,33	147,45	145,40	141,85	140,09	134,69

Tituluen eboluzioak ekoizpenaren informazioa ematen duen neurri berean ematen du orrialdeen eboluzioak ere. Titulu gehiago izateak ez du nahitaez azaltzen gehiago idatzi denik euskaraz.

Guztira, 2012. urtean 256.172 orrialde argitaratu dira, aurreko urtean baino gutxiago: 12,21 puntu jaitsi da orrialde produkzioa aurreko urtetik hona. 2006ko produkzioaren mailan gaude, tarteko urteetan baino apalago, dezente beherago batzuetan.

2012. urteko liburuaren orrialde kopuruaren batez bestekoa 134,69 orrialde da, orain arteko baxuena. Liburu guztiak ez dira neurri berekoak, bistan da.

Batez bestekoaren gainetik daude liburu mota hauek: narratiba (212 orrialde), giza/gizartekoa (198,3 orrialde), DBHkoa (163,4 orrialde), zientziakoa (152,8 orrialde), olerki liburua (140,4).

Batez bestekoaren azpitik beste liburu mota hauek daude: ikasmaterialak oro har (121,2 orrialde), lehen hezkuntzakoa (115,5 orrialde), haur hezkuntzakoa (72,7 orrialde), haur eta gazteentzako liburua (75,5 orrialde).

<i>Orrialdeak / Urtea</i>	2007	2008	2009	2010	2011	2012
12 orrialde arte	35	53	64	68	87	72
13 eta 48 bitartekoak	513	650	531	446	465	456
49 eta 100 bitartekoak	401	441	380	372	409	451
101 eta 200 bitartekoak	609	651	593	491	558	478
201 eta 400 bitartekoak	386	453	388	344	380	316
401 eta 600 bitartekoak	83	103	86	67	63	58
600dik gora	42	56	40	33	37	33
Kopurua zehaztu gabe	104	190	281	290	247	141
<i>Guztira</i>	<i>2.173</i>	<i>2.597</i>	<i>2.363</i>	<i>2.111</i>	<i>2.246</i>	<i>2.005</i>

Liburuak orrialde tarteka banatuta, ez da sumatzen, oso garbi behintzat ez, eboluzioa alde batera edo bestera doan. Izatekotan, mehetze aldera joan beharko luke, baina ez da agertzen modu nabarmenean. Liburu gehien-gehienak 200 orrialdetik beherakoak dira (%72,6), baina hori ez da guztiz berria.

Argitaratzaileen jarduna

Ekoizle ugari: 257

Nahiz eta azken urteotan baino gutxiago diren, asko dira liburu ekoizleak. Jaitsiera agian krisiagatik izan da, ez dakit. Itxura guztien arabera, ekoizle txiki batzuk erretiratu egin dira, talde, elkarte, udal eta beste.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	137
2-4	62
5-9	24
10-19	11
20-29	8
30-39	1
40-49	2
50-59	1
60-69	2
70-79	2
80-89	0
90-99	1
100-149	2
150etik gora	2

Taulak erakusten duen goi aldeko kontzentrazioari kontrajartzen zaio behe aldeko atomizazioa. Argazki orekatu batek taularen erdi aldea izango luke gizen, eta goi alde hori mehe.

Taula horren irakurketak ez du sekreturik inorentzat: argitaratzaile gehienak ez dira argitaletxe, baizik eta ekoizle txiker. Garbi dago: %53,7k liburu bakarra plazaratu du urtean. Areago: %78k lau titulu baino gutxiago argitaratu ditu, eta 11 titulura iristen ez direnak %87,5 dira. Beste muturrean dugu ehun titulutik gorakoak %1,5 direla, lau editore. Lau editore ez da ikaragarri 257 ekoizleren unibertsoan, ezta?

Argitaletxe nagusien ekoizpena: 1.090 titulu

Hamar lehenak aztertu ohi ditugu epigrafe honetan, eta horiek bai, horiek argitaletxeak dira, profesional peto-petoak.

Produkzioaren erdia eta gehiago egin dute hamarren artean: %54,5. Iaztik hona horien ekoizpena jaitsi egin da, ehun bat titulu, baina urteko produkzioan beren indarra puntu bat handitu da. Egia esan, urtero historia bera da, erditik gora beren esku egon ohi da ekoizpena. Kontzentrazio hori gehiegizkotzat jo dezake norbaitek. Kontrakoa esango nuke nik, atomizazioan eta erdi mailako editorialen ahulezian dagoela gure Akilesten orpoa.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	84	126	210	10,4
Edelvives-Ibaizabal	138	39	177	8,8
Ikaselkar	9	128	137	6,8
Anaya-Haritzza	35	101	136	6,8
Erein	46	46	92	4,6
Edebé-Giltza	45	46	91	4,6
Susaeta	57	19	76	3,8
Santillana-Zubia	76	0	76	3,8
Ttarttalo	40	16	56	2,8
Everest-Aizkorri	33	9	42	2,1
<i>Guztira</i>	<i>563</i>	<i>530</i>	<i>1.093</i>	<i>54,5</i>

Taularen ezkerreko zutabeen gauza bat ageri da nabari: kanpotarren esku hartzearen handia. Hamarretik sei dira etxe nagusia kanpoan dutenak, espainiar jatorrikoak. Zerrenda luzatu izan bagenu, hurrenkeran segidan letozkeenak ere jatorri berekoak dira, SM-Ikasmina eta Bruño.

Bi multzo daude, horrenbestez: Elkar, Ikaselkar, Erein eta Ttarttalo alde batean. Eta bestean: Edelvives-Ibaizabal, Anaya-Haritzza, Santillana-Zubia, Edebé-Giltza, Everest-Aizkorri, Susaeta.

Kanpoko editorial horiek bertokoen aurretik dira hamarren baitako produkzioan (%54,5 versus 45,5). Are handiagoa da aldea, kanpotarren alde berriz ere, lehen edizioko liburuetan: %68,5 versus 31,5. Euskal jatorriko editorialak irabazle ateratzen diren eremu bakarra berrargitalpenarena da, ez inportantzia gabea, baina bakarra: %59,5 versus %40,5.

Bertoko eta kanpokoen alde hori nabarmenago bihurtzen da, kanpotarren alde, ikasmaterialen alorrean, argitaletxe

guztien unibertsoan: %66 da kanpotarrena eta %29,5 bertoko profesionalena.

Argitalpen digitala

Konstatazioa egitetik abiatuz, esan behar da edizio digitalak ez duela aurrera egiten euskal edizioan. Aurrera egin ordez atzera doala ere esan genezake azken urteotako zifra absolutuei begiratuz. Hona:

- 2009: 214 titulu
- 2010: 227
- 2011: 163
- 2012: 103

Jakinik ere liburuaren etorkizuna digitalean izango dela, auskalo zenbat urte barru, gaur-gaurkoz abiatu gabe gaude hegaldi horretan. Espainiako Estatuan %2,5 bakarrik igo da.

Aintzat hartzekoa da, eta aldi berean esanguratsua, argitaletxe profesionalak gutxi sartu izan direla jokoan, hemen goak zein kanpokoak: Elkar dator buruan 17 titulurekin, ondoren Edelvives-Ibaizabal 10ekin, SM-Ikasmina 8rekin, Erein eta Saure 7rekin, gero Elhuyar 5ekin, Ttartalo eta Mezulari binarekin.

Merkatutik aparte kokatzen direnak ere badaude presente: buruan UEU 11 titulurekin, Deustuko Unibertsitatea 9rekin eta Emakunde 5ekin. EHUK 4 titulu bakarrik ditu.

<i>Gaia</i>	<i>Digitala</i>	<i>Analogikoa</i>
Aisia liburua	7, -	3, -
Giza-gizarte zientziak	27, -	13,5
Haur-gazte liburua	6, -	29, -
Irakaskuntza	32, -	36, -
Helduen literatura	20, -	13,5
Orotarikoak	1, -	1, -
Zientzia liburua	7, -	4, -

Edizio digitalak ez du tendentzia jakin bat adierazten: urte batean gai eremu batean nagusitzen da, hurrengo urtean, berriz, bestean. Ez da seinale ona. Gainera, zifra orokorrak

ezdeusak dira. Beste historia bat da edizio analogikoarena: urtetik urtera joera berak mantentzen dira, eta mamitsua da emaitza.

Argitaratzaileen tipologia

Bestela ezin eta, argitaratzaileen unibertsoa oso heterogeneoa da. Alde handiak daude titulu ekoizpenean, argitalpen politikan, enpresa egituretan, gaiak lantzeko orduan, izae-ran, jatorrian eta helburuetan...

Multzo homogeenoa samarretan sailkatzeko ahalegina da ondoko taulak erakusten duena.

Multzo batean bildu ditut 60 euskal argitaletxe, pribatuak eta merkatura begira jarduten direnak. Beste multzo batean 28 argitaratzaile publiko, Eusko Jaurlaritzaren edo Nafarroako Gobernutik udal txikienera. Hirugarren multzo batean daude hainbat eta hainbat talde, elkarte, fundazio eta gisakoak, 75 aurten. Komatxoaren artean kanpoko izendatzen ditudan horiek, ia guztiak espainiarrak dira eta etxe nagusia Espainian dute, nahiz eta horietako batzuek hemen filial edo elkarte bat baduten. 45 dira aurten, eta horien artean badaude elkarteak ere, baina batez ere hezkuntza proiektuak lantzen dituzten nagusiak dira gehienak. Irakaskuntzaren alorrean 11 kokatu ditut, unibertsitateak batez ere. Eta, azkenik, argitalpen partekatua dator, 19, era askotako konbinaketekin.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	60	807	40,2
Argitaratzaile publikoak	28	123	6,1
Elkarte, talde, fundazio...	75	134	6,7
«Kanpokoak»	45	761	38, -
Irakaskuntzakoa	11	102	5, -
Koedizioa	19	32	1,6
Besterik	19	46	2,4

Argitaratzaile mota horien lana azalduko dut ondoren.

- *Bertoko argitaletxe pribatua*

Sail honetan daude Euskal Herrian kokatu eta erabakiguna berton daukatenak, profesionalak, merkatuan dihardutenak, pribatuak, enpresak, txiki ala handi izan. Euskal liburuaren apustua egin duten gehienak edo denak 60 hauen artean daude.

Ekoizpenaren zati on bat (%40,2) hauen lanetik sortu da. Hauen ekoizpen indarra jaitsi egin da zenbaki absolututan, eta are gehiago besteekiko proportzioaren ikuspegitik, kanpoko argitaletxeen indartzearekin batera. Ondo-ondoan daukate espainiar enpresak, bi puntura (%38).

Bertoko argitaletxe pribatu eta profesional hauen ekoizpena da guztietan orekatuena, hots, gai sail gehienak jorratzen dituenak. Jakina da, baina, hiru direla tradizionalki indar gehieneko gai sailak, eta argitaratzaile hauen esku-hartzea funtsezkoa dela hiruretan. Argitaletxeon produkzioaren %34 haur eta gazteen literaturan gauzatu da, %25,5 ikas-materialetan eta beste %25,5 helduen literaturan.

Multzo honetako editorialen %55 nobedadeak dira eta hamar puntu gutxiago (%45) berrargitalpena.

Ekoizpen orokorrean multzo honen indarra esanguratsua da, nahiz eta nire ustez ez aski boteretsua. Esan dugu produkzio osoaren %40,2 zor zaiola multzo honi, eta nobedadeen %32,8 eta batez ere berrargitalpenen %59. Alde guztietatik orekatuena izateaz gainera, berau da finkatuena, berrargitalpenaren mailak erakusten duenez. Eredu frantsesaren antz gehiago du multzo honek produkzioak bere osoan baino, eta gainerako multzoek baino.

- *Argitaratzaile publikoa*

Antolamendu politiko-administratiboaren baitako erakundeen maila eta adar guztien emaitza jasotzen du multzo honek.

2012an multzo honetako ekoizleen kopuruak bezala produkzioak behera egin dute biek, krisiaren ondorioz seguru-

tik. 2011n jaitsi egin zen, eta orain berriro. Eusko Jaurlaritza-tatik hasita, eragile guztiek murriztu dute ekoizpena, foru aldundiek, udalek eta zer esanik ez Nafarroako Gobernuak.

Argitalpen gehienak giza eta gizarte zientzien alorrean koka daitezke (%59,5) eta ekoizpen osoan %6,1eko pisua du. Berrargitalpenik gabeko liburua da.

- *Elkarte, fundazio eta gisakoak*

Multzo handia eta handiaz gainera heterogeneoa da hau. Ekoizleen %29 dira, baina ez oso emankorrak, produkzioaren %6,7 suposatzen baitu hauen lanak. Eragina ere ez da handia, zabalpen mugatuaz gainera ez baitu berrargitalpenik. Daukan eragina giza eta gizarte zientzietan du, eta gero literaturan.

Kopuru handiz inor ez baina aurrena Euskaltzaindia dator, gero Galtzagorri, Labayru eta beste hainbat, gehien-gehienak titulu bakarrekoak.

- «*Kanpoko*» *argitaratzaileak*

Etxe nagusia euskal lurretatik kanpo daukatenak izendatzen ditugu horrela. Gero eta gehiago dira (orain 45, hots, ekoizleen %17,5) eta gero eta gehiago argitaratzen dute (%38). Argitaletxe multzo honen parean dagokeena, ares-tian esan bezala, bertoko argitaletxe profesionalen multzoa da, %40,2ko emaitzarekin. Seinalatzekoa da bien arteko gertutasuna, bi puntukoa.

Badira kanpokoaren artean elkarteak, zortzi bat, eta gainerako guztiak argitaletxe dira. Gehienak, denak ez esatearren, espainiarrak dira. Horien artean: Edebé, Santillana, Susaeta, Edelvives, Everest, Bruño, SM, Anaya. Bruñok eta Susaetak ez beste guztiek gurean sukurtsala dute, edo enpresa filiala, nahi den bezala.

Argitaratzaile multzo honek ezaugarri nabarmenak ditu: bere produkzioaren %62,5 ikasmaterialak dira, %34 haur eta gazteentzako liburuak; guztira, horrenbestez, %96,5 da haur eta gazteen mundura zuzentzen dutena. Gainerako li-

buru motetan ausente daude, euskalgintzaren dinamikan integratu gabe.

- *Irakaskuntzakoak*

Hamaika ekoizlek osatzen dute multzo hau, guztietan txikiena. Ehun titulu pasatxoko produkzioa dute, eta aktiboek EHU (42 titulu), UEU (22 titulu) eta Deustuko Unibertsitatea (15 titulu) dira.

Ekoizle hauen gai sail aukeratuena giza eta gizarte zientzien alorrekoa da diferentziaz, eta gero irakaskuntza sailekoa edo tekniko-zientifikoa. Berrargitalpenak huts egiten du hemen ere.

- *Egile editore eta argitalpen partekatua*

Multzo honetan kokatu ditugun eragileetatik egile editoreek osatu dute produkzioaren ia erdia, 21 titulu.

Edizio partekatuarena ez da munta handikoa orain. Duela bi urtera arte bai, hemen kokatzen baikenuen Elkarrek eta Ikastolen Elkarteak partekatzen zuten edizioa. Iaz Ikaslar enpresak bereganatu zuen produkzio hori, eta harrez gero lehen multzoan kokatu beharrekoa da.

Kanpotarrak etxean nagusi?

Galdera erretoriko horren azpian kezka bat ezkututzen da. Hemengo eta kanpoko editorialen arteko indar erlazioa ez ote den kanpokoan alde erortzen ari, modu esanguratsuan lerratu ere.

Hori diote datuek. Aurtengo argazkia ozen mintzo da. Produkzio osoaren %38 kanpoko editorialen lana da. Ikas-materialetan gertatzen denarekin alderatuta hori ez da ezer, ordea: material mota horren %66 zor zaie espainiar argitalletxei. Haur eta gazteentzako liburuen sailean ere ez dira herrenak: %46,5 beraiek ekoitzi dute.

2012ko ekoizpen orokorraren panoraman indar gehien, lehentxeago ikusi dugunez, bertoko editorial profesionalek

dute, %40,2rekin. Eta bigarren postuan datoz kanpoko editorialak, atzetik bai, baina orpoz orpo, bi puntura bakarrik, diferentzia eskasarekin. Bien arteko alde hori gutxitu egin da azken urteotan. Eta iruditzen zait datozen urteotan hai-zeak haien alde joko duela.

Kontua da ikasmaterialetan kanpoko editorialen lanak jo eta pasa egin duela hemengoan ahalegina. Iazko azterketan ere oharra plazaratu nuen. Aurten material mota horren ekoizpenaren %66 zor zaie kanpokoei eta hemengo argitale-txe profesionalen lana %29,5 besterik ez da. Ezohiko argaz-kia da, baina ez guztiz berria, agian.

Euskal curriculum propio eta beregainaren bila egin den bidea luzea da, aspaldi hasia. Historia egiteko asmorik gabe, gogoratzea komeni da 80ko hamarkadan hemengo argitale-txeek eta irakaskuntzako elkarteek hezkuntza proiektuak bertan lantzeko erabakia hartu zutela, aurretik urgentziazko lanak editore espainolekin banatu ondoren. Apustu horrek aurrera dihardu, orain Ikaselkar eta Ereinen eskutik. Proiektu propioen funtsa, azken batean, Euskal Herritik Euskal Herrirako egitasmoa lantzea zen, eta da. Proiektu beregaina lantzea eta lortzea, hitz batean.

Espainian hezkuntza proiektuak lantzen ari ziren editorial nagusiak bata bestearen ondoren Euskal Herrira hurbiltzen hasi ziren eta hemen kokatzen, zehazki esan, EAEn, Espainiako ama-enpresari izen euskalduneko filial bat eginez. Edebék Giltza sortu zuen, Santillanak Zubia, Everestek Aizkorri, SMk Ikasmina. Bruñok ez du izenik aldatu, Susaetak ere ez. Kasu berezia da Ibaizabalena: Edelvivesekin elkarla-nean abiatu bazen ere, gerora horrek irentsi egin zuen.

Espainiar argitaletxeek sortu dituzten filial horiek bi berezitasun dituzte, salbuespenak salbuespen, baldin salbuespe-nik bada: EAEko esparrura zuzentzen dira, eta hezkuntza-ren merkatua bakarrik lantzen dute.

Kontua da ezen gaur egun dozena-erdi bat hezkuntza proiektu daudela alde batetik espainiar ikuspegiarekin, eta bi bakarrik beste aldetik euskal ikuspegiz. Eta haiek dauka-

tela gehiengoa titulu kopuruan euskarazko produkzioan. Are eta gehiago erdarazko testuliburuetan. Uste izatekoa da gehiengo hori ez dela titulutan bakarrik gauzatzen, beste hainbeste izango dela irakaskuntzako alor osoan ere, hots, Hego Euskal Herrikoetan ez eze EAEko ikastetxeetan ere hezkuntza proiektu horien inplantazioa izango dela nagusi.

Espanian mamituriko hezkuntza proiektuei buruzko azterketa beti bideratzen da ikuspegia jorratzera, alegia, zein den beren ikuspegia gure historia edo antolamendu politiko-administratiboa edo geografikoa tratatzean. Eta hori da inportanteena, ezbairik gabe. Bada, hala ere, euskal liburuaren azterketak azaltzen duen beste puntu bat, kezkarria: integraziorik eza, euskalgintzan zein kulturagintzan. Beren produkzioaren egiturak salatzen du gabezia hori: haur eta gazteentzako liburuek suposatzen dute horien produkzioaren %96,5, ia-ia ekoizpen osoa. Helduen literatura ere ez dute lantzen, are gutxiago gainerako gai sailak.

Espaniar argitaletxeek molde bertsuan jokatzen dute: hezkuntza proiektua autonomia guztietarako prestatzen dute, bat bera, eta atal bat dagokio gero erkidego autonomiko bakoitzari. Ikuspegi orokorra, hortaz, espainiarra da guztiz. Eta hori da liburuan zehar nagusitzen dena, eta itzuli egiten dena.

Erkidego autonomikoari dagokion atalean, gure kasuan EAERI dagokion zatian, bertako gaiak lantzen dira, dela historian, dela geografian, dela antolamendu politiko-administratiboan. Ezin da esan beti-beti eta kasu guztietan ikuspegi berbera zabaltzen denik, Euskal Herriko mapa bat edo beste ere aurki daiteke, baina ez da ohikoa eta hedatua. Kasurik hoberenean, Euskal Herria kontzeptua, adibidez, erabiltzen denean, alderdi kulturalak agertzeko orduan erabiltzen da, hizkuntza, folklorea, baina ez ekonomia, geografia edo antolamendu politikorako, are eta gutxiago egungo errealitatea islatzeko. Horretan Espainiako Estatuaren eredu jarraitzen da. Salbuespen ohoragarriren bat aparte, ez dago Euskal Herririk, EAE Espainiako zati huts bat da,

«euskara EAEn, Nafarroako zenbait tokitan eta Frantziako hegoaldean» (sic) mintzatzen da, mapa gehienak EAEkoak dira, Trebiñu zulo batek irentsi du; testu historikoak espainiar ikuspegiz azaltzen dituzte gehienek, EAE Nafarroatik aparte, noski. Antolamendu politiko-administratiboan arreta berezia egiten zaie Espainiako Konstituzioari eta Espainiako erakunde politikoei.

Euskal atala dei genezakeena, hau da, Espainiako autonomia erkidego guztiei begira egindako proiektu horretan autonomia erkidego bakoitzari dagokion zatian, EAERI dagokiona da; berriz diot, ez dute guztiek berdin jokatzeko: euskal ikuspegiko testuak aurkitzen dira inoiz edo behin, beste batzuetan moldapen hutsak dira, edo itzulpen egokituak. Gehien-gehienetan, ordea, jatorrizko hezkuntza proiektuaren espainiar ikuspegia nagusitzen da.

Puntu bat gehiago: bada jarrera bat, maltzurra iruditzen zaidana, egiazko egiletza ezkutatzuz euskal sorkuntzako liburua bailitzan azaltzekoa, alegia. Egileak, itzultzaileak eta gainerakoak argi eta garbi aitortu ordez, mozorrotu egiten dira, itzultzaileak autore bihurtzen dira jatorrizkoei erantsiz, edota moldatzaile edo egokitzaile gisa agertzen dira itzultzaile huts izanda ere. Mila aurpegi ditu itzulpena ezkutatzearen ahaleginak.

Mereziko luke hezkuntza proiektuen banakako azterketa pausatuak. Gainbegiratu arin batek erakutsi digu guri 1996an Imanol Muruak *Jakinen* egin zuen azterketak ematen duen argazkiak ez duela hobera egin (ikus *Jakin* 93-94, 1996). Azterketa horren ondokoak dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) eztabaidan, 1998-1999 urteetan PPK testuliburuaren aurka egindako kanpaina, oraintsuko Alderdi Sozialistaren agintealdia eta oraingo motelaldia, ahaztu gabe Madrilgo Gobernuaren jarrera zentralizatzailea eta Wertzen erreforma espainiarzale porrokatua. Azken urteotako gainbeherak eta egungo giroak espainiar ikuspegiko saioak hauspotu egin ditzake. Gaur, oker ez banago, 90eko hamarkadan baino errazago dute sarbidea.

Kosta egiten da sinestea euskal aginte abertzaleak jarrera proaktiborik ez izatea arazo honetan euskal ikuspegia lantzen duten egitasmoen, lantaldeen eta enpresen alde, batzuen eta besteen edukiak direnak direla kontuan izanda. Erraz gaintitzen den langa jarri du Eusko Jaurlaritzak, antza denez.

Erraz ulertzen da, ordea, hemengo enpresen zailtasunaren handia. Lehiakide izanik, ez dute baldintza berdinetan lehiatzen merkatuan Estatu osorako mamituriko testuekin. Edukiak eduki, horien egokitasuna gorabehera, bada besterik: hemen zabaltzen den liburuaren kostua ez da bera edukiaren zati nagusia autonomia guztietarako mamitu ala hutsetik bertan sortu behar denean, euskal curriculumak lantzen dutenen kasuan bezala. Merkatuan eragiteko indarrean, marketinean eta promozioan abantaila dute Estatuko enpresak. Euskal Herrian garatzen den sorkuntza intelektualak, irakasleen prestakuntzak, hemengo pedagogi taldeen lanak, bertoko ilustratzaile eta grafisten lanaren ekarpenak eta horren guztiaren kostuak, batetik, eta kanpoan diseinatu eta mamituriko hezkuntza taldeenak, bestetik, ezin du izan euskal agintearentzat balio maila berekoa.

Eskaintza editoriala

Argitaratzaileen inguruan ibili gara orain arte. Pasa gaituzten emaitzetara.

Emaitzez arituko gara hemendik aurrera, baina ez ikuspegi bakarretik. Ekoizpen eta emaitza material eta kuantitativoetan murgilduko gara kapitulu honetan, eta azken partean helduko diogu ekoizpen tematikoari.


Motz gelditzen zaigu urte bakarreko informazioa, interpretazina. Behar bezala ulertzeko eboluzioa aintzakotzat hartzea komeni denez, guk erreferentzi puntua mende honen hasieran jarri dugu, 2000. urtean. Hori bateko. Eta besteko: urtez urtekoaren jarraipenak ere badu informazio-interesa, gorabeherak hurbildik jarraitu ahal izateko.

Liburuaren eboluzioa ez dugu gaingiroki soilik ikusiko, bai-zik eta sakonki arakatuko: titulu hutsak ez, baizik eta nobedade edo berredizio diren, jatorrizko edo itzulitako diren...

2.005 titulu, aspaldiko gutxien

2006ra arte jo behar da atzera 2012ko kopuruak baino baxuagoak ikusteko. Krisia izango da errudun, ez agian bakarra.

Bestalde, gailurra 2008an jo zen, eta orduan baino 592 titulu gutxiago argitaratu ditugu gaur. Bada zerbait.



2.005 titulu, horra emaitza. Barne dira euskarri guztiak, analogikoa eta digitala. Egia esan, digitalak pisu txikia du, ezdeusa ez esatearren. Jaioberria izanik ere, behera ari den produktu mota dela dirudi, eta hori da harrigarria. Gertatzen dena seguruenik zera da, ez dela oraindik benetan jai.


Liburu mota	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Analogikoa	1.851	2.084	1.869	2.161	2.507	2.149	1.884	2.083	1.902
Digitala	8	14	4	12	90	214	227	163	103
Guztira	1.859	2.098	1.873	2.173	2.597	2.363	2.111	2.246	2.005

Tituluen eboluzioa

Arestian esan bezala, aztergai bakoitza bi modutara jorratuko dugu: epe ertainean eta motzean, hots, mende berriko


erreferentzian eta urtez urteko gora eta beheren ikuspegian. Aurrena eboluzio-lerroa da. Eta bigarrena, eboluzioaren indizea.

Tituluen eboluzio-lerroa




2000. urtean baino 32 puntu altuagoa gaude gaur.

Tituluen eboluzioaren indizea



Urtez urteko eboluzioaren neurria azaltzen du grafikoak. Gailurra 2008an jo genuenetik, salbuespen bakarrarekin, behera goaz, bi urte segidan aurrena eta aurten berriz. Aurten aurrekotik ia 9 puntu behera gaude.

Nobedadeak eta berrargitalpenak



Honelaxe deitzen zaie lehen edizioko tituluei, nobedade; eta gainerakoak berredizioak dira. Zehatzago esan, berrin-primaketa edo berredizio, segun eta aldaketarik baduen li-
buruak testuan zein formatuan.

Goiko grafikoak garbi islatzen du produkzio osoa batez ere nobedadez hornitzen dela: ekoizpen osoaren eta nobedadeen lerroak elkarrengandik hurbil doaz eta paraleloan ia.


Berrargitalpenaren lerroa, aldiz, azpi aldetik doa, etzana oso, produkzioan esku-hartze apala duen seinale. Sanoagoa litzateke nobedadeen eta berrargitalpenaren lerroak elkarrengandik hurbilago baleude. Tarte zabalegia dago bien artean.

<i>Urtea</i>	<i>Nobedadea</i>	<i>Berrargitalpena</i>
2000	70,4	29,6
2001	76,1	23,9
2002	72,3	27,7
2003	72,2	27,8
2004	75,7	24,3
2005	71,9	28,1
2006	71,5	28,5
2007	71,-	29,-
2008	71,-	29,-
2009	71,-	29,-
2010	75,5	24,5
2011	72,5	27,5
2012	69,-	31,-
<i>Batez beste</i>	72,4	27,6

Grafikoak eboluzio lerroa erakusten badu, laukiak balio berrak proportzioen ikuspegitik ematen ditu. Grafikoko lerroak elkarren artean gertuago egotea zer da? Nobedadeen eta berrargitalpenen arteko tarte estutzea. Berrargitalpenaren pisua %31 da 2012an, eta mende berri osoan batez beste %27,6 izan da. Hobe litzateke %40 balitz, Frantziaren eredura.


Nobedadeak

Nobedadeen eboluzio lerroa



Aurtengo ekoizpenak nobedadeetan egin du behera, 2006ko balioetara hurbildu da. 2000tik gaur arteko 13 urteotan hiru aldiz bakarrik egon dira nobedadeak orain baino apalago.


Nobedadeen eboluzioaren indizea



2011tik 14 puntu jaitsi da. Iazko koskatxoa salbu, hiru urte beltz darama nobedadeak, 2008tik aurrera aldapa behera.

Nobedadeen jatorrizko eta itzulitako liburuak

Azterketan urrats bat aurrera egin dezagun: nolakoa izan da jatorrizko testuaren eta itzulitakoaren bidea? Horixe izan-go da hurrengo grafiko eta laukietan azalduko duguna.



Hasteko eta behin, goiko grafikoan bien ibilbidea batean ikusten dugu, nobedadeen baitako eboluzioan. Begiratu batean atzeman daiteke jatorrizkoek markatzen dutela nobedadeen ibilbidea, baina itzulpenek ere gorakada dezentea izan zutela 2008an.


Urtea	Jatorrizkoa	Itzulpena
2000	70,6	29,3
2001	69,4	30,6
2002	67,5	32,5
2003	69,3	30,7
2004	73,-	27,-
2005	73,7	26,3
2006	66,4	33,6
2007	64,9	35,1
2008	61,1	38,9
2009	72,-	28,-
2010	65,5	34,5
2011	69,-	31,-
2012	62,-	38,-
Batez beste	68,-	32,-

2008a aipatu dugu itzulpenaren gorakadaren urte bezala. Bada, beste hainbeste gertatzen da 2012an: %38 da itzulpena nobedadeen artean, azken hamahiru urteetako bigarren proportzio handiena. Urte horietako guztietako batez bestekoa %32 da. Bestela esan, 2012an nobedadeak ez badira zulo beltzera erori, itzultitako tituluei zor zaie. Egia esan, itzulpenaren proportzio altu hori ez dator bere meritu propioz, nolabait esan, baizik eta jatorrizkoaren jaitsiera nabarmenaren erruz.

Betiko auzia indar handiagoz plazaratu dezake norbaitek. Ez al da gehiegi itzultzen? Proportzio egokiak al dira %32 edo %38 horiek? Nire gusturako altuegiak dira; ingurukoegi begiratuta ere ondorio berera iristen naiz. Ez dago frantsesengaino jo beharrik; Espainian ere baxuagoa da (%22), Katalunia (%27,7) eta Galiziako (%14,4) liburugintzetan ere bai.

Jatorrizkoa

Jatorrizko liburuaren eboluzio-lerroa




Jatorrizko liburuaren jaitsiera nabarmena da. Berriz ere 2006. urtera garamatza alderaketak.

Jatorrizko liburuaren eboluzioaren indizea


Aurreko urtearekiko jaitsiera ia 23 puntukoa da, aspaldi-koa handiena, 13 urteotako handiena. 251 titulu gutxiago di-

ra. Denborak esango du koiuntural hutsa den ala gure ezinaren adierazle.



Itzulitakoa


Itzulitako liburuen eboluzio-lerroa



Itzulitako liburua lau puntutxo igo da, ia ezer ez, baina mantendu egin du traiektoria, eta ez da gutxi jatorrizko liburua hartu duen amildegirako bidea aintzat hartuta.

Itzulitako liburuen eboluzioaren indizea

Lau puntutxo horiek ozta-ozta balio dute iaz galdutako balioak berreskuratzen.



Berrargitalpenak


Nobedadea ez dena berrargitalpena da: berrinprimaketa zein berredizioa.

Arestian esan dugu nobedadeak atera direla galtzaile 2012an. Eta berrargitalpena mantendu egin dela esan dezakegu, ia puntu pare bat galdu duen arren. Hamaika tituluren gorabehera da, huskeria.

Bizialdi bakarrarekin hiltzen den titulu gehiegi dago gurean. Errazago zaie argitaletxeei ere titulu berriak kaleratzea irakurle gune berriak bilatzea baino. Kultur industria baten sendotasuna, ordea, berrargitalpenak bermatzen du neurri batean, eta kultura baten seriotasunaren eta sanotasunaren adierazle ere bada.


Hemen ere plazaratu genezake proportzioaren galdera: egoia al da berrargitalpenaren %31 hori? Ez dut uste, ezetz uste dut. %31 hori interpretatu egin behar da. Zifra hori (%31) berez ez da txarra, Espainiako (%16), Kataluniako (%24,4) edo Galiziako (%17,5) proportzioen gainera dago, egon. Kopuru horren zati handi bat, ordea, erdia eta gehiago hain zuzen (%53) ikasmaterialeen berredizioa da. Ikasmaterialei haur eta gazteentzako argitalpenen berrargitalpenak erantzen badizkiegu, %31 horren %84,7raino goaz bien artean. Laburbilduz, esan genezake bi liburu mota horien berrargitalpena tamaina onean dagoela, baina ez bat ere gainerakoena.

Berrargitalpenaren eboluzio-lerroa



Grafikoak primeran bisualizatzen du liburu berrargitaratuaren bilakaera hautsi eta gorabeheratsua. Oso behetik ibilia da mendearen lehen urteetan, 2010ean berriro erori zen eta orain erdi parean dago, 2000. urtean baino 25 puntu gorago. Nork daki egonkortasuna zein mailatan aurkituko duen.

Berrargitalpenaren eboluzioaren indizea



Ia bi puntu jaitsi bada ere, hamaika titulu, ontzat eman beharko dugu, panorama ikusita. Gorago aipatu duguna ahaztu gabe, hori bai, esku hartze handiagoa beharko lukeela liburugintzan berrargitalpenak.

Berrargitalpenaren mailaketa*Berrargitalpenen maila*

Lehen argitaraldia.....	1.383 titulu
Bigarren argitaraldia.....	163
Hirugarren argitaraldia.....	110
Laugarren argitaraldia.....	56
Bosgarren argitaraldia.....	42
Seigarren argitaraldia.....	50
Zazpigarren argitaraldia.....	34
Zortzigarren argitaraldia.....	27
Bederatzigarren argitaraldia.....	29
Hamar argitaraldi edo gehiago.....	111

622 tituluk izan dute berriz argitaratzeko zoria 2012an, hots, %31k edo hirutik batek ia. Horietatik %26 lehen ediziotik bigarreneira pasatu da. Multzorik handiena (%82) ez da hamargarren ediziora iritsi. Dagoeneko 10. ediziotik 41.era iritsi direnak %18 dira.

Ikus ditzagun orain goreneko horiek, hamargarren ediziotik gorakoak, alegia.

Hamar argitaraldi eta gehiago

Hamar ediziotik gorakoen 111 titulu horietan 10-13 ediziotan kokatzen dira gehien-gehienak, 84 titulu. Tarteka kopuru beretan kointziditzen dute hiruzpalau liburuk, nahiz eta titulu bakarreko mailak gehiago diren. Mailarik jasoenean Jon Arretxeren *Ostegunak* dago, iazkoa errepikatuz, urte berean bi inprimaketa izanda. Atzetik baina hurbil jarraitzen dio aspaldiko *11. Street-eko geltokia* eleberriak.

10. argitaraldia

<i>Arriskupean!</i>	Morillo, Fernando
<i>Coca-Cola Erdi Aroan</i>	Mintegi, Migel Angel
<i>Dorretxe zaharreko misterioa</i>	Morillo, Fernando
<i>Euskara 1 - Lan-koaderno 1 (Txanela).</i>	
<i>Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa</i>	Saenz, Maite eta beste
<i>Euskara 1 - Lan-koaderno 2 (Txanela).</i>	
<i>Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa</i>	Saenz, Maite eta beste

<i>Euskara 2 - Lan-koaderno 3 (Txanela).</i> LMH. 1. zikloa	Oiarbide, Josi eta beste
<i>Euskara 2. Lehen Hezkuntza. 1. zikloa</i> (País Vasco, Navarra)	Piko, Biotza eta beste
<i>Euskara 3 - Lan-koaderno 5 (Txanela).</i> LMH. 2. zikloa	Askoren artean
<i>Euskara 3 - Lan-koaderno 6 (Txanela).</i> LMH. 2. zikloa	Askoren artean
<i>Euskara 4. Lehen Hezkuntza. 2. zikloa</i> (País Vasco, Navarra)	Piko, Biotza eta beste
<i>Euskara eta Literatura 2-1. DBH. 1. zikloa</i> (Ostadar berria)	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 2-2. DBH. 1. zikloa</i> (Ostadar berria)	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 2-3. DBH. 1. zikloa</i> (Ostadar berria)	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 2-4. DBH. 1. zikloa</i> (Ostadar berria)	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Exkixu</i>	Txillardegi
<i>Ezekiel</i>	Osoro, Jasone
<i>Irakurgaiak 2 (Txanela). Lehen Hezkuntza.</i> 1. zikloa. 2. kurtsoa	Saenz, Maite eta beste
<i>Ispiluen gainean lotan</i>	Sierra i Fabra, Jordi
<i>Itsaslabarreko etxea</i>	Meabe, Miren Agur
<i>Izar-malkoak</i>	Morillo, Fernando
<i>Izaroko altxorra</i>	Friera, Iñaki
<i>Kaixo! Manual de conversación</i> castellano-euskara	Knörr, Garikoitz
<i>Matematika 3. Baga Biga (Txanela).</i> Lehen Hezkuntza. 2. zikloa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 4 - Lan-koaderno 7 (Txanela).</i> Lehen Hezkuntza. 2. zikloa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 4. Baga Biga (Txanela).</i> Lehen Hezkuntza. 2. zikloa	Goñi, Jesus Mari
<i>Munduari itzulia 18 ipuinetan</i>	Irusta, Antton
<i>Vivace 1. LH</i>	Atance, Javier eta beste
<i>Vivace 2. LH. Koaderno</i>	Atance, Javier eta beste
<i>Xivaren malkoak</i>	Mallorquí, César
11. argitaraldia	
<i>A zer gaupasa!</i>	Mintegi, Migel Angel
<i>Bihotz nahasiak</i>	Morillo, Fernando
<i>Euskara 2 - Lan-koaderno 4 (Txanela).</i> LMH. 1. zikloa	Oiarbide, Josi eta beste
<i>Euskara 3. Lehen Hezkuntza (País Vasco,</i> Navarra)	Piko, Biotza eta beste

<i>Euskara eta Literatura 1-2 (Ostadar berria).</i>	
DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 1-3 (Ostadar berria).</i>	
DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura 1-4 (Ostadar berria).</i>	
DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Geografi atlasa. Euskal Herria</i>	Harluxet
<i>Hondamendirako errepidea</i>	Milne, John
<i>Ikaslearen liburua 1 (Material globalizatua)</i>	
(Txanela). Lehen Hezkuntza. 1. zikloa	Saenz, Maite eta beste
<i>Matematika 1 - Lan-koaderno 1 (Txanela).</i>	
Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 1 - Lan-koaderno 2 (Txanela).</i>	
Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 1. Baga Biga (Txanela). LMH.</i>	
1. zikloa. 1. kurtsoa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 2 - Lan-koaderno 3 (Txanela).</i>	
Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 2. kurtsoa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 2 - Lan-koaderno 4 (Txanela).</i>	
Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 2. kurtsoa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 2. Baga Biga (Txanela). LMH.</i>	
1. zikloa. 2. kurtsoa	Goñi, Jesus Mari
<i>Matematika 3 - Lan-koaderno 6 (Txanela).</i>	
Lehen Hezkuntza. 2. zikloa	Goñi, Jesus Mari
<i>Musika 1 - Lan-koaderno 1 (Txanela).</i>	
Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 1. kurtsoa	Xirula Mirula Elkartea
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 -</i>	
<i>Urtxintxa 3 urte). 10. Azenario erraldoia</i>	Ormazabal, Joxantonio
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 -</i>	
<i>Urtxintxa 5 urte). 8. Babarrun ale magikoa</i>	Ormazabal, Joxantonio
<i>Zazpikotea Sanferminetan</i>	Lartategi, Josu
<i>Zoaz infernura, laztana</i>	Lertxundi, Anjel
12. argitaraldia	
<i>Amodioaren gazi-gozoak</i>	Arana, Aitor
<i>Bostak berriro Kirrin uhartean</i>	Blyton, Enid
<i>Euskara 1. Lehen Hezkuntza (País Vasco,</i>	
<i>Navarra)</i>	Piko, Biotza eta beste
<i>Euskara eta Literatura 1-1 (Ostadar berria).</i>	
DBH. Lehen zikloa. 1. kurtsoa	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Lehen amodioa Suedian</i>	Iturralde, Joxemari
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 -</i>	
<i>Urtxintxa 5 urte). 1. Gulliver Liliputen</i>	Murua, Mitxel
<i>Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 -</i>	
<i>Urtxintxa 5 urte). 2. Artzain gezurtia</i>	Ormazabal, Joxantonio

- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 5 urte). 3. Olentzeroren oparia* Saenz, Maite
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 3 urte). 5. Izei txikia* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 3 urte). 6. Ehunzango kaskarina* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 3 urte). 7. Bi indiar txiki inauterietan* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 8. Martin Txiki eta basajaunak* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 5 urte). 4. Makilakixki* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 5 urte). 5. Ahatetxo itsusia* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 5 urte). 6. Ziripot eta Miel Otxin* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 5 urte). 7. Erraldoi berekoia* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 4 urte). 11. Jon Zikinen anaia* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 4 urte). 9. Hansel eta Gretel Zigarrotxoa ahoz aho* Murua, Mitxel
Kazabon, Antton
13. argitaraldia
- Arotzaren eskuak* Ladron Arana, Alberto
- Hamabost zauri* Jaio, Karmele
- Urtebete itsasargian* Meabe, Miren Agur
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 1. Arroxali* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 2. Hiru txerrikumeak* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 3. Txanogorritxo* Ormazabal, Joxantonio
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 3 urte). 4. Ametsak airean* Zugazagasti, Arantza eta beste
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 4 urte). 1. Koxmeren gezurrak* Ormazabal, Joxantonio eta beste
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 4 urte). 2. Inurria eta txirrita* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 1 - Urtxintxa 4 urte). 3. Zazpi antxumeak* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 5. Mari Kanela* Murua, Mitxel

- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 6. Bi anaiak eta sorginak* Murua, Mitxel
- Urtxintxa. Ipuinak (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 4 urte). 7. Lehoia eta kilkerra* Ormazabal, Joxantonio
- Zigarrotxoa ahoz aho* Kazabon, Antton
14. argitaraldia
- Arotzaren eskuak* Ladron Arana, Alberto
- Elhuyar hiztegi txikia. Euskara-gaztelania / Castellano-vasco* Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuak
- Gloria Mundi* Morillo, Fernando
- Ipuin batean bezala* Irigoien, Joan Mari
- Tentazioak* Osoro, Jasone
15. argitaraldia
- Guide de conversation. Française-basque* Euskaltzaleen Biltzarra
- Ostiralak* Arretxe, Jon
- Patakon* Mendiguren Elizegi, Xabier
16. argitaraldia
- Amaren eskuak* Jaiio, Karmele
17. argitaraldia
- Ortzadarra sutan* Morillo, Fernando
18. argitaraldia
- Irabazi eta galdu* Jupp, T.C.
- Londresen nago aitonarekin* Iturralde, Joxemari
- Obabakoak* Atxaga, Bernardo
- Zazpikotea euskaltegian* Panteragorri, Clousseau
20. argitaraldia
- Atzapar arrastoak* Landon, John
21. argitaraldia
- Nikolas Txiki* Goscinny / Sempé
22. argitaraldia
- Desagertutako emakumea* Prowse, Philip
- Irakasle alu bat* Mendiguren Elizegi, Xabier
- SPrako tranbia* Elorriaga, Unai
24. argitaraldia
- Eztia eta ozpina* Zubizarreta, Patxi
- Goizuetako ezkongaiak* Garate, Gotzon
25. argitaraldia
- Behi euskaldun baten memoriak* Atxaga, Bernardo
27. argitaraldia
- Kittano* Ormazabal, Joxantonio

30. argitaraldia <i>Connemara gure bihotzetan</i>	Gabiria, Julen
38. argitaraldia <i>110. Street-eko geltokia</i>	Zabaleta Urkiola, Iñaki
40. argitaraldia <i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
41. argitaraldia <i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon

Urte bereko berrargitalpenak

Esan berri dugu *Ostegunak* eleberria 2012an bi bider in-primatu zela. Urte berean argitaraldi bat baino gehiago izan duen bakarra ez da. Hamalau dira guztira. Areago: horietako bi (*Ezekiel* eta *Urak dakarrena*) hiru argitaraldi izatera iritsi dira.

Jaitsiera handia izan du urte berean bi argitaraldi izan dituzten liburuen kopuruak: 2011n 34 ziren, eta 2012an 14.

1/2 edizioak <i>19 kamera</i> <i>Alhóndiga Bilbaoren sekretua</i> <i>Barkamena, kondena, tortura. Estatua</i> <i>kontzientzien kontrolatzailea</i> <i>Beste norbaiten zapatak</i> <i>Ez naiz ni</i> <i>Ezekiel nora ezean</i> <i>Iribar. Irudia eta eredu</i> <i>Munduko ipuintxo bat gauero</i> <i>Ni, Vera</i>	Arretxe, Jon Alzate, Raquel eta beste Azurmendi, Joxe Kamio, Garazi Jaio, Karmele Osoro, Jasone Goikoetxea, Pedro Mari Dubovoy, Silvia Martin, Itxaso
1/2/3 edizioak <i>Urak dakarrena</i>	Martinez de Lezea, Toti
8/9/10 edizioak <i>Ezekiel</i>	Osoro, Jasone
12/13 edizioak <i>Zigarrotxoa ahoz aho</i>	Kazabon, Antton
13/14 edizioak <i>Arotzaren eskuak</i>	Ladron Arana, Alberto
40/41 edizioak <i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon


Ekoizpen tematikoa

Azterketaren jo-puntua guztiz aldatzen dugu kapitulu honetan. Ekoizleez aritu izan gara, ekoizpenaren ezaugarriez jardun dugu, eta orain ekoizpen tematikoa arakatuko dugu. Nork eta nola publikatu duen badakigunez, jakin dezagun orain zer argitaratu den.

Liburu guztietako gaiak zortzi multzo edo sailetan banatzen ditugu: hezkuntza, haur eta gazteentzako, literatura, giza eta gizarte gaiak, zientzia eta teknika, aisia, orotarikoa, erlijioa. Eta multzo horietako sei inportanteenak arakatzeko ditugu gero.

Lan hau bere osotasunean ikusteko bi modu aurkezten ditugu: alde batetik, grafiko bidezkoa, proportzioak iruditan erakutsiz; eta beste aldetik, lauki bidezkoa, zenbaki absolutu eta erlatiboen ondoan 2000. urtearekiko erreferentzia ere erantsiz.

Hauek dira gai multzoen balioak, guztiak batera hasieran, banaka aletzera igaro aurretik.



Gai multzoa	Zenbaki absolutuak	%	2012/2000
Hezkuntza/ Irakaskuntza	727	36,-	+ 43,-
Haur eta gazteentzako liburuak	575	28,5	+ 55,-
Giza/ Gizarte zientziak	270	13,5	+ 5,-
Helduen literatura	267	13,5	+ 4,-
Zientzia/ Teknika	83	4,-	+ 40,-

Hezkuntza eta irakaskuntza: 727 titulu

	2008	2009	2010	2011	2012
<i>Hezkuntza/Irakaskuntza</i>	878	750	525	725	727
Ekoizpenaren %	35, -	32, -	24,3	32, -	36, -
Urtetik urtera %Δ	27,4	-14,6	-34,3	38,1	0,3
Itzulpenen %	39,5	30,6	17,7	17, -	21,5
Berrargitalpenen %	37, -	47,9	43,4	37, -	45, -
Orrialde kopurua	125.057	91.732	63.272	87.908	88.162
Orrialde kopurua liburuko	142,4	122,3	120,5	121,2	121,2

Taula konpaktu horrek informazio ugari biltzen du: gaiaren bost urteko eboluzioa, urteko produkzioan gaiak duen pisua, urtetik urtera izan dituen gorabeherak, gaiaren baitan nobedadeetako itzulpenak eta berrargitalpenak duten pisua, orrialde kopurua eta liburu mota honen tamaina.

Gai multzo guztietan errepikatuko dugu gaiarekiko taula berdina.

Hezkuntzako liburuak, kopuru aldetik, aurreko urteko balio berdin-berdinak mantendu ditu, urteko produkzioaren baitan pisu handiagoa badu ere (%36).

Itzulpenak multzo barruan duen pisuak gora egin du: %21,5. Liburuetan espresuki agertzen den informazioak pisu hori ematen dio itzulpenari, baina sinetsirik nago askoz handiagoa dela. Aipatuta utzi dut kanpoko editorialen jarraera mozorrotzailea, itzulitako ikasmaterial ugari ezkutatze trikimailuak, alegia.


Berrargitalpena %45 da. Indartu egin da, eta hori ona da. Egonkortzen ari da merkatua, eta produkzioa ere bai. Aurreten bertokoen berrargitalpen politikari kanpokoek ekarpenaren igotzea gehitu behar zaio.

Orrialdeei buruz, mantendu egin da orrialde kopurua, eta liburuaren tamaina ere bai, 121 orritan.


Irakaskuntzaren eboluzio-lerroa

Duela bi urteko zuloa iaz gainditu zen eta aurreten maila berean mantentzen da. Grafikoak erakusten du liburu mo-

ta honek jaitsialdia izan ohi duela lauzpabost urtean behin: 2001ean izan zuen, 2006an gero eta 2010ean azkenik.



Irakaskuntzaren eboluzioaren indizea



Bi urte beltzen ostean, aurreko urtean igoyerarekin lehenagoko maila jaso zuen, eta aurtengo igoera minimo horrekin maila berean mantentzen da.

Barne sailkapena

Lehen Hezkuntzako ikasmaterialen indarra begien bista-koa da. Urrundik baina finko eusten dio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak. Azken urteotan balio berdintsuetan da-biltza guztiak, bi horiek eta gainerakoak.

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	4, -
Hezkuntzaren antolakuntza.....	1,5
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	16,5
Lehen Hezkuntza.....	46,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	27,5
Besterik.....	4, -

%100

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 575

	2008	2009	2010	2011	2012
<i>Haur/Gazte</i>	653	514	603	648	575
Ekoizpenaren %	26, -	22, -	28, -	29, -	28,5
Urtetik urtera %Δ	17,9	-21,2	11,8	7,4	-11, -
Itzulpenen %	59,6	43,6	59,5	66, -	75, -
Berrargitalpenen %	42,5	39,7	30,5	38, -	34, -
Orrialde kopurua	44.613	35.635	45.267	48.307	43.421
Orrialde kopurua liburuko	68,3	69,3	75	74,5	75,5

2010ekoa kenduta, liburu mota honek bigarren lekua har-
tzen du beti, indar erlazio berdintsuarekin. Ekoizpen osoaren
%28,5 bereganatu du, iaztik hona 11 puntu jaitsi bada ere.


Itzulpenaren pisua ere ez da berria haur eta gazteentzako ar-
gitalpenetan, baina aurten ohartzekoa da proportzioaren han-
dia, edo desproportzioa, nahiago bada: %75. Gogoan hartze-
koa da kanpokoek esku hartze handia dutela liburu honetan.

Berrargitalpenaren pisua %34 da, urteko batez bestekoaren
gainekoa, eta hala ere agian espero zitekeena baino apalagoa.
Jakitekoa litzateke liburu mota hau zenbat zabaltzen den es-
kolako zirkuitutik aparte, bizitza beregainik ba ote duen.


Bost mila orrialde galdu ditu aurten. Liburuko orrialde
kopurua 75,5 da.

Haur eta gazte liburuaren eboluzio-lerroa

2000. urteaz geroztik, mailarik altuena 2011n izan du li-
buru mota honek, 2008ko urtearen paretsu. Aurten behera-
ko bidea hartu du, eta beste zenbait urtetan eduki duen
maila bera jaso, 2007an edo 2010ean bezalatsu baitago.



Haur eta gazte liburuaren eboluzioaren indizea



11 puntuko jaitsiera horrek 73 titulu gutxiago esan nahi du, hain zuzen.

Giza eta gizarte zientziak: 270 titulu


	2008	2009	2010	2011	2012
Giza/Gizarte	497	448	403	362	270
Ekoizpenaren %	18, -	19, -	19, -	16, -	13,5
Urtetik urtera %Δ	24,2	-9,6	-13, -	-10,2	-25,4
Itzulpenen %	21,5	18, -	24,3	19, -	27,5
Berrargitalpenen %	6,2	5,8	6,9	7, -	9, -
Orrialde kopurua	100.620	85.373	85.225	74.803	53.543
Orrialde kopurua liburuko	202,4	190,5	211,4	206,6	198,3

Produktzio txikia problema da, baina ez bakarria, zoritxarrez. Liburu mota hau gainbehera doa, eta ez du eraginik gizartean. Niretzat izugarri kezkarria da, beheranzko joera horrek zera erakusten baitu, gogoetari, pentsamenduari, humanitatei dagokien alorrean erdaraz elikatzen garela, eta ez euskaraz. Pentsa zitekeen, pentsa zitekeenez, euskararen normalizazioarekin, euskal eskolan hezitako belaunaldi berriekin, liburu mota honen kontsumoak maila duin bat irabaziko zuela. Ez da hori gertatu. Okerragora goazela ematen du, gainera, aitortu nahi ez dugun diglosian egonkortzen ari garela.

Liburu honen pisua %13,5 da ekoizpenaren osotasunean, aurreko urteetako baino ahulagoa, alegia. Eta ez du ia berregitalpenik (%9), horra beste ahuldadea. Aurreko urteetako joera berretsiz, aurten ere jaitسي egin da, eta ez gutxi, gainera.


Eboluzio-lerroaren eta indizearen grafikoek egoera horixe islatuko digute, hain zuzen ere.

Giza eta gizarte liburuaren eboluzio-lerroa



Lau urte segidan ari da etengabe tituluak galtzen. Atzeraka bidea egiten ari da, 2000. urte aldera, ia-ia orduko produktzioaren parean baitago. 2002az geroztik ez zen horren baxua izan.

Giza eta gizarte liburuaren eboluzioaren indizea



Galbidearen argazki berri bat da grafiko hori, lau urte segidan jaitsi eta jaitsi, eta ez hutsaren hurrengo kopuruak, gero. Iaztik hona 25 puntu galdu ditu, 92 titulu gutxiago ditu. Eta zer esan 2008tik hona galdu dituen 227 titulu horietaz? Ez da huskeria, gero, urteko produkzio osoa 270 titulukoa duen sail batentzat.

Orrialde kopurutan ere behera egin du nabarmen: aurreko urtean baino 21.000 orrialde gutxiago, eta 2008an baino 47.000 gutxiago. Ia erdia galdu du, oraingo orrialde kopurua 53.500ekoa baita.

Barne sailkapena

Filosofia eta psikologia.....	7,-
Soziologia eta estatistika.....	13,5
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	6,5
Zuzenbidea. Administrazioa.....	7,5
Gizarte segurantzak. Seguruak.....	3,5
Linguistika eta filologia.....	10,5
Aurrehistoria.....	6,5
Historia eta biografiak.....	14,5
Etnologia.....	6,5
Edertia.....	12,5
Hirigintza eta arkitektura.....	6,5
Besterik.....	5,-

%100

Deskribatzen ari garen argazkiaren kolorea are beltzago uzten du aurreko laukiak. Esan nahi baita sail horretan bil-tzen dela gai horietako guztietako mundu osoa. Itsasoa ki-karatxo baten kabiaraztea bezala.

Ehuneko horiek ez dute inor engainatu behar: 270 tituluz osaturiko unibertso bateko ehunekoak dira, eta hainbesteren artean banatuta jakina da handiena ere txikia dela oso. Hu-rrenkera azaltzeko tresna gisa balio lezake, askoz gehiago ez.

Saileko produkzioaren zifra hori, 270, ez da datu estatistiko soila. Harago doa, gure porrota da, euskalgintzaren eta gizar-te (ustez) euskaldunaren porrot ez aitortu ez onartua, baina izan badena. Demagogia punttu batekin nahi bada, baina baiezta daiteke deus gutxi kontsumitzen dugula euskaraz ikasliburuaz eta literaturaz gainera. Amestu genuen euskal-dungo orekatu eta normalizatu, beregaina, ez da biharko.

Helduen literatura: 267 titulu


	2008	2009	2010	2011	2012
<i>Helduen literatura</i>	306	382	295	302	267
ekoizpenaren %	12, -	16, -	14,5	13,5	13,5
Urtetik urtera %Δ	15,9	24,2	-23,2	2,4	-11,6
Itzulpenen %	24,8	15,9	16,5	23, -	24, -
Berrargitalpenen %	33, -	22, -	24,3	21, -	21,7
Orrialde kopurua	57.283	58.092	41.346	50.292	48.531
Orrialde kopurua liburuko	187,1	152	140,1	166,5	181,9

Urteko produkzioan liburu honek duen indarra berdin mantentzen bada ere (%13,5), titulutan behera egin du. Ia lautik bat itzultitakoa da, eta berrargitalpenak aurreko urte-ko mailari eusten dio, tamaina egokitzat jotzen dena baino baxuago. Literaturako 1.700 orrialde gutxiago ekoitzi da. Li-teratur orriak, guztira, 48.531 dira.


Literaturaren eboluzio-lerroa

Literaturak, antza denez, ez du merkatu berririk irabaz-ten, ez du ohiko kontsumitzaileez gainera jenderik erakar-

tzen, 2009ko gailur hori salbuespena bada behintzat. Kontua da aurten bertan ia 2000ko kopurutan gaudela.



Literaturaren eboluzioaren indizea



35 titulu galtzeak dakar 11,6 puntu galtzea. Urtetik urtera azaltzen diren gorabehera (gora eta behera) horiek itxuraz handiak izanik ere, hedadura mugatuko unibertsoa izaki, ez dira horrenbeste zifra absolututan.

Generoka

Hurrenkera ia berdina da urtero, eta genero bakoitzaren balioak ere halatsu: narratiba beti dago oso goian, erdia bai-

no gehiago bereganatzen duela, eta oso urrutira etorri ohi da olerkia. Pozgarri da azken urteotan bere lekuari eusten jakin duten saioa, biografia, memoria eta antzekoen presentzia.

Eleberria. Ipuina.....	57, -
Olerkia.....	14, -
Antzerkia.....	4, -
Herri-literatura. Bertsoa.....	4,5
Saioa. Poligrafiak.....	8,5
Biografia. Kronika. Memoriak. Historia..	10, -
Besterik.....	2, -
	%100

Gainerakoak

Gai sail gehiago ere badira, zientzia eta teknika, aisia, erlijioa eta orotarikoa. Indar gutxikoak baitira laurak, oso gaine-
tik bada ere aurreneko biak aipatuko ditugu soilki, erlijioak eta orotarikoak ez baitute aski pisurik.


Zientzia eta teknika: 83 titulu

	2008	2009	2010	2011	2012
Zientzia/Teknika	147	149	173	112	83
Ekoizpenaren %	4,5	6, -	8,6	5, -	4, -
Urtetik urtera %Δ	6,8	-1,4	23,6	-35, -	-25,9
Itzulpenen %	28, -	25, -	29,5	18, -	28, -
Berrargitalpenen %	4,3	9,3	4,6	13, -	10,8
Orrialde kopurua	26.556	27.313	19.845	15.375	12.690
Orrialde kopurua liburuko	180,6	188,3	114,7	137,2	152,8

Indarrean puntu bat jaitsi da, titulutan 29 eta orrialdetan 2.685. Berrargitalpena, bestalde, ez da %11ra iristen: aurtengo produkzioa iazkoa baino baxuagoa da, baina orain urte batzuetakoa baino altuagoa.

Zientzia eta teknikaren eboluzio-lerroa

Bi urte segidako jaitsieraren esangura ez dakit, baina urte dezente atzera jo behar da maila baxu berarekin topo egiteko.



Barne sailkapena

Zientzia. Kultura.....	12,5
Zientzia zehatzak.....	4,-
Natur zientziak.....	5,-
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	32,-
Medikuntza.....	22,-
Ingurumena.....	15,-
Besterik.....	9,5

_____ %100

Ingeniaritzak medikuntzari gaina hartu dio oraingoan, aurreko urteetako joerari kontra eginez.

Aisia liburuak: 65 titulu

Musika.....	12,3
Argazkia.....	29,3
Jolasa. Jokoa. Kirola. Atletismoa.....	12,3
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	13,8
Kiosko literatura.....	32,3

_____ %100

Aurreko urteko maila bera mantentzen du, titulu kopuruan eta produkzioarekiko pisuan: 65 titulu eta %3ko pisua. Barne egituran ere ez dago aldaketa esanguratsurik.¶

2012ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	632	31,5
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak.	57	3,-
Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	575	28,5
— Haur eta gazteentzako argitalpenak		
1. FILOSOFIA	19	1,-
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	19	1,-
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	7	0,5
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moral. Liturgia.	7	0,5
Pastoral teologia. Eliza. Kristauz besteko erlijioak	7	0,5
3. GIZARTE ZIENTZIAK	821	41,-
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea.	94	4,-
Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	727	36,-
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia		
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	7	0,5
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia.	7	0,5
Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia		
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	64	3,-
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia.	64	3,-
Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza.		
Sukaldaritza	64	3,-
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	96	4,5
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa.	88	4,-
Margogintza. Argazkigintza. Musika	8	0,5
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak		
8. FILOLOGIA. LITERATURA	302	15,-
— Hizkuntzalaritza. Filologia	28	1,5
— Literatura. Literatur generoak	274	13,5
9. BIOGRAFIA. KONDAIRA	57	3,-
— Biografiak	21	1,-
— Kondaira	36	2,-
GUZTIRA	2.005	100

G A I A K



55 MIKEL TORRES ALDAVE

Giza naturatik animalien eskubideetara:
espezie partaidetza eta deliberamendu etikoa

Giza naturatik animalien eskubideetara: espezie partaidetza eta deliberamendu etikoa

MIKEL TORRES ALDAVE

EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia
Saileko doktoregaia

Zein da giza naturaren ideiak deliberamendu etikoaren baitan duen eginkizuna?¹ Eta, bereziki, zein motatako erlazioa ezarri daiteke giza naturaren ideiarene eta animalien estatus moralaren arazo etikoaren artean? Giza naturaren existentzia ukatzen duten autoreen aurka (Sartre, 1946), artikuluhonetan giza naturaren ideiak deliberamendu etiko-politikoan paper garrantzitsua jokatu behar duela defendatzen saiatuko naiz (Nussbaum, 1986, 1992, 1993a, 1993b). Giza naturaren inguruan dudak ikuspegiarekin lotura zuzenean, aldarrikatuko dut gizakiak moralki jokatzeko duen gaitasun berezi paregabeak gainontzeko animaliek ez dauzkaten betebeharrak eta erantzukizunak inposatzen dizkigula, eta betebeharrak nahiz erantzukizun horien artean animaliak begirunez ondo tratatzeko betebeharra aurkitzen dela.

Animaliekiko dugun jokaera baldintzatu beharko lukeen arren, auzi moralari dagokionez, espezie partaidetza irizpide hutsala dela frogatzen saiatuko naiz, eta baieztatuko dut izaki ezberdinak beren espezieak finkatzen duen bizimodu partikularra errespetatuz tratatu beharko genituzkeela. Beste modura esanda, giza naturari buruz dudak ikuspegiak in-

plikatzen du animaliekiko betebeharrak moral zuzenak ditugula: hau da, izaki moralak eta razionalak garen neurrian, onartu beharko genuke animaliek kontsiderazio moral zuzena merezi dutela. Gauzak horrela —argudiatuko dut—, gizaki (eta agente moral) izateak inplikatzeko dituen betebeharrak eta erantzukizunak ezin dira gizakiengana soilik mugatu, eta, bide horretatik, animaliak zuzenean moralki aintzat hartzearen edo haien eskubideen alde joko dut.

Artikuluaren sei atalaren banatuta dago. Lehenengoan, koherentzian oinarritutako metodologia etikoaren inguruko oinarri-oinarrizko ideiak labur aurkeztuko ditut. Bigarrenean, giza naturari buruz dudak ikuspegi labur azalduko ditut, gizakia moraltasunez jokatu dezakeen izaki bakarra dela oinarritzeko helburuarekin. Hirugarrenean, ontologiaren ikuspegi monista aldarrikatuko ditut, gizakia gainerako animalietatik bereizten duten ontologia dualistak kritikatzeko helburuarekin. Laugarren atalean, animaliak moralki aintzat hartzearen auziari helduko diot, animaliek gizakiok merezi dugun antzeko kontsiderazio moral zuzena edo antzeko eskubideak merezi dituztela defendatuz. Bosgarren atalean, ordea, argudiatze moralaren testuinguruan, analogia bidezko argudioen baliozkotasun baldintzak jorratuko ditut, gizaki-animalia konparazioak egokiak noiz izan daitezkeen aztertze xedearekin. Azkenik, seigarren atalean, artikularen konklusio orokor nagusiak laburbilduko ditut.

Koherentzian oinarritutako metodologia etikoa

Argudio, sineskera eta teoria etikoak oinarritzeko hobesten dudak ikuspegi metodologikoa koherentzian oinarritutako *oreka gogoetatsua*ren metodoa da². Sendotasunean eta koherentzian funtsatutako metodoaren oinarritzeko ideia nahiko argia eta ulerterraza da: moraltasunarekin lotutako gure argudio, sineskera eta teoria etikoek elkarrekin bateragarriak izan behar dute. Koherentzia, metodo horren arabera, argudioen, sineskeren eta teorien oinarripenaren sendo-

tasuna ebaluatzeko irizpide zentrala da. Gure argudioak, sineskerak eta teoriak elkarren artean zenbat eta koherenteagoak izan, oinarripenaren indarra ere gero eta handiagoa izango da.

Gutariko bakoitzak sinesmen eta uste ezberdin asko dauzka eta horiek gure jokabide moralala baldintzatzen dute. Argi eta garbi, izaki etikoak eta arrazoimendunak garen neurrian, gure sineskerak razionalak edo zentzudunak direlako itxaropena daukagu gehienok. Sendotasuna eta koherentzia razionaltasunaren gutxieneko baldintzak dira eta, beraz, razionaltasun moralaren gutxieneko baldintzak ere izan behar dute halabeharrez. Gauzak horrela, gizakiok, agente moral razionalak garelako, sendotasunarekin eta koherentziarekin nahitaezko konpromisoa daukagu. Elkarren aurka doazen sineskerak aldi berean egiazkotzat (edo arrazoikotzat) jotzen baditugu, razionaltasunak eskatzen diguna uste horien azterketa zorrotza egitea da, harik eta, moldaketa egokien bidez, sineskeren multzo orokorrak sendotasuna eta koherentzia berreskuratzen dituen arte.

Razionaltasunaren gutxieneko baldintzak diren heinean, sendotasunak eta koherentziak eginkizun zentrala jokatzeko dute deliberamendu etiko-politikoaren prozesuan. Iritzi etiko-politiko bat aldarrikatzen dugun bakoitzean iritzi hori gure gainontzeko sineskera eta usteekin koherentea dela ziurtatu beharko genuke, gure usteen multzo orokorraren sendotasunak arduratzen gaituen neurrian behintzat³. Gutariko gehienok iritzi etiko-politiko indartsuak aldarrikatzen ditugu (Euskal Herriak independentziarako eskubidea izan behar duela edo ez duela defendatzen dugu, emakumeek abortatzeko eskubidea izan behar dutela edo ez dutela sostengatzen dugu, homosexualak ezkontzeko aukera izan behar duten ala ez eztabaidatzen dugu, e.a.). Iritzi etiko-politiko indartsu horien artean, animaliek guk baino kontsiderazio moral askoz txikiagoa edo eskubide oso mugatuak soilik merezi dituztela dioen ustea nagusi da gaur egun. Uste horren ondorio praktikoen emaitzak begi bistakoak dira: gu

elikatzeko asmoz animaliak hiltzen ditugu, esperimentu zientifikoak garatzearen animaliak kaltetzen ditugu (esperimentu horiek gure ongizatea hobetuko dutelakoan), arropa egiteko ere animaliak hiltzen ditugu, e.a.

Baina, sendoak eta koherenteak al dira praktika horiek defendatzen ditugun gainontzeko sineskera moralekin? Ezetz pentsatzen dut. Hirugarren atalean, animaliek kontsiderazio moral askoz txikiagoa edo eskubide oso mugatuak soilik merezi dituztela aldarrikatzea oinarrizko printzipio moral batzuen aurka doala sostengatuko dut, zeharo zabaldua dagoen uste horrek sendotasunik eta koherentziarik ez duela baieztatuz. Hala balitz, animaliek guk baino kontsiderazio moral askoz txikiagoa edo eskubide oso mugatuak soilik merezi dituztela dioten sineskerak zalantzan jartzeko arrazoi hobezinak izango genituzke.

Gizakia, deliberatzeko eta moralki jokatzeko gaitasuna duen animalia razionala

Giza natura azaltzeko propietate esentzialak eta akzidentaltak bereiztea eskatzen du. Azalpenak hurrengo forma hartu lezake: gizaki batek X, Y edo Z propietate akzidentaltak (adibidez: hilabetean 1.000 euroko soldata irabaztearen propietatea, azala beltza edukitzearen propietatea edo euskara ezagutzearen propietatea) galdu arren, gizaki horri oraindik *gizaki* dei dakioko inolako arazorik gabe. Haatik, galtzen baldin baditu A, B edo C propietate esentzialak (adibidez: etorkizuna neurri batean aurreikusteko gaitasuna, modu librean aukeratzeko eta jokatzeko gaitasuna edo erabakiak hartzerakoan besteen interesak kontuan hartzeko gaitasuna), ezin izango genuke jada gizaki gisa onartu. Propietate bi multzo horiek bereizteko ezinbestekoa da azterketa ebaluatzailea egitea; izan ere, ezinbestekoa izango zaigu galde-tzea zeintzuk diren propietate garrantzitsuak gizakiak gizaki gisa ezaugarritzeko. Horrek giza naturaren gaineko ikuspegiaren, ontologiaren eta etikaren arteko lotura dagoela in-

plikatzen du, gertakarien eta balioen arteko behin betiko bereizketa absolutua ukatuz (Putnam, 1993; 2002).

Eboluzioaren teoriaren arabera, *gizakia* oraindik gizatiarrak ez ziren espezie biologikoengandik eboluzionatutako espezie biologikoa da. Neurri horretan, gizakiok gainontzeko izaki bizidunekin jatorria partekatzen dugun animaliak besterik ez gara. Hala ere, izaki bizidun guztien jatorri komuna oinarritzeaz gain, eboluzioaren teoriak gizakien berezitasunak ulertzeko interpretazio marko aparta ere eskaintzen digu. Gizakiok ezberdintasun anatomikoak nahiz portaerakoak ditugu gainontzeko animaliekin alderatuta (Ayala, 2006). Portaera ezberdintasun garrantzitsuenen artean, etikoki jokatzeko gaitasuna zerrendaren gailurrean agertzen zaigu. Lankidetzeta edo altruismoa bezalako jokabideak animalien aurkitu ditzakegun arren, gizakiak gara etikoki jokatzeko gaitasuna dugun izaki bakarrak (Korsgaard, 2006). Dena den, askok partekatzen dugun ikuspegi hau zalantzan jarri dute, neurri batean behintzat, autore garaikide batzuek (DeGrazia, 1996, 199-204; De Waal, 2006; Rowlands, 2012). Azken horien arabera, animalien jokabidearen eta giza portaera moralaren artean jarraitutasuna dago haustura baino gehiago, animalia batzuek nolabaiteko jokabide moralki bertutetsu ahula garatzeko gaitasuna izango bailukete. Tesi horren inguruan ditudan zalantza eta kezka nagusiak beste leku batean aurkeztu nituen (ikus: Torres Aldave, 2012) eta, beraz, ez ditut hemen berriz errepikatuko.

Idatzi honetan onartuko dut etikoki jokatzeko gaitasuna dela gizakien eta animalien arteko ezberdintasun nagusieta-koa. Gizaki gehienok moraltasunez jokatzen dugun (edo moraltasunez jokatzeko aukera dugun) izaki razionalak gara; animaliek, berriz, gutxieneko autonomia maila ez daukaten neurrian, ez dute horrela jokatzeko ahalmenik⁴. Gizakien eta gainontzeko animalien artean dagoen ezberdintasun edo haustura sakon garrantzitsu horrek animaliekiko betebeharrak moral zuzen sakonak ditugula inplikatu du, beraiek gurekiko ez dituzten betebeharrak.

Esentzialki izaki etikoak garen heinean, hurrengo oinarritzko galderari erantzun behar diogu: zeintzuk dira kontsiderazio moral zuzena edo eskubideak merezi dituzten izakiak? Eta, zeintzuk dira kontsiderazio moral zuzen hori edo eskubide horiek oinarritzeko ezinbestekoak diren irizpideak? Zergatik dira irizpide horiek garrantzitsuak? Espeziearen kontzeptua biologian oinarritzkoa dela argi dago, baina zein da deliberamendu etikoaan jokatzeko duen eta joka dezakeen papera? Espezie-partaidetza kontsiderazio moral zehazteko garrantzizko irizpidea ote da?

Mortalasunaren hiru funtsezko printzipiotan (Rowlands, 2002, 26-57) eta animalien eskubideen aldeko bi argudiotan (Singer, 1990, 37-59; Rowlands, 2002, 26-57) oinarrituz, gizakiek aparte animalia batzuek ere kontsiderazio moral zuzena edo eskubideak merezi dituztela defendatuko dut. Herrera Guevararekin (2008) bat eginez, zenbat eta razionalagoak nahiz moralagoak izan (zenbat eta gizatiarragoak, azken finean), gainontzeko animaliekiko orduan eta lotura nahiz betebeharrak moral zuzen garrantzitsu sakonagoak ditugula frogatzen saiatuko naiz. Horrela, animalien eskubideekin lotutako deliberamendu etikoen esparruan, giza naturaren ideiak paper nagusia jokatzeko duela oinarritzen saiatuko naiz, gertakarien eta balioen artean nolabaiteko lotura egon badagoela iradokitzen dudana bitartean. Horretarako lehenengo pausoa giza naturaren ikuspegi zehatza ematea izan da, gizakiak izaki moral razional gisa definituz. Bigarren pausari ekingo diot hurrengo atalean, gizakiak animalien antzekotasun bereizten dituzten teoria ontologiko dualisten kritika planteatuz.

Dualismoaren gainbehera eta monismo ontologikoaren defentsa

Moralki jokatzeko gaitasuna alde batera utzita, gizakien eta animalien artean jarraitutasun eta antzekotasun garrantzitsu sakonak daudela oinarritzeko ontologia monista geuregana-

tzea inportantea da (Herrera Guevara, 2008, 21-4). Gizakien eta animalien artean amildegi ontologiko gaindiezina dagoe-la dioen ideia filosofo askok defendatu dute historian zehar eta, onerako edo txarrerako, gure mendebaldeko kulturaren herentziaren bidez jasotzen dugun ideia nagusietakoa bilakatu da. Ezberdintasun ontologikoaren tesi horren arabera, azaleko loturak eta antzekotasunak egon daitezkeen arren, gizakien eta gainontzeko izaki bizidunen artean erabateko hausturak edo ezberdintasunak daude. Gizakiok bizidunen munduan parekorik ez dugun izakiak omen gara. Hala eta guztiz ere, zaila da bateratzea ezberdintasun ontologikoaren tesia gaur egun gure lekua kosmosean zein den erakusten duten ezagutza zientifiko-biologikoekin, bereziki Darwinek garatutako eboluzioaren teoriarekin (Riechmann, 2003, 51-8).

Dualismoaren eta berorrek inplikatu ohi duen ezberdintasun ontologikoaren tesiaren aurrean, monismoaren eta antzekotasun ontologikoaren tesiak defendatu nahi ditut. Ontologia maila desberdinak dituen jarraitutasun fisiko-biologiko-sozial bakarrean oinarritzen dela uste dut. Izakien maila ezberdin bakoitzak berezko propietate gaineratorriak eduki ditzake, baina horrek ez du inolaz ere inplikatzeko maila gorenak beste maila apalagoetatik guztiz independenteak direnik, are gutxiago erabateko bereizketa edo haustura dagoenik maila ezberdinen artean. Dualismo metafisikoa baino, materialismoan oinarritutako ontologia eboluzionista animaliekiko loturak eta antzekotasunak aztertzeke abiapuntu egokiagoa da.

Dualismoa⁵ bi eta soilik bi substantzia mota existitzen direla dioen teoria metafisikoa da: objektu fisikoak eta gogoak edo arimak. Objektu fisikoak espazioan eta denboran zabalitzen diren entitate solidoak dira, publikoki behagarriak dira, materialiaz osatuta daude eta, neurri handi batean, objektiboak dira. Gogoak, berriz, kualitatiboki ezberdinak dira objektu fisikoekin konparatuz, ez baitira espazioan zabalitzen, ez dira ez solidoak ezta materialak ere, haiek publikoki behatzea ezinezkoa da eta subjektiboak dira. Dualismoa-

ren arabera, gogoa ez da substantzia fisikoa; gogoa eta gorputza elkarrekin lotura duten substantzia ezberdinak dira⁶. Gorputzaren eta gogoaren artean identitate erlaziorik ez dagoela defendatzen duten doktrinetako bat da beraz dualismoa, gogoa ezin baita inolaz ere garunaren ezaugarri fisikoe-tara soilik murriztu. Ikuspegi horren arabera, gizakiak gauza fisikoez (gorputza) eta ez-fisikoez (gogoa, arima) osatutako izakiak gara⁷ eta animaliak, aldiz, osagai fisikoak soilik dituzten izaki mekanikoak dira (Descartes, 1637, 81-5)⁸. Animaliek ez dute gogorik edo arimarik. Dualismoaren tesi nagusien azalpen labur horrek ez dio justizia egiten teoriaren konplexutasun eta ñabardura zehatz askori, baina ikuspegiaren irudi orokor argia osatzeko nahikoa izatea espero dut.

Zientzia enpirikoek betidanik arazoak izan dituzte gogoa (ustez materialak ez diren pentsamenduez, emozioez, intuitzioez, e.a. bezalako osagaiez osaturikoa) garunetik (argi eta garbi fisikoa besterik ez den hori) nola sortu daitekeen azaltzeko, eta horrek, beste faktore historiko eta kulturekin batera⁹, dualismoaren arrakasta historikoa azaldu lezake. Dena den, kontzientzia zehatz-mehatz zer den oraindik ez dakigun arren, gogoa garunetik nola eratorri daitekeen azaltzeko aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituzte neurozientziak azken urteetan (ikusi, adibidez: Damasio, 1994). Garunean gertatzen diren fenomeno askok erlazio zuzena daukate gogoan gertatzen direnekin; adibidez, garun lesio batzuek gogoaren funtzionamenduan akatsak sortzen dituztela garbi dago. Froga horiek gogoaren filosofia materialista baten alde jokatzeko dutela iruditzen zait¹⁰. Beste aldetik, eboluzioaren teoriaren arabera, gizakia bizitza forma xumea-goetatik eboluzionatu duen animalia espeziea da eta dualismoak arazoak dauzka gertakari horren inguruko azalpen egokia eskaintzeko. Nola sortu da gogoa eboluzioaren historian? Nola azaldu daiteke gogoaren eboluzioaren eta garunaren eboluzioaren arteko korrelazio estua, biak substantzia guztiz ezberdinak direla baieztatzen bada? Gorputzaren eta gogoaren eboluzio biologikoan korrelazioa dagoela dirudi

argi eta garbi, eta dualistek arazoak dituzte korrelazio hori azaltzerako orduan. Neurozientzia garaikideak eta eboluzioaren teoriak dualismoa zalantzan jartzeko arrazoi enpiriko onak eskaintzen dizkigutela inplikatu lezake horrek guztiak.

Zientzia enpirikoen aurrerapenetan oinarrituriko argudioak alde batera utzita, dualismoaren arazo filosofikoak ere aski ezagunak dira. Dualismoaren arazo nagusietako bat materiala ez den gogoa/arima materiala den garunarekin/gorputzarekin nola elkarreragin dezakeen azaltzeko zailtasuna da. Ez da batere erraza azaltzea nola materiala ez den zerbaitek baldintzatu edo eragin dezakeen materiala den horretan. Monismo ontologikoaren teoria materialista ezberdinek abantaila garbia daukate esparru horretan. Substantzia mota bakarra baldin badago (materiala), badirudi izaki ezberdinen arteko erlazioak azalpen fisiko hutsen bidez azaldu daitezkeela, nahiz eta bide horretatik, besteak beste, kontzientziaren misterioa oraindik ez den argitu.

Beste aldetik, ez dago inolaz ere garbi zer den dualistek gogoaren izaerari buruz diotena. Nolakoa da gogoaren izaera teoria dualistetan? Gogoari materialtasunik eta publikotasunik eza edo subjektibitatea bezalako ezaugarri orokor batzuk egotzen dizkioten arren, ezaugarri orokor horietaz aparte zaila da jakitea zein den beraiek defendatzen duten gogoaren izaeraren irudia. Adibidez, zer esan nahi eta inplikatzeko du gogoak izaki fisikoa ez izateak? Agian honelako tesiak aldarrikatu nahi dituzte: gogoak ez du formarik edo tamainarik, pisurik ez du, kolorerik edo usainik ez du, partikula fisikoez osaturik ez dago, e.a. Arazoa da gogoaren izaera azaltzeko horrelako saiakerak ezaugarri negatiboetan soilik oinarritzen direla, hau da, gogoaren izaera azaltzeko gogoak zer ez den esaten digute. Baina, noski, horrek ez digu deus ere esaten gogoaren izaerari buruz. Gauzak horrela, ez dago batere garbi zer den dualistek esaten dutena gogoak izaki ez-fisikoa dela diotenean. Gogoaren kontzeptuaren esanahiaren inguruan argitasuna lortzeko, dualistak ezin dira mugatu gogoak ez dituen propietateen zerrenda osatzera,

zerrenda amaigabea izango bailitzateke. Ez dio axola zerrendak nolako luzera duen, gogoaren izaeraren inguruko iluntasuna baztertzeko baieztapen positiboak egin beharko lituzkete dualistek halaberrez. Puntu honetan, gogoak egiten dituen gauzak aipatzeko tentazioa eduki lezakete dualistek. Saiakera hutsala dela deritzot. Gogoak pentsamenduak eta arrazonamenduak sortzen ditu, kontzientzia osatzen du, intentzioak eta desioak sortzen ditu, e.a. Baina horrek ez du argitzen ikuspegi dualista; izan ere, gogoaren teoria materialistek beren ikuspegien barruan gogoaren ezaugarri horiek txertatzeko inolako arazorik ez dute. Ezberdintasuna da materialistek garunaren eta gogoaren arteko korrelazio estua (edo, batzuetan, erlazio kausal zuzena) erakusten dutela; pentsamendu eta arrazonamenduez, kontzientziaz, intentzio eta desioez hitz egiten dutenean, materialistek gogoaren irudi argia eskaintzen digute: gogoak egiten dituen gauzak garun prozesuen bidez azaldu daitezke. Ikuspegi dualistetan, horrelako azalpenik ez dago eta, beraz, pentsamenduak bezalako gogoaren produkzioak izaki misterioitsuak bilakatzen dira. Dualismoak ez digu esaten gogoa zer den eta, hori dela eta, teoria dualisten bihotzean aurkitzen den objektu fisikoak/gogoa funtsezko bereizketa ulertezina dela ondorioztatu genezake, dualismoa ikuspegi metafisiko onartezina bilakatuz.

Kontsiderazio moralaren auzia eta animalien eskubideen aldeko bi argudio

Gizaki gehienok animalia asko nolabaiteko kontsiderazio morala merezi duten izaki gisa ikusten ditugu. Adibidez, mendian bat-batean topatu dudan txori bati su ematen badiot asper-asper egina nagoelako, gehienon intuizioak dio jokabide hori moralki onartezina dela. Hori, noski, argudioa baino konstatazio hutsa da, intuizioak ez baitira berez argudioak. Agian gehienok oker gabilta auzi honetan eta animaliek ez dute inolako kontsiderazio moralik merezi; horre-

la balitz, txoriari su emateak ez luke inolako auzi moralik ekarriko. Nolabait esatearren, gustu kontu hutsa besterik ez litzateke izango: nik txoriei su ematea gustuko dut eta gehienok ez duzue hori gustuko, akabo eztabaida. Dena den, intuizioak aurkakoa esaten digun arren, artikulua honetan ez dut onartutzat joko animaliek nolabaiteko kontsiderazio moralak merezi dutela dioen tesia, eta animalien eskubideen aldeko bi argudioren bidez oinarritzen saiatuko naiz.

Izaki batek kontsiderazio moralak merezi du baldin eta agente moralek, erabakiak hartu behar dituztenean, izaki horren interesak edo ongizatea kontuan hartzeko beharra baldin badaukate. Beste modu batean esanda, izaki batek kontsiderazio moralak merezi duela esateak inplikatzan du agente moralek aintzat hartu behar dituztela beren ekintzek aipatu izaki horren interesetan eta ongizatean izango litzaketan ondorioak. Gauza batzuek kontsiderazio moralak zuzena merezi dute (gizakiek eta animalia batzuek, adibidez) eta beste batzuek, ordea, ez-zuzena soilik (artelaneak, autoak, landareek...)¹¹.

Zein da kontsiderazio moralak zuzena merezi izateko irizpide nahikoa eta/edo beharrezkoa?¹² Askotan, kontzientzia edukitzea onartzen da kontsiderazio moralak zuzena mereitzeko irizpide nahiko eta beharrezko gisa¹³. Irizpide horren arabera, kontzientzia duten izakiek kontsiderazio moralak zuzena merezi dute eta kontzienteak ez diren izakiek, aldiz, ez dute horrelako kontsideraziorik merezi. Irizpidearen atzean ezkututzen den intuizioa hurrengoa da: kontzienteak diren izakiek ongizate subjektiboaren esperientzia dute, alegia, izaki horiei axola zaie gertatzen zaiena. Aitzitik, kontzientziarik ez duen izaki batek ez luke ongizate subjektiboaren esperientzia edukiko eta, beraz, ez zaio axola gertatzen zaiona (horrela hitz egiteak zentzurik baldin badu). Animalia bati su ematen badiogu, animalari ekintza horrek min ematen dio eta minaren sentipen subjektiboa esperimendatzen du. Badi-rudi hori, berez, garrantzi moralak duen fenomenoak dela. Auto bati su ematen badiogu, ordea, ekintza horrek ez dio ino-

lako minik emango, autoak ez baitu esperimentatzen minaren inolako sentipen subjektibo deserosorik; izan ere, izaki kontzienteak ez diren neurrian, autoak ez dira horrelako esperientziak izan ditzaketen izaki motak. Zentzu metaforiko batean hitz egin genezake autoaren ongizateaz, noski; baina zentzu hertsian autoak ongizate subjektiboa ez duten izakiak dira. Gauzak horrela, animaliek (giza animaliak barne) kontsiderazio moral zuzena mereziko lukete baldin eta bakarrik baldin izaki kontzienteak izango balira. Ondorioz, kontzientziak kontsiderazio moral zuzenaren mugak zehazten ditu.

Lehenago esan dut animaliei nolabaiteko kontsiderazio moralala intuitiboki egozten diegula. Hala eta guztiz ere, gizaki gehienok pentsatzen dugu animaliek guk baino kontsiderazio moral txikiagoa merezi dutela; gurekin konparatuta, animaliek bigarren mailako estatus moralala merezi dutela pentsatzen dugu. Oinarri sendorik al dago baieztapen hori funtsatzeko? Ezezkoan nago. Rowlandsekin (2002, 26-57) batera, nire tesia da animalien kontsiderazio moralaren inguruko ikuspegi arrunt horrek sendotasunik ez duela, koherentea ez da eta. Zergatik edo zerekin ez da koherentea? Onartzen ditugun irizpide edo printzipio moral oinarrizko batzuekin, hain zuzen ere. Animalien eta gizakien arteko nolabaiteko berdintasun moralala defendatzen saiatuko naiz: animaliek eta gizakiek, izaki kontzienteak diren neurrian, kontsiderazio moral zuzen berdina edo, gutxienez, oso antzekoa merezi dute nire tesiaren arabera. Izaki kontziente guztiek estatus moral berdina edo oso antzekoa merezi dutela defendatzen saiatuko naiz, beraz.

Moralitatearen oinarrizko bi printzipio *berdintasunaren printzipioa* (gizaki guztiak moralki berdina dira¹⁴) eta *merzimentuaren printzipioa* (inori ezin zaizkio leporatu bere kontroletik at dauden jokabideak, ezta haien ondorioak ere) dira. Bi printzipio horiek elkarrekiko lotura zuzena daukate. Kasuren bat baldin badago, zeinean gizaki baten kontsiderazio moralari beste batenari baino pisu handiagoa eman behar zaion, orduan kontsiderazio moral txikiagoa merezi

duen gizakiak libreki egindako zerbaitetan baino ezin da aurkitu bereizketa horren justifikazioa.

Merezimenduaren eta kontsiderazio moral berdinen arteko lotura estua da. Zertan datza berdintasunaren printzipioaren oinarria? Oraindik oinarrizkoagoa den beste printzipio batetik eratorren da: *garrantziaren printzipioa* (ez dago desberdintasun moralik moralki garrantzitsua den beste desberdintasunik egon ezean). Garrantziaren printzipioa moralki ebaluatu daitekeen edozein gauzari aplikatu dakioke: pertsonak, ekintzak, erakundeak, arauak, e.a. Puntu honetan arazo nagusia, noski, desberdintasun bat moralki garrantzitsua bilakatzen duten irizpideetan edo desberdintasunetan ados jartzean datza. Dena den, gaur egun, demokraziaren eta berdintasunaren idealak onartzen ditugun heinean eta kontsiderazio moralari dagokionez, gizakien artean ezberdintasun moral garrantzitsurik ez dagoela pentsatu ohi dugu, baita gizaki guztiek kontsiderazio moral berdina merezi dutela ere.

Nola lotzen zaizkio moralitasunaren hiru funtsezko printzipio horiek animalien kontsiderazio moralaren auziari? Kontua da animalien eskubideen aldeko argudio indartsua osatu daitekeela aipatutako oinarrizko printzipio moralez baliatuz gero. Argudioak honako forma hartu lezake:

1. *Lehenengo premisa*: gizaki guztiek kontsiderazio moral berdina merezi dute (berdintasunaren printzipioa).
2. *Bigarren premisa*: desberdintasun moralik ez dago moralki garrantzitsua den beste desberdintasunik egon ezean (garrantziaren printzipioa).
3. *Hirugarren premisa*: gizakien eta animalia askoren artean garrantzi moralak duen inolako desberdintasunik ez dago.
4. *Ondorioa*: animalia askok gizakiek merezi duten kontsiderazio moral berdina merezi dute.

Hirugarren premisa eztabaidagarria bezain polemikoa da argi eta garbi. Gizakiok gaitasun fisiko eta intelektual ezberdin anitzak ditugu elkarren artean, eta desberdintasun ho-

riek areagotzen dira gizakien eta gainontzeko animalien artean. Hala ere, hirugarren premisa defendagarria iruditzen zait: gizakien eta gainontzeko animalien artean desberdintasun handiak eta ugariak aurkitu arren, kontsiderazio moralaren auziari dagokionez horiek garrantzirik ez dutela pentsatzen dut. Bi galdera nagusi mahaigaineratu behar dira orain:

1. Zeintzuk dira gizakien eta animalien arteko ezberdintasun nagusiak?
2. Ezberdintasun horiek garrantzi morala al dute?

Lehen esan bezala, gizakien eta animalien artean ezberdintasun sakon anitzak aurkitu ditzakegu. Hiru multzotan antolatuko ditut, multzo hauek ezberdintasun nagusi guztiak jasotzeko gai izango direlako esperantzarekin.

Batetik, espezie partaidetza da lehenengo ezberdintasun nagusia. Gizakion eta gainontzeko animalien arteko ezberdintasun bistakoena da animaliak giza espezieko kideak ez direla. Nabarmenki, inolako animaliarik ez dago gurekin propietate hori konpartitu dezakeenik. Moralki garrantzitsua ote da hori? Ez. Espezie bateko ala besteko kide izatea genetika kontu hutsa besterik ez da azken finean¹⁵ eta, orerako edo txarrerako, ez da erraza ikustea zergatik gene batzuk edukitzea beste batzuk edukitzea baino garrantzitsua goa den kontsiderazio moralari dagokionez¹⁶, batez ere kontuan hartzen badugu giza espeziearen mailaz mailako azaleratzea eboluzioaren teoriaren arabera. Espezie berriak espezie zaharretatik apurka-apurka sortzen dira; gauzak horrela, onartzen badugu gizakiok (*Homo sapiens*) *Homo erectus* espezieetik gutxika-gutxika eboluzionatutako izakiak garela, nahiko arbitrarioa dirudi guk kontsiderazio morala merezi dugula eta azken espezie horretako kideek, berriz, merezi ez dutela baieztatzea¹⁷. Ez dago momentu magiko bat, zein角度an espezie bat bat-batean beste espezie ezberdin bat bilakatzen den. Beste aldetik, espezieak garrantzi morala daukala dioen tesiak ondorio praktiko onartezinak ekar ditzake. Eman dezagun izugarri adimentsuak (gizaki gehienok

baino askoz gehiago) diren estralurtarrak iristen direla gurre planetara. Ukatuko al genieke kontsiderazio morala soilik gure espeziekoak ez izateagatik? Ezezkoan nago, ziur aski estralurtarrei nolabaiteko kontsiderazio morala egotziko genieke, baina ez dut ikusten nola egin genezakeen hori oinarri genetikoetan soilik funtsatzen baditugu kontsiderazio morala merezi izateko argudioak.

Adibide hori arraroegia iruditzekotan, genetikaren garrantzian oinarritutako argudioen arriskura jo dezakegu. Espezieak garrantzi morala duela onartzen badugu eta espeziea kategoria genetiko huts gisa ikusten badugu, ez legoke garbi zergatik arraza edo sexua bezalako beste kategoria genetikoek ere ez luketen garrantzi morala eduki behar. Gauzak horrela, kontsiderazio moralaren kontzeptua espezie partaidetzaren kontzeptuarekin zuzenean lotuta ez dagoela ondorioztatu beharko genuke. Hala bada, hasiera batean behintzat eta pentsatu ohi dugunaren aurka, gizakia izateak ez du inolako garrantzi moral berezirik inplikatzeko kontsiderazio moralaren auziari dagokionez¹⁸.

Bestetik, gizakien eta animalien arteko ezberdintasun fisiko eta mentalak har ditzakegu aintzat. Normalean, gizakiok gure burua gainontzeko animaliena baino askoz adimentsuagotzat jotzen dugu; izaki argiak eta adimentsuak gara, eta animaliak, ordea, izaki ergelak eta inozoak dira. Zer nolako garrantzi morala dauka ezberdintasun horrek? Bat ere ez. Edonolako ezberdintasun fisiko edo intelektualetan oinarritutako argudioek espezieen gainjartzearen argudioaren erronkari aurre egin behar diote. Gizaki gehienok gainontzeko animaliek ez dituzten gaitasun fisikoak eta intelektuallak ditugula egia nabarmena izan arren, salbuespenak, ez gutxi, egon badaude (haur jaioberriak, alzheimerrak jota dauden agureak, koma egoeran dauden gizakiak, e.a.). Animalia batzuek gizaki batzuek baino gaitasun fisiko nahiz intelektual handiagoak eta sakonagoak dituzte. Hortaz, haiek gaitasun fisiko eta intelektual txikiagokoak direla eta animaliek gizakiok baino kontsiderazio moral gutxiago merezi

dutela defendatu nahi izanez gero, eta kontuan izanda espezie partaidetzak inolako garrantzi moralik ez duela, gaitasun fisiko eta intelektual txikiagoak dituzten gizakiek ere kontsiderazio moral gutxiago mereziko luketela ondorioztatutako beharko genuke (gure pentsamendu eta argudiatzeetan koherentzia mantendu nahi izanez gero behintzat¹⁹). Espezieen gainjartzearen argudioa honela aurkeztu daiteke:

1. *Lehenengo premisa*: X da propietate bereizgarri bat, gizakiak eta gainontzeko animaliak elkarrengandik bereizten dituen eta moralki garrantzitsua dena.
2. *Bigarren premisa*: X propietate bereizgarria ez daukaten gizakiak egon badaude.
3. *Ondorioa*: orduan, bi aukera daude: (1) gizaki horiek ez dute merezi animaliek baino kontsiderazio moral handiagorik; edo (2) X propietate bereizgarria edukitzea moralki garrantzitsua dela dioen tesia baztertu beharra dago.

Argudioa indartsua da benetan: izan ere, ez du axola nola definitzen dugun X propietatea (gaitasun fisiko zehatz gisa, gutxieneko maila intelektual gisa, e.a.), propietate hori ez daukaten gizakiak aurkituko baititugu²⁰. Gizakien eta animalien arteko desberdintasun kualitatibo nagusia moralki jokatzeko gaitasunean datzala postulatu dut lehen. Espezieen gainjartzearen argudioa ere irizpide horri aplikatu dakiokela seinalatzea garrantzitsua da. Moralki jokatzeko gaitasuna eduki arren, ez dugu gaitasun hori ez duten izakiek baino kontsiderazio moral handiagoa merezi. Moralki jokatzeko gaitasunari dagokion aldea edo ezberdintasuna garrantzitsua da, noski, auzi moral askotan (adibidez, erantzukizunari lotutako auzietan); baina, kontsiderazio moralaren auziari dagokionez, ez da moralki garrantzitsua. Moralki jokatzeko gaitasunaren eskutik, animaliekiko betebeharrak moralki zuzenak dauzkagula ondorioztatzen da, ez animaliek baino kontsiderazio moral handiagoa merezi dugula.

Espezieen gainjartzearen argudioari aurre egiteko aukera badago; izan ere, koherentziaren edo sendotasunaren eska-

kizunak ez digu esaten gure usteetatik zeintzuk baztertu beharko genituzkeen. Jaioberriak diren, alzheimerrak jota dauden, koma egoeran dauden, e.a. bezalako gizakiek, beren gaitasun fisiko eta intelektual txikiagoak direla eta, gaintzeko gizakiek baino kontsiderazio moral gutxiago merezi dutela onartzeko prest egotekotan, orduan, inolako kontraesanik edo inkoherentziarik gabe, aldi berean sostengatu genezake animaliek gizakiek (edo gizaki gehienek, hobe esanda) baino kontsiderazio moral txikiagoa ere merezi dutela.

Egia da batzuek (espezieen gainjartzearen argudioaren) ondorioak planteatzen duen disjuntzioaren aurrean (1) aukeratuko luketela; baina gehienok, intuitiboki behintzat, jarrera horren aurka gaude eta, ondorioz, (2) aukeratzearen alde (berdintasunaren printzipioa oinarrizko printzipio moral delatuta pentsatzen dugulako). Berdintasunaren printzipioa ukatzeak bi arazo nagusi ditu: alde batetik, ondorio praktikoa latzak eduki ditzake, kontsiderazio moral txikiagoa merezi duten gizakien diskriminazioari eta esplotazioari atak irekitzen baitizkio; bestetik, kontsiderazio moral osoa eskuratzeko gutxieneko maila zein den zehaztea ez da batere erraza, arbitrarioki egiten ez bada.

Kontuak kontu, eta objekzio horren garrantzia onartu arren, gizakien eta animalia askoren artean garrantzi moral delatuta duen inolako desberdintasunik ez dagoela pentsatzeko argudio onak ditugu eta, beraz, animalien eskubideen aldeko argudioaren hirugarren premisa polemikoa defendatzeko oinarri sendoak ditugu. Orduan, oker ez banago, animalia askok gizakiek merezi duten kontsiderazio moral berdina (edo, gutxienez, oso antzekoa) merezi dutela ondorioztatzea behartuta gaude.

Erabili ditudan argudioak batez ere gizaki-animalia analogietan oinarritzen direnez, analogia bidezko argudioen egokitasunaren inguruko gogoeta batzuk eskainiko ditut segidan, erabilitako argudioak egokiak izan daitezkeela oinarritzeko itxaropenarekin.

Analogia bidezko argudioen egokitasun baldintzak deliberamendu etikoan

Analogia bidezko argudioak²¹ askotan erabiltzen dira deliberamendu etikoaren prozesuan, horrelako argudioek gure ikuspegi moralen koherentziaren eta sendotasunaren inguruan pentsatzerakoan bereziki laguntza bikaina eskaintzen baitigute. Argudio analogikoak konparazioan edo alderapenean oinarritzen dira. Deliberamendu moralari dagokionez, analogian oinarrituriko argudioen funtsezko ideia hurrengoa da: antzeko kasuak antzera tratatu behar dira. Ideia horrek zuzeneko lotura dauka aurreko atalean aurkeztutako garrantziaren printzipioarekin: ez dago desberdintasun moralik moralki garrantzitsua den beste desberdintasunik gabe. Pentsatu dezagun hurrengo adibideari buruz. X ekintza (adibidez, ondo pasatzeko asmotan, haurtxo bati su ematea) gaizki dagoela uste dugu. Suposa dezagun, aldi berean, Y ekintza (adibidez, ondo pasatzeko asmotan, txori bati su ematea), moralki garrantzitsuak diren aspektu askori dagokionez, lehenengoaren antzekoa dela uste dugula (adibidez, bi ekintza horietan indibiduo errugabeak dira kaltetuak, biak askatasunez erabakitako borondatezko ekintzak dira, biak denbora «ondo» pasatzeko helburuarekin egindako ekintzak dira, e.a.). Orduan, gure sineskera multzoaren sendotasunaren eta koherentziaren izenean, X eta Y ekintzak antzeko moduan moralki onartezinak direla pentsatzera behartuak gaude neurri handi batean.

Analogia bidezko argudio etikoak neurri batean eztabaia daezina den X kasu edo adibide batetik abiatzen dira, printzipioz denok onartu beharko genukeen ebaluazio morala aurkeztuz. Ondoren, eztabaidagarria den Y kasua edo adibidea aurkeztu du argudioak, eta kasu horren inguruan pertsona ezberdinek ebaluazio moral ezberdinak (askotan, zuzenean aurkakoak) egiten dituzte. Argudio analogikoaren helburua Y kasu eztabaidagarriaren auzia konpontzea da, X

kasu eztabaidaezinarekin egindako konparazioaren bidez. Laburbilduz, analogia bidezko argudioek honela egiten dute aurrera: (a) lehendabizi, X eta Y kasuak garrantzitsuak diren aspektuetan antzekoak eta konparagarriak direla erakusten dute. Ondoren, (b) koherentziaren eta sendotasunaren izenean, Y kasu eztabaidagarriak X kasu eztabaidaezinenaren ebaluazio moral berdina (edo, gutxienez, antzekoa) jaso beharko lukeela ondorioztatzen. Formalkiago:

1. *Lehenengo premisa*: X ekintza moralki onartezina/onargarria da (ustez, eztabaidaezina den edo adostasun handikoa den ebaluazioa).
2. *Bigarren premisa*: X eta Y garrantzitsuak diren aspektu guztietan (edo, gehienetan behintzat) antzeko ekintzak dira (horixe da Xren eta Yren arteko analogia)²².
3. *Ondorioa*: Y ekintza moralki onartezina/onargarria da (ebaluaziozko ondorioa)²³.

Animalien eskubideen inguruko eztabaida filosofikoetan forma honetako argudioak erabiltzen dira behin eta berriz:

1. *Lehenengo premisa*: gizakiek berezko balioa (instrumentala ez den balioa) daukate/ez daukate (ustez, ebaluazio eztabaidaezina).
2. *Bigarren premisa*: gizakiak eta animaliak garrantzitsuak diren aspektu guztietan (edo, gehienetan behintzat) antzeko izakiak dira (izakien arteko analogia).
3. *Ondorioa*: animaliek berezko balioa daukate/ez daukate.

Analogia bidezko argudio etikoak zalantzan jartzeko bi bide nagusi daude: (1) analogia ezartzen duen premisa zalantzan jartzea; eta/edo (2) ebaluazioan oinarritzen den premisa auzitan ipintzea. Kritika posible horiei erantzun egokia emateak analogia baten egokitasuna ebaluatzen irizpideak zehaztea eskatzen du. Bost irizpide nagusi aurkeztuko ditut:

1. *Egia*: kontuan hartu beharreko lehenengo gauza da konparatzen ditugun objektuen antzekotasunaren egia.

2. *Garrantzia*: bi objektu aspektu anitzetan antzekoak izan arren, ebaluatu behar dugu aspektu horiek argudioaren ondorioari dagokionez garrantzitsuak diren ala ez. Objektu batek P_1, P_2, \dots, P_n propietateak edukitzeagatik aldi berean Q propietatea edukitzea litekeena dela ziurtatu beharra dago.
3. *Kopurua*: analogia bidezko argudioetan, kopuruak garrantzia dauka. Analogiako objektuek, ondorioari dagokionez, zenbat eta propietate gehiago partekatu, orduan eta indartsuagoa izango da analogia bidezko argudioa.
4. *Aniztasuna*: analogia bidezko argudioetan, objektuek konpartitutako propietate garrantzitsuak zenbat eta anitzagoak izan, orduan eta arrazoi gehiago izango ditugu argudioaren ondorioa onartzeko.
5. *Ezberdintasunak*: X eta Y objektuak propietate garrantzitsu askotan bat etorri arren, oraindik ezinbestekoa izango da bien arteko ezberdintasun posibleak aztertea, eta ezberdintasunak asko badira, argudioaren ondorioa zalantzan jarri daiteke.

Nire ustez, ikerketa zientifiko garaikideetatik, elkarbizitatzetik etorrarazitako intuizioetatik eta gizaki-animalia analogian oinarritutako argudioetatik eratorritako argudioek erakusten dute animaliak izaki adimentsuak direla, mina eta plazera sentitzeko gaitasuna daukatela, emozioak sentitzeko gai direla, arau eta hierarkia sozialak jarraitzen dituztela, e.a. Hau da, animaliek gurekin moralki garrantzitsuak diren aspektu asko konpartitzen dituzte zalantza izpirik gabe. Dena den, ebaluatu dezagun laburki gizaki-animalia analogia aipatutako bost irizpideen arabera.

Gizakiak eta gainontzeko animaliak antzekoak direla argi eta garbi dago; izan ere, eboluzioaren teoriak frogatzen duen legez, gizakiak abere hutsak besterik ez gara. Ondorioz, objektuen antzekotasunen egiazkotasuna zalantzan jartzetik ez dago (antzekotasunak, noski, gero eta handiagoak izango dira konparaziorako aukeratutako animaliak gure eboluzio-eskalatik zenbat eta gertuago izan).

Kopuruari dagokionez, gizakiek eta gainontzeko animaliek moralki garrantzitsuak diren propietate anitz konpartitzen dituztela ere argi dago (mina eta plazera sentitzeko gaitasuna, ongizate subjektiboa duten izaki kontzienteak izatea, emozioak sentitzeko gaitasuna, e.a.).

Aniztasunak ere ez du arazo handiegirik sortzen. Gizakiek eta animaliek propietate garrantzitsu anitz partekatzen dituzte (fisiologikoak eta jokabidekoak batez ere).

Ezberdintasunekin lotuta hasten dira arazo latzak, nire us-tez. Gizakien eta animalien arteko antzekotasuna zentzuzkoa izan arren, eta biek propietate garrantzitsu asko konpartitzen dituztela argi dagoen arren, egia da ezberdintasun garrantzizkoak ere egon badaudela gizakien eta animalien artean (hizkuntzaren erabilera, moralki jokatzeko gaitasuna edo autonomia, kulturaren sorrera, e.a.). Zenbaterainoko garrantzi moralak daukate ezberdintasun horiek? Animaliek eta gizakiek kontsiderazio moral berdina, edo oso antzekoa, merezi dutela dioen argudioak auzitan jartzeko nahikoak ote dira? Eta, zeintzuk izan litezke ikuspegi horren inplikazio praktikoak?

Galdera zail horiei erantzuteko ezinbestekoa da oraindik aztertzeke dugun garrantziaren bigarren irizpidera zuzentzea. Arazo etiko-politikoak izanik, ez da harritzekoa animalien eskubideen auzian topatzen ditugun buruhauste sako-nenak garrantzi moralaren ebaluazioarekin lotutakoak izatea. Ebaluazioak balio kontuak dira, eta balioak kritikatzeko edo auzitan jartzea gauza erraza da sarritan. Filosofia moralaren historiak irakasten digu balio kontuetan akordioetara ailegatzea lan erraza ez dela. Hala eta guztiz ere, animaliei gizakiek merezi duten kontsiderazio moral berdina edo antzekoa ukatzen dieten ikuspegi inplikazio praktikoak kontuan hartzen baditugu, pentsatzen dut deliberamendu etikoaren bidez animalien kontsiderazio moral zuzena defendatu nahi dugunok baikorrak izateko arrazoiak ditugula, proposatutako argudioen ondorioak behin betikoak eta ez-tabaidaezinak izatetik urrun egon arren.

Konklusioak

Garrantziaren ebaluazioa mailaketa kontua da. Argi uzten du hori antzekotasunaren egiazkotasunaren irizpideak. Esan bezala, konparaziorako aukeratutako animaliak gure eboluzio-eskalatik zenbat eta gertuago izan, analogia bidezko argudioa orduan eta indartsuagoa bilakatzen da. Onerako edo txarrerako, analogia bidezko argudioak, gainontzeko argudio induktiboen antzera, ezin dira baliozko/ez-baliozko dikotomia sinplearen bidez sailkatu. Baliozkoak edo ez-baliozkoak izan beharrean, analogia bidezko argudioak indartsuagoak edo ahulagoak dira. Batzuetan indar handia dutela argi ikusten dugu eta besteetan, aldiz, ahulak iruditzen zaizkigu, eta erdibidean ebaluatzen zailak diren mota guztietako kasu eta argudioak topatzen ditugu. Hori da animalien eskubideen aldeko argudioen kasua. Aurkeztutako argudioek ez dituzte betirako ikuspegi metafisiko dualistak hondoratzen, are gutxiago animaliek inolako kontsiderazio moralik merezi ez dutela dioten ikuspegi etikoak. Hala eta guztiz ere, aurkeztutako argudioen haritik, zailagoa da gizaki-animalia erlazioen inguruko ikuspegi metafisiko eta etiko horiek onartzea. Argudioek indarra baldin badute, analogia bidezko argudioen indarra sailkatuko lukeen alegiazko lerroan, animalien eskubideen alde aurkeztutako argudioek indar handiaren edo maximoaren muturretik indargabekoarenetik baino dezente hurbilago daudela pentsatzeko arrazoi onak ditugula deritzot. Horretan oker ez baldin banabil, eta, halaber, koherentzia baldin badago razionaltasun etikoaren gutxieneko eskakizunen artean, eta, azkenik, onartzen baldin baditugu aurkeztutako moralitasunaren oinarrizko printzipioak, animalien eskubideen aldeko argudio indartsuak gure esku ditugula ondorioztatu beharko genukeela iruditzen zait. Pilota, orduan, animalien eskubideen kontrakoan teilatuan eongo litzateke.¶

1. Eskerrak eman nahiko nizkieke Belen Altunari eta Agustín Arrieta-Urtizbereari idatzi honen lehenengo zirriborro baten inguruan egindako komentario eta kritika zorrotzengatik. Artikuluaren akatsak soilik nireak diren arren, artikuluaren merituak, neurri handi batean, haienak dira. Hala eta guztiz ere, horrek ez du inplikatzeko artikuluaren defendatzen ditudan ikuspegiekin bat egiten dutenik.
2. Argudio, sineskera eta teoria etikoak oinarritzeko koherentzia funtsatuko oreka gogoetatsuaren ikuspegi metodologikoari buruzko ideia nagusien aurkezpen sakonarentzako, ikusi: DeGrazia, 1996, 11-35 eta, bereziki, Rawls, 1971, 74-8 eta 103-9; 1993, 38-9, 59, 103-4 eta 126-9.
3. Idatzi honetan alde batera utziko ditut sineskera etikoak egiazkoak izan ote daitezkeenaren inguruko auziak ala koherentzia oinarritutako metodologia etikoak koherentzia oinarrituriko egia teoria inplikatzeko ote duenaren ingurukoak. Orobat, ez ditut tratatuko arau edo printzipio orokorren eta kasu partikularren arteko erlazioekin lotutako auzi etikoak.
4. Lege moralak autonomoa da baldin eta bere baitan bere oinarriaren eta legalitatearen funtsa aurkitzen badu. Kanti (1785) eta Korsgaard (2006) jarraituz, autonomia moraltasunaren jatorri gisa onartzen dut: borondatearen autonomia edo askatasunean soilik aurkitu daiteke moraliki jokatzeko gaitasunaren (borondate onaren) jatorria. Gizakia, animalia asko ez bezala pentsatzen dut, bere buruari legeak ezartzen dizkion izakia da. Desio eta emozioetatik neurri batean independentea den borondaterik gabe ezin da benetako moraltasunik egon. Esan bezala, hau da nire ustez gizakien eta animalien arteko desberdintasun nagusia, pentsatzen baitut kasu honetan ezberdintasuna graduala baino esentziala dela. Dena den, tesi horri ñabardura asko erantsi behar zaizkio. Alde batetik, argi eta garbi dago animaliak ez direla normalean uste dugun bezain inozoak edo berehalako desioen menpekoak (ikusi, adibidez: De Waal, 2006), eta, bestetik, posible da Kanten teoria moralean emozioei nolabaiteko papera egokitzea betebeharrak moralak ezagutzeko orduan (ikusi: Prinz, 2010, 520).
5. Dualismoaren ezaugarripen orokorretzako eta teoriak aurre egin behar dituen arazo nagusien azterketarako, ikusi, adibidez: Priest, 1991, 17-53; Rowlands, 2003, 65-73; Warburton, 2001, 59, 65-6, eta 2004, 127-30.
6. Gogoaren eta gorputzaren arteko erlazioak azaltzeko hipotesi ezberdinak proposatu dituzte dualistek. Batzuentzat elkarreragin psiko-fisikoak norabide bikoitza dauka, gogo-egoerak gorputz gertaeren kausa izan daitezkeen bezala, gorputz gertaerak ere gogo-egoeren kausa izan daitezke. Beste batzuek gogo-egoerek kausa fisikoak dituztela baina gertaera fisikoek gogo-kausarik ez dutela pentsatzen dute. Oraindik ere bestelako hirugarren aukera dago: dualista batzuen arabera gogoaren eta gorputzen artean inolako erlazio kausalik ez dago.
7. Tesi horri beste bat gaineratu ohi diote dualismoaren defendatzaile gehienek: gizakia esentzialki gogoa da, eta modu kontingentean soilik da gorputza (ikusi, adibidez: Descartes, 1637, 64). Pertsona gogoa da, gorputza soilik dauka. Printzipioz ez dago zergatik bi tesi horiek aldi berean defen-

- datu beharrik; izan ere, batek defendatu litzake, batetik, dualismo metafisikoa eta, bestetik, gizakiok esentzialki, eta garrantzi maila berdinarekin, gogo eta gorputza batera garel.
8. Descartesen filosofian dualismo metafisikoari muturreko mekanizismoa eransten zaio, animaliak pentsatu ezin duten izaki mekanikoak direla justifikatu orduko. Descartes (1637, 71-85) arabera, pentsamendua ez den oro printzipio mekanikoen bidez azaldu daiteke, hau da, gorputzarekin lotura duten ezaugarri guztiak (mugimendua, hedadura, luzera, zabalera, e.a.) magnitude zenbakarri hutsetara murriztu daitezke.
 9. Adibidez, dualismo metafisikoa eta kristautasuna logikoki independenteak diren doktrinak izan arren, elkarren arteko loturak ezartzea ez da lan zaila. Arimaren hilezkortasunaren doktrina erlijiosoak lotura zuzena izan dezake dualismo metafisikoarekin; izan ere, arima hilezkorrari bidea zabaltzen dio gorputzetik erabat desberdina den arimak, gorputza hilkorra baita zalantza izpirik gabe. Hortaz, erlijio kristauarekin duen erlazio estuak azaldu lezake, neurri batean behintzat, dualismo metafisikoaren ospe eta zabalpen handia mendealdeko kulturetan eta psikologia arruntean.
 10. Materialismoa existitzen diren izaki guztiak izaki fisikoak direla dioen teoria da. Hala ere, teoria materialistak indartsuagoak edo ahulagoak izan daitezke. Materialismo ahularen ikuspegiaren arabera, objektu edo gertara fisikoek propietate ez-fisikoak (gogo-propietateak edo propietate abstraktuak) eduki ditzakete, propietate ez-fisiko hipotetiko horiek logikoki izaki fisikoen existentziaren menpekoak izan arren. Materialismo mota ospetsuena gogoaren filosofian, seguruenik, gogoaren eta garunaren arteko identitatea defendatzen duena da, gogo-egoera guztiak garun egoera/gertakizun batera murriztu daitezkeelako tesia sostengatzen duen ikuspegia, hain zuzen ere. Gogoaren ikuspegi materialisten ezaugarri eta arazo nagusien azterketarako, ikusi: Priest, 1991, 125-81. Dena den, idatzi honek ez du gogoaren ikuspegi materialista zehatz batekin konprometitu nahi; beraz, identitatearen teoriaren edo funtzionalismoaren ikuspegiaren merituen eta arazoen inguruan ez du deus esango, pentsatzen baitut momentuz, animalien kontsiderazio moralaren arazoari dagokionez, dualismoa kritikatzearekin nahikoa dela, ikuspegi materialista ezberdinek ez baituzkete edukiko dualismoaren ondorio praktikoko latzak animalientzako.
 11. Izaki batek kontsiderazio moral zuzena merezi du baldin eta bakarrik baldin izaki horrek bere baitan garrantzi morala baldin badauka; alderantziz, izaki batek kontsiderazio moral ez-zuzena merezi du beste izakiekiko dituen erlazioetatik soilik eratorritako garrantzi morala badu. Adibidez, txori batek bere baitan garrantzi morala duela diogunean, esan nahi dugu txoriaren interesak edo ongizateak berezko garrantzi moral berezia duela eta erabakiak hartzerakoan beti kontuan hartu behar dugula, txoriaren interes edo ongizate horrek gizakioi nola eragiten digun aparte utzita (hasiera batean behintzat). Kontsiderazio moral zuzena merezi badu, txoria ondo tratatu beharko genuke txoriaren ongizatearengatik berarengatik, ez ekintza horrek guretzat izango litzuzkeen ondorio positiboengatik.

12. Kontzeptuen arteko harreman ezberdinak ulertzen laguntzen diguten nahikotasun eta beharrezkotasun baldintzei dagokionez, hau esan daiteke:
- Nahikotasuna: X Y emateko baldintza nahikoa dela diogunean, Y emateko Xren presentziarekin aski dela esaten ari gara; Xren agerpenak Yren agerpena ziurtatzen du. Gertaera edo ezaugarri batzuek nahikotasun baldintza bat baino gehiago eduki ditzakete.
- Beharrezkotasuna: X Y emateko baldintza beharrezkoa dela diogunean, Y Xrik gabe gertatzea ezinezkoa dela esaten dugu; beste modu batera esanda, X gertatzen ez bada, Y ez da gertatuko. Askotan, gertaera edo ezaugarri batzuk gertatu ahal izateko, beharrezko baldintza bat baino gehiago izaten dira.
- Edozein X eta Y baldintzak kontuan izanda, haien arteko erlazioak lau motatakoak izan daitezke: (1) Y gerta dadin, X baldintza beharrezkoa baina ez nahikoa da; (2) Y gerta dadin, X baldintza nahikoa baina ez beharrezkoa da; (3) Y gerta dadin, X aldi berean baldintza beharrezkoa eta nahikoa da; eta (4) Y gerta dadin, X ez da ez beharrezkoa ez nahikoa.
13. Pentsatu daiteke kontzientziaren irizpidea murriztegia dela, izan ere, agente moral askok baloratzen dituzten gauza garrantzitsu anitz uzten baititu kanpoan (adibidez: ekosistemak, artelanak, e.a.). Artikuluan esango dudak guztiak ez du inolaz ere inplikatzeko gauza horiek inolako kontsiderazio moralik merezi ez dutenik; baina, segur aski, inplikatzeko gauza horiek kontsiderazio moral ez-zuzena soilik merezi dutela. Dena den, bezelako ikuspegiak defendatu daitezke. Artikuluan, kontzientzia edukitzea kontsiderazio moral zuzena merezi izateko irizpide beharrezkoa eta nahikoa dela onartuko dut; baina kontzientzia irizpide nahiko baina ez beharrezko gisa jotzen baldin badugu, orduan, ekosistemek edo artelanek ere kontsiderazio moral zuzena merezi dutela aldarrikatu genezake.
14. Aipatutako berdintasuna morala da, ez enpirikoa (Singer, 1990, 37-40). Argi eta garbi, gizakiok gaitasun fisiko zein intelektual desberdinak ditugu, eta, beraz, zentzu enpirikoan, gizaki guztiak berdina garelako esatea gezur hutsa da. Berdintasunaz hitz egiterakoan berdintasun moralaz ari naiz: gizaki guztiak, gaitasun fisiko eta intelektual ezberdinak izan arren, kontsiderazio moral berdina merezi dutela dioen printzipioaz, hain zuzen ere. Beste modu batean esanda, printzipioa deskriptiboa baino aginduzkoa da.
15. Espeziearen kontzeptu genetiko soilik erabiltzen badut ere, kontuan izan behar da biologia garaikidean espeziearen kontzeptu anitz ezberdinak (ekologikoak, filogenetikoak, ebolutiboak, e.a.) proposatu direla helburu diferenteak asetzeko. Horrek arazoak sortu ditzake; izan ere, zalan-tzan jarri daiteke espeziearena bezalako kontzeptu biologiko baten aplikazioaren egokitasuna deliberamendu moralarekin zuzenean lotutako auzietan, batez ere kontuan hartzen badugu ez dagoela filosofoen arteko akordiorik espezieen estatus ontologikoaren izaerari dagokionez. *Espezie* kontzeptu biologiko ezberdinen inguruan eta espeziearen kontzeptuak deliberamendu etikoan jokatu dezakeen paperaren inguruko ideiei buruz, ikusi: Marcos, 2010. (Idatzi benetan interesgarria izan arren, azpima-

- rratu nahiko nuke ez natorrela bat Marcosek defendatzen dituen tesi batzuekin).
16. Arrazak ere, adibidez, genetika kontu hutsa dira eta, arrazakeria gaitzes- ten dugunok behintzat, ez dugu pentsatzen ezberdintasun genetiko ho- rrek garrantzi morala duenik. Espezie partaidetzaren kasuan, egoera zer- gatik izango da bestelakoa?
 17. Animaliak espezie trinko ez-jarraituetan sailkatzeak ez dauka zentzu handiegirik ikuspegi biologiko eboluzionistatik; edo, hobe esanda, ikus- pegi biologikotik ikusita, espezieen sailkapenak artifizialak dira. Adibi- dez, gizakien eta txinpantzeen artean dagoen distantzia edo desberdinta- sun ebolutiboa handia dela iruditzen baldin bazaigu, erdibidean zeuden espezieak desagertu direlako besterik ez da. Akzidente historiko horrek zailagoa egiten du gainontzeko animaliekin ditugun loturak aitortzea. Tximinoekin ditugun antzekotasunak onartzen ditugu batzuetan, baina oso gutxitan onartzen dugu tximinoak besterik ez garena (ideia horien guztien eta *espezie* kontzeptu biologikoaren azterketarako, ikusi: Clark, 1993; Dawkins, 1993 eta Dunbar, 1993). Zer gertatuko litzateke *Homo erectus*en batekin edo *Homo habilis*en batekin gaur egun sorpresaz topo egingo bagenu? Gainontzeko animaliekin egiten dugun antzera, gure adi- nako kontsiderazio moralik mereziko ez luketela onartzeko prest egongo al ginatke? Gu/Besteak motako sailkapenen izaera (bai gizaki-animalia erlazioetan baita gizakien arteko erlazioetan ere) morala da zientifikoa baino, errealitate biologikoan ez baitute lekurik aurkitzen horrelako sail- kapenek.
 18. Batzuetan, gizakiok gure artean lotura edo erlazio emozional bereziak ditugu, gainontzeko animaliekin sortu ezin ditugunak. Gertakari hori moralki garrantzitsua litzateke animalien eta gizakien arteko ezberdinta- suna justifikatzeko. Gure espeziearen partaide diren izakiekiko betebe- har moral berezi handiagoak izango genituzke haiekin erlazio emozional bereziak ditugulako (edo edukitzeko aukera dugulako behintzat). Argu- dio horrek nolabaiteko egia seinalatzen duen arren, arazo handiak dauz- kala ere onartu beharra dago (arazoen aurkezpenarako, ikusi: DeGrazia, 1996, 61-5 eta Horta, 2009). Nire iritziz, zailtasunek merituek baino pisu gehiago daukate kasu honetan eta, beraz, kasu gehienetan harreman emozionalek garrantzi moral berezirik ez dutela ondorioztatzeko argudio onak ditugula pentsatzen dut. Hala ere, sakonki pentsatu beharreko gai benetan zaila da hori.
 19. Esan bezala, koherentzia razionaltasunaren betekizun nagusietakoa da (nagusia ez bada). Argudio/teoria bat koherentea edo sendoa da bere za- ti edo premisa guztiak ondorioa oinarritzen laguntzen dutenean; beste modura esanda, teoria edo argudio bat sendoa edo koherentea da, ez be- re baitan, ezta onartutako beste teoriekin edo argudioekin elkartzean ere, kontraesanik sortzen ez badu. Argudio/teoria batek barne koherentzia eduki dezake eta, aldi berean, zientzia enpirikoan datu espermentalekiko inkoherentea izan; beraz, barne koherentzia ez da nahikoa argudio/teoria

- baten sendotasuna ebaluatzeko, garaiko teoria zientifiko nagusiekin bateragarria izatea ere ezinbestekoa gertatzen baita.
20. Argudioak, noski, ez du funtzionatzen giza espeziearen partaide izatearen propietatea aintzat hartuz gero, definizioz propietate hori gizaki guztiek daukaten eta animalia bakar batek ez daukan propietatea baita. Dena den, zuzen banabil espezie partaidetzak garrantzi moralik ez duela argudiatzean, objektzio horrek ez dauka inolako indarrik.
21. Analogia bidezko argudioen eta horien egokitasun edo indar baldintzen ikerketari buruz, ikusi: Lau, 2011, 195-9 eta Rainbolt eta Dwyer, 2012, 228-56. Azpiatal honetako ideia gehienak bi iturri horietatik zuzenean atera ditut.
22. Ebaluazioan funtsatzen den lehengo premisa ez bezala, analogian oinarritzen den bigarren premisa enpiriko hutsa da. Analogia enpiriko hutsean (premisetan inolako ebaluaziorik egiten ez dituztenak) fundatzen diren argudioek hurrengo forma hartu ohi dute (Rainbolt and Dwyer, 2012, 230):
1. *Lehenengo premisa*: X objektuak E_1, E_2, \dots, E_n ezaugarriak dauzka.
 2. *Bigarren premisa*: Y objektuak ere E_1, E_2, \dots, E_n ezaugarriak dauzka.
 3. *Ondorioa*: Y objektuak, segur aski, E_n ezaugarria ere dauka.
23. Analogia bidezko argudio on bat osatzeko, gehienetan ezinbestekoa izan daiteke, alde batetik, analogia ezartzen duen premisaren aldeko argudio osagarriak eskaintzea eta, bestetik, ebaluazioa egiten duen premisaren onargarritasuna ebaluaziozko ondorioaren ukazioarena baino handiagoa izatea.

Bibliografia

- Ayala, Francisco (2006): «Biology to Ethics. An Evolutionist's View of Human Nature», 141-58 in Boniolo, Giovanni eta De Anna, Gabriele (arg.) (2006): *Evolutionary Ethics and Contemporary Biology*. New York: Cambridge University Press.
- Clark, Stephen R. L. (1993): «Los grandes simios y la idea del parentesco», 146-62 in Cavalieri, Paola eta Singer, Peter (arg.) (1993): *El proyecto «Gran Simio»*. La igualdad más allá de la humanidad (1998). Madril: Trotta.
- Damasio, Antonio (1994): *El error de Descartes. La emoción, la razón y el cerebro humano* (2006). Bartzelona: Crítica.
- Dawkins, Richard (1993): «Lagunas en la mente», 105-14 in Cavalieri, Paola eta Singer, Peter (arg.) (1993): *El proyecto «Gran Simio»*. La igualdad más allá de la humanidad (1998). Madril: Trotta.
- DeGrazia, David (1996): *Taking Animals Seriously. Mental Life and Moral Status*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Descartes, René (1637): *Metodoari buruzko diskurtsoa* (1997). Bilbo: Klasi-koak.
- De Waal, Frans (2006): «Seres moralmente evolucionados», 23-111 in De Waal, Frans (2006): *Primates y filósofos. La evolución de la moral del simio al hombre* (2007). Bartzelona: Paidós.
- Dunbar, Robin I. M. (1993): «¿Qué hay en una clasificación?», 141-5 in Cavalieri, Paola eta Singer, Peter (arg.) (1993): *El proyecto «Gran Simio»*. La igualdad más allá de la humanidad (1998). Madril: Trotta.
- Herrera Guevara, Asunción (2008): «Más allá de las razones éticas», 17-30 in González, Marta I.; Riechmann, Jorge; Rodríguez Carreño, Jimena eta Tafalla, Marta (koord.) (2008): *Razonar y actuar en defensa de los animales*. Madril: Los Libros de la Catarata.
- Horta, Oscar (2009): «El antropocentrismo y el argumento de los vínculos emocionales», 1-13, *Dilemata. Revista Internacional de Éticas Aplicadas* 1.
- Kant, Immanuel (1785): *Fundamentación de la metafísica de las costumbres* (2000). Mexiko D.F.: Porrúa.
- Korsgaard, Christine M. (2006): «La moralidad y la singularidad de la acción humana», 131-53 in De Waal, Frans (2006): *Primates y filósofos. La evolución de la moral del simio al hombre* (2007). Bartzelona: Paidós.
- Lau, Joe Y. F. (2011): *An Introduction to Critical Thinking and Creativity. Think More, Think Better*. Hoboken: Wiley.
- Marcos, Alfredo (2010): «Hacia una filosofía práctica de la ciencia: especie biológica y deliberación ética», 108-23, *Revista Latinoamericana de Bioética* 10/2.
- Nussbaum, Martha C. (1986): *La fragilidad del bien. Fortuna y ética en la tragedia y la filosofía griega* (2004). Boadilla del Monte: Antonio Machado Libros.
- (1992): «Capacidades humanas y justicia social. En defensa del esencialismo aristotélico», 43-104 in Riechmann, Jorge (koord.) (1998): *Necesidad*

- tar, desear, vivir. Sobre necesidades, desarrollo humano, crecimiento económico y sustentabilidad*. Madril: Los Libros de la Catarata.
- (1993a): «Social Justice and Universalism: In Defense of an Aristotelian Account of Human Functioning», S46-S73, *Modern Philology* 90, Gehigarria.
- (1993b): «Virtudes no relativas: un enfoque aristotélico», 318-51 in Nussbaum, Martha C. eta Sen, Amartya (bil.) (1993): *La calidad de vida* (1996). Mexiko D.F.: Fondo de Cultura Económica.
- Priest, Stephen (1991): *Teorías y filosofías de la mente* (1994). Madril: Cátedra.
- Prinz, Jesse J. (2010): «The Moral Emotions», 519-38 in Goldie, Peter (arg.) (2010): *The Oxford Handbook of Philosophy of Emotion*. Oxford: Oxford University Press.
- Putnam, Hilary (1993): «La objetividad y la distinción ciencia - ética», 193-210 in Nussbaum, Martha C. eta Sen, Amartya (bil.) (1993): *La calidad de vida* (1996). Mexiko D.F.: Fondo de Cultura Económica.
- (2002): *The Collapse of the Fact/Value Dichotomy and Other Essays*. Cambridge: Harvard University Press.
- Rainbolt, George W. eta Dwyer, Sandra L. (2012): *Critical Thinking. The Art of Argument*. Boston: Wadsworth.
- Rawls, John (1971): *Justiziaren teoria bat* (2008). Bilbo: Klasikoak.
- (1993): *El liberalismo político* (2006). Bartzelona: Crítica.
- Riechmann, Jorge (2003): *Todos los animales somos hermanos. Ensayos sobre el lugar de los animales en las sociedades industrializadas*. Granada: Editorial Universidad de Granada.
- Rowlands, Mark (2002): *Animals Like Us*. Londres: Verso.
- (2003): *The Philosopher at the End of the Universe*. Londres: Ebury Press.
- (2012): «¿Pueden los animales ser morales?», 1-32, *Dilemata. Revista Internacional de Éticas Aplicadas* 9.
- Sartre, Jean-Paul (1946): «El existencialismo es un humanismo», 134-62 in Gómez, Carlos (arg.) (2002): *Doce textos fundamentales de la ética del siglo XX*. Madril: Alianza.
- Singer, Peter (1990): *Liberación animal* (1999). Madril: Trotta.
- Torres Aldave, Mikel (2012): «¿Es 'sujeto moral' un concepto inútil (y peligroso)? Comentario a '¿Pueden los animales ser morales?'», 105-21, *Dilemata. Revista Internacional de Éticas Aplicadas* 9.
- Warburton, Nigel (2001): *La caverna de Platón y otras delicias de la filosofía* (2008). Bartzelona: Crítica.
- (2004): *Oinarrizko filosofia* (2011). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.



ARTEA 87

Eileen Gray: Paris 1907-2013
Denise Scott Brown: Philadelphia 1960-2013
Guerrilla Girls: New York 1985 - Bilbo 2013

HAIZEA BARCENILLA

TEKNOZIENTZIA 93

Zelulosa-zuntzak ez dira garai batekoak
Ez gaitzala Fukushima itsu
Hirietako animalia basatiak

INAKI IRAZABALBEITIA

LITERATURA 98

Greyren itzalak I • Greyren itzalak II
Greyren itzalak III

GOIZALDE LANDABASO

SOZIOLINGUISTIKA 104

Razionalizatu edo ez razionalizatu, *that is the question...* edo ez?

Newspeak - hizketaberria

Gaitasun plangintza, frustrazioak eta gehiegi
maitatutako haurrak

Hizkuntza plangintza pentsatu

LIONEL JOLY

GLOKALIA 112

Lurrikara Arrasaten
Lurrikarak eta haustura energetikoak
Haustura artistikoak

JOSU LARRINAGA

Eileen Gray: Paris 1907-2013

Formulek ez dute ezer balio, bizitzak guztia. Eta bizitza bu-
rua eta bihotza da aldi berean.

Aurtengo udaberrian Parisko Pompidou zentroak Eileen Gray diseinatzaile eta arkitektoari erakusketa bat dedikatu zion. Mostra garrantzitsua izan zen, azken urteetan zirkulu akademikoetan Grayk arreta handia jaso badu ere, publiko zabalaren aurrean oraindik ezezaguna baitzen. Lehen aldiz elkartu ziren bere art déco estiloko altzariak, bere Jean Désert dendan saldu zituen alfonbra eta eserleku guztiz modernoak, bere etxeen maketa eta argazkiak, bere barneko espazioentzako diseinuak. Erakusketa guztiz ederra zen, zozagarriak piezak, xarmanta diseinua.

Eileen Grayren istorioa bere garaiko beste emakume gutxi batzuen izan zitekeen. Diruduna zen, eta horrek bizitzan aukeratzeko pribilegioa ekarri zion: artea ikastea, bidaiatzea, 1907an Parisera bizitzera joatea, Paris beste Paris bat zenean, eta bertan geratzea 1976an hil zen arte, inoiz ezkondu gabe eta beti bere kabuz biziz. Eileen Gray lotsatia eta berekoa zen, eta bere bizitza pribatuari buruz datu gutxi utzi zituen. 1930 arte ezagun xamarra izan eta gero, hortik aurrera ahaztua izan zen, eta 1960an bere lanak berreskuratu baino lehen, bere eskutitz pribatu guztiak erre zituen. Hala ere, badakigu bi sexuetako maitaleak izan zituela: Damia music-halleko abeslaria, Jessica Gavin bere unibertsitateko kidea eta Jean Badovici arkitektoa. Lagunak eta kolaboratzaileak ere izan zituen: Evelyn Wyldekin egin zituen bere oihalen diseinuak, Gabrielle Blochek kudeatzen zion Jean Déserteko kontabilitatea. Natalie Barneyren sailietara zihoan, Noaillesko kondesak altzariak erosten ziz-

kion, hala nola Romaine Brooks artistak. Emakume horiek guztiak Parisko zirkulu lesbikoetan mugitzen ziren, historia-
ren orrialdeetan beste batzuek baino askoz ere tinta arrasto
gutxiago utzi dituzten giro moderno eta aurrerakoietan.

2006an Jasmine Rault ikerlariak bere doktoretza tesia aur-
keztu zuen: *Eileen Gray: genero eta sexualitatearen inguruko
ikuspegi berriak*. Liburu horretan, Raulten tesi nagusiak
zioen Gray bere inguruko emakume artista eta idazleekin
alderatu behar zela, eta ez, orain arte egin zen bezala, bera-
rekin kontzeptualki zein pertsonalki harreman gutxiago
izan zuten gizonezko maisu sagaratuekin. Izan ere, Grayren
gaineko liburuetan, Badovicirekin izan zuen zortzi urteko
erlazio ez jarraitua funtsezkotzat jotzen da, eta Bloch edo
Wyldekin izan zituen hogeitaz urteko kolaborazioak isiltzen
dira. Le Corbusierrek ere kapitulu berezia izan ohi du,
Grayren lanarekiko izan zuen obsesioa dela eta. Konexio
berriei esker, Raulten ikerketak frogatzen du Grayk lantzen
zituen arkitektura eta diseinuek lesbianen giroetan garatzen
ari zen estetikarekin harremana zutela, eta bere sexualitatea
eta horrekin lotutako bizi-esperientziak nahitaezkoak izan
zitzaizkiola burutu zuen lana burutzeko.

Baina badirudi Pompidouko komisarioak ez direla iritzi
berekook. Erakusketan Grayren bizitza pribatuari buruzko
aipamenak saihesten dira, eta Badovicirekin izan zuen ha-
rremana aditzera ematen dute soilik. Evelyn Wyld da ema-
kumezko kolaboratzaileen artean leku xume bat duen baka-
rra: oihalen tailerreko buru bezala agertzen da. Ez da aipa-
tzen garaiko Le Corbusierren modernismoak bultzatzen
zuen garbitasun eta gardentasunaren aurka Grayk aldarriz-
katzen zuen sentsualitate eta intimitatea (hots, beste emaku-
me lesbianen lanetan ere argia den ezaugarria).

Beraz, Gray gizonen arteko jenio bakartizat agertzen zai-
gu, mugimendu modernoaren barneko salbuespen bezala.
Bere esperientzietatik abiatuz proposatzen dituen berrazter-
keta kritikoak, gizarteko «beste» talde batzuen nahiak kon-
tuan hartzen dituztenak, zentzurik gabeko ekarpen gainaza-

lezko bihurtzen ditu irakurketa horrek. Sartu dute Eileen Gray Artearen Historia ofizialean, baina horren balizko objektibotasunaz kolore anitz zituen artista eta pertsona zirituz.

Denise Scott Brown: Philadelphia 1960-2013

Kolaborazioak arkitekturan duen zentraltasuna maiz baztertzen da «starchitectak» goraipatu eta marka bihurtzen dituen gizarte honetan.

1991n Robert Venturi arkitektoak Pritzker saria eman berri ziotela zioen dei bat jaso zuen. Arkitekturako Nobel saria kontsideratua dago Pritzkerrena, eta ohore aparta zen, diru mordoaz gain, 100.000 dolar. Hala ere, Venturik lehenik eta behin galdera bat egin zuen: *and what about Denise?* Zer gertatzen da Deniserekin?

Denise Scott Brown eta Robert Venturi arkitektoek 1960an ezagutu zuten elkar, Philadelphiako Unibertsitatean lanean ari zirela. Laster hasi ziren kolaboratzen; 1967an ezkondu ziren, Scott Brown Venturiren estudioan sartu zen eta 1969an sozio izendatu zuten. 1966an bere izenarekin soilik atera zuen *Complexity and Contradictions in Architecture* liburua izan ezik, Venturik egindako lan guztiak Scott Brownekin sinatu ditu. Horien artean, *Learning from Las Vegas* funtsezko liburua eta estudioak egindako eraikuntza guztiak.

Hala eta guztiz ere, 1991ko Pritzker sari hura ez zitzaien biei eman: Denise Scott Brown 25 urteetan egindako lanetik ezabatua izan zen. Argudioa saria pertsona bakar bati ematen zitzaiola izan zen, nahiz eta 1988an Gordon Bunshaft eta Oscar Niemeyeri sari bana eman zitzaien. Une horretan arazo ekonomikoak zituztenez, Venturik saria hartzea erabaki zuen bikoteak, baina Scott Brown ez zen emanaldira joan. Berak dioenez, arkitekturaren munduaren matxismoa ezaguna zuen arren, kolpe latza izan zen hura.

Egun, Scott Brownek 81 urte ditu, mundu osoan ezaguna da, unibertsitaterik hoberenetan klaseak eman ditu eta ez

du gaia pasatzen utzi nahi: bere izena 1991ko sarian sartu beharko zutela aipatu du elkarrizketa batean. Kanporatzeko arrazioa emakume izatean zetzala, eta bazela garaia Pritzker Fundazioak atzera egin eta burututako akatsa konpontzeko. Harvardeko arkitektura saileko bi ikaslek eskari ofiziala egin zuten, eta munduko arkitektoen garrantzitsuenek sinatzea lortu zuten oso azkar. Orain arte, 22 urtetan, ezer esan ez zuten arren.

Hala ere, Pritzker Fundazioak ez du atzera egiteko asmorik. Ez hori bakarrik: 2012an sistema bera jarraitu zuen, Wang Shuri saria emanaz, bere emazte eta kolaboratzailea den Lu Wenyu kanpoan utziz. Bi pertsonen kontu hura ez zen arazo bat izan Herzog eta de Meuronen saria emateko, edo Kazuyo Sejimak (saria jaso duen bigarren eta azken emakumea, Zaha Hadid eta gero) bere kidea zen Ryue Nishizawa ere kontuan hartzea eskatu zuenean. Baina Fundazioetik garaiko epaimahaiaren erabakia ezin dutela aldatu diote, eta, oraingoz, Scott Brownek bere lanarekin Venturiri oparitu zion sari erdi hori gabe geratu beharko du.

Bitartean, noski, inork ez dio horregatik saria jasotzeari uko egin. Eta kalean jende gehienak ez dio bere buruari galdetzen zergatik ez duen emakumezko arkitektoen izenik ezagutzen, eta zergatik arkitektura ikasleen erdia emakumezkoak izanik, estudioetako nagusien gehiengoak gizonezkoena den. Artiumeko liburutegian Pritzker sarien inguruko liburuen erakusketa bat antolatu dute; han dago VSBA (Venturi, Scott Brown and Associates) estudioari egindako elkarrizketa liburu batean. Bertan plurala erabiltzen da kasu guztietan, kolaborazioa eta taldeko lana goraiatzeko, eta Venturi eta Scott Brown argazki guztietan elkarrekin agertzen dira. Baina saria jaso dutenen artean Venturi dago bakarrik, eta mahai gainean, *Complexity and Contradictions in Architecture* liburua. Inon ez da egun arkitekturaren munduan lotsa sortzen duen gai honi buruzko informaziorik ageri, eta ikusleak, erakusketatik ateratzerakoan, jenio bikain eta eztabaidaekin topo egin duela pentsatzen du.

Berriz ere, arte eta arkitekturaren historia sozial, sexual eta baldintzatua jenioaren kondaira garbi, objektibo eta natural bezala azaldu zaigulako.

Guerrilla Girls: New York 1985 - Bilbo 2013

Feminismoak bere helburuak lortu arte ez da postfeminismorik izango.

Anonimotasunarekin jolasten dute Guerrilla Girlsek. Aurpegia gorila maskara batekin ezkututzen dute, eta euren izenak emakume artista historikoenengatik ordezkutzen dituzte. Guerrilla Girls bat arte munduko edozein emakumezko artista izan zitekeen, denek pairatu behar dituztelako emakume izateagatik diskriminazio eta mespretxuak. Guerrilla Girlsek ez dute emakume bakar baten jenialtasuna aldarrikatzen, emakumearen artista lana baldintzatzen duten ezaugarri sozialen onarpena baizik. Guerrilla Girlsentzako ez dago jenio abstrakturik: arrakastaren atzean aukera eta ikusgarritasuna daude, eta horien atzean, gizartearen antolaketa-aren ezaugarri konplexuak. Esaterako, generoa eta arraza.

Ia 30 urte daramatzate kolektibo honetako partaide anonimoak arte munduak sustatzen dituen trataera bidegabeak salatzen. Batez ere publizitatearen eta propagandaren formatuak erabiltzen dituzte horretarako: kartelak, testu zuzen eta garbiak, liburuxkak, akzioak. Mezua da garrantzitsuen, emakumeek museoetan duten errepresentazio urriaren denuntzia, arteak mendeetan egin duen emakumearen gorputzaren objektualizazioa eta erabilera azpimarratzea, emakume artistek lanaren eta familiaren artean aukeratzeko sentitzen duten presioa ikusaraztea.

Bilboko Alhondigan atzera begirako bat eskaini zaio kolektiboari, eta euren kartelak ikusgai egongo dira udazkenean zehar. Hamaika dira egunero bertaratzen direnak, eta hamaika izan ziren inaugurazioan gorila maskara zeramaten emakumeak ikustera hurbildu zirenak. Feminismoaren festa omen. Baina Alhondigako erakusketan MET museoak bul-

tzatzen duen diskriminazioari buruz hitz egiten zaigun arren, leku urrun bateko arazoei buruz ari zaizkigula dirudi. Ez dago eraikinetik bostehun metrora dauden instituzioei aipamenik; ez da esaten Arte Ederretako museoak 2001 eta 2011 artean egindako arte garaikideko erosketetan emakumeenak ez zirela ehuneko hamarrera iristen; Guggenheimeko bilduman, bilduma garaikide eta berria, emakumeek %16 besterik ez dutela errepresentatzen. Bi museo horietan ez zaiola sekula emakume artista bati bakarkako erakusketa bat eskaintzen. Ez da esaten orain urte bat inguru plataforma bat sortu zela Euskal Herrian, A Plataforma, emakume artistek sufritzen duten bigarren mailako tratamendua kritikatzeko. Azken finean, erraza da Alhondigako kartelen aurrean «zelako injustiziak» esan eta jarraian Guggenheimerera edo Arte Ederretako museora kontzientzia garbiarekin joatea. Bi mundu paralelo izango balira bezala: artea adierazteko feminismoa aukeratu duten amerikar anekdotiko eta dibertigarri horiek, eta bilduma handietan dauden jenio sortzaileak.

Artistak bizi eta hil egiten dira, baina historiak gaur idazten ditugu. Antolatzen eta ikusten dugun erakusketa bakoitzarekin, idatzi eta irakurtzen dugun liburu bakoitzarekin, gogoratzen edo ahazten dugun artelan bakoitzarekin, eta artelan horrekin lotzen dugun izen eta istorioaren bitartez. Zenbateraino dira gaur idazten ari garen historia horiek orain dela 50 urte idatzi zirenak baino bidezkoagoak?¶

Zelulosa-zuntzak ez dira garai batekoak

Sarritan esan zaigu papera desagertu egingo dela eta etorkizuna tresna digitalak izango direla. Egia esan, egunkaria esku artean sentitzea edo liburu baten orrialdeak pasatzea laket dugunok deseroso sentitzen gara horrelakoak entzuten ditugunean. Irudi dakiguke atzeratutako teknofoboak garela eta australopitekoaren patu bera daukagula paperean leitzea erosoago gertatzen zaigulako.

Zenbat bider gertatu zaizu testua ordenadorearen pantailan irakurtzen hasi, baina inprimatu eta gero paperean leitzen bukatzea? Ez behin, ezta birritan ere. Makina bat bider, ordea. Antza, horrek badu azalpen fisiologiko-psikologikoa, eta normalizat jo daiteke.

Atzen urteotan gailu digitalek asko eboluzionatu dute. Berrietan leitzeko erosotasuna asko emendatu da, e-liburuetan bereziki. Alabaina, ikerketak demostratzen ari direnez, paperean leitzeak abantailak ditu oraindik. Ikerketa objektiboek eta inkesta subjektiboek adierazten dute irakurritako testu luzeak hobe entenditzen direla paperean irakurtzen badira, pantaila batean egiten badira baino. Bestalde, pantailan irakurtzeak ahalegin mental handiagoa eskatzen du leitzen dihardugun bitartean, eta apur bat nekezagoa egiten du irakurtzen ari garena gogoratzea. Halaber, jendea pantaila baten aurrean ikasteko jartzen denean, bedi e-liburu bat edo tablet bat, jarrera erlaxatuagoa omen du paperaren aurrean jartzen denean baino. Apika, jarrera ludikoago batekin hurbiltzen zaizkie.

Sobra ere leitzeak badu fisikotik zerbait. Irakurtzea giza-kiontzat nahikoa berria da ikuspegi ebolutibo batetik. Jaiotzen garenean ez dugu leitzera bideratutako garun-zirkuitu-

rik. Hortaz, ume garenean irakurtzera bideratutako zirkuituak garatzen ditugu beste zeregin batera bideratutako zirkuituen zatiak elkarri josita.

Elkarri josten diogun zirkuituetako bat objektuak ezagutzeko eta bereizteko egokitutakoa da. Ondorioz, leitzen eta eskribitzen ikasten dugunean, letrak objektu fisiko moduan ezagutzen ditugu; lerroen, kurben eta hutsuneen antolaketa moduan, alegia. Horretaz gainera, gure garunak testuak paisaia baten moduan identifikatzen ditu. Irakurtzen dihardugunean, testuaren irudikapen mentala egiten dugu. Zenbait ikerlariren arabera, irudikapen hori paisaiarekin egiten dugunaren antzekoa ei da; hots, mendiz, muinoz, basoz eta abarrez osatutako topografiaren antzeko bat sortzen dugu garunean. Alkizatik Erniorantz doan bideak Leteko bordan 180 graduko kurba bat egiten duela gogoratzen dugun bezalaxe akordatzen gara Jakinek argitaratutako Axularren *Gero* obraren edizioak erdian justifikatuta dituela izenburua eta ondorengo esaldi ezaguna: «*bi partetan partitua eta berezia*».

Paperak pantaila digitalek baino topografia aberatsagoa duela agerikoa da. Paperezko liburuak oso garbi definitutako bi zati ditu, ezkerreko eta eskuineko orrialdeak, eta gainera zortzi ertz ditu irakurlea orientatzeko. Halaber, orriak pasatutakoan esperientzia fisiko bat gertatzen da. Irakurritako orriak eta irakurtzeke dituzunak suma ditzakezu eskuetan eta pisu desberdina izango dute. Hortaz, buruan marraztutako mapa moduko batean ibiltzea izan daiteke. Jeneralean gailu elektronikoen bestelako esperientzia bat damaitte, buruan irakurritakoaren mapa bat osatzen zailtzen dutena. Barra gora eta behera korrituz higitzen zara testuan zehar; esaldi edo hitz zehatza bilaketa baten bidez aurki dezakezu. Nekeza gertatzen zaizu, ordea, testu-zati jakin bat testuaren osotasunean kokatzea. Beste hitz batzuetan, oihan tropikal trinko batean diharduzu matxetez bidea irekitzen; inguratzen zaituenaren berri baduzu, baina ezin duzu zure buruan oihanaren zabalean kokatu, eta, batzuetan, *Star Trek*

telesaioko telegarraioaren moduko baten bidez beste toki batera egiten duzu jauzi ez dakizula Amazoniako ala Borneoko oihanean zauden.

Traste digitalek asko eboluzionatu dute eta paperezko liburuen esperientzia berritu nahi izaten dute. E-liburuek eta tabletek orri-pasatzearen ekintza imitatzen dute, baina begi aurrean duzun orrialdea bakarrik existitzen da fisikoki. Uneko orrialdea hatzaren bidez gorde eta bospasei orrialde lehenagoko pasarte bat errepasatzea edo biak begi-kolpe batez aldaratzea nekeza bihurtzen zaizu, ezinezkoa ez denean.

Etorkizuna partekatua izango da hain segur. Paperak eta pantailek tokia izango dute gure irakurketa-esperientzian. Bakoitzak berea eta logika bati jarraituta osagarriak izango dira. Batetik edo bestetik tiratuko dugu helburuaren edo egoeraren arabera. Era berean, pantailako irakurtzeko materialek ere eboluzionatu beharko dute. Ez dute, apika, papereko irakurketaren esperientzia errepikatzean tematu behar, eta beste molde batzuk esploratuko dituzte edo esploratzen ari dira jada.

Bien bitartean, *Jakinen* alea esku artean duzun irakurle hori, segi paperaren ukitua sentitzen, tintaren usaina aditzen, alearen mardula haztatzen eta orri-ertzak tolesteko ohitura horrekin... Paperak bizirik dirau eta bizi bedi!

Ez gaitzala Fukushima itsu

Fukushimako istripu nuklearraren ondorioen artean, energia-iturri horren Nemesia ikusi nahi izan dute batzuek optimismoz beterik. Egia da Fukushimaren ondoren erabaki indartsuak hartu dituztela batzuek fisiozko energia nuklearra abandonatzeko, Alemaniako gobernuak, adibidez. Alabaina, beste batzuk bidea egiten ari dira energia nuklearraren negoziotan. Errusia da adibiderik behinena.

Rosatom Errusiako energia nuklearrerako enpresa estatalak negozio-aukeren sorta zabala ikusten du etorkizunean. Errusia une honetan zentral nuklearraren merkatuan gogor

ari da. Turkian, Finlandian edo Vietnamen ari da zentralak eraikitzen. Nigeria moduko beste herri batzuk ere ate joka ditu. Jokalari berriak izango ditu energia nuklearraren klubak. Eskaintza egokiak egiten ditu Rosatomek: «zentrala eraikitze-ko teknologiaz gain, erregaiez hornituko zaitut, eta, gainera, gastatutako erregaia bilduko dizut». Bezeroari hondakin nuklearren kudeaketaren arazoa konpontzen zaie. Leasing moduko formulak ere eskaintzen dituzte.

Ikuspegi teknologikotik ere eskaintza ugaria dute helburu. Errusia ahalegin handia egiten ari da errektore birsortzailleen alorrean. Horietan, uranioa fisionatzen denean sortutako neutroiek maila baxuko uranioarekin (fisionatzeko balio ez duena) talka egiten dute eta uranioa plutonio bihurtzen dute. Gero plutonioa erre egin daiteke energia gehiago ekoizteko. Guztira 10etik 100era bitartean energia gehiago produzitzen da. Plutonioa, ordea, arma nuklearrak egiteko ere usa daiteke. Kezkatzekoa, jakina.

Beste aukera teknologiko bat ere eskaintzen dute errusiarrek: errektore nuklear txikiak. Urpekoentzat eta ontzientzat garatutako motor nuklearrak daude teknologiaren oinarrian. Merkeagoak dira ohizkoak baino, aurrefabrika daitezke eta urruneko tokietara eraman daitezke. Adibidez, barkuetan eraiki daitezke, eta errektore nuklear ibiltari horiek Artikoko urruneko tokietaraino eraman daitezke, non energia behar den mineral bat ustiatu ahal izateko.

Laburtuz, energia nuklearraren mundua ez dago geldirik, gure txoko honetatik begiratuta horrela irudi baleza ere. Arrisku eta kezka handiak sortzen ditu horrek guztiak. Energia nuklearra arriskuz betea da izatez, eta eskaintza ugaritzeak arriskuak biziki emendatzen ditu. Errusiarren merkaturako sarrera oldarkor horrek eraman dezake zentral nuklearrak oinarri zientifiko eta teknologiko txikia duten estatuetan eraikitzen. Zer esan zentral txikiak ugaritzeak ekar dezakeenaz! Nonahi jarri eta noranahi eraman daitezkeen zentral horiek arrisku-guneen mapa sakabanatzea ekarriko dute eta istripuak gertatzearen aukera haziko.

Fukushima energia nuklear komertzialarentzat kolpe la-tza izan zen; ez, ordea, azken aitzokada.

Hirietako animalia basatiak

Gure hirietan ez gaitu harritzen arratoiak, saguak edo usoak ikusteak. Gure artean bizi izan dira mendeetan. Gure hondakinen peskizan kaioak hiritartu zaizkigu atzen hamarkadetan. Europako hirietan bidaiatu duenak ezagutzen ditu parkeetako katagorri otzanak eskura jatera etortzen zaizkizunak. Belatzak ere kolonizatzen ari dira gure hiriak usoen moduko harrapakin errazen bila. Harrigarriagoa gerta dakiguke animalia karniboro koskorrek ere bide hori hasi dutela jakitea.

Londresko ezagun batzuen lorategira azeriak etortzen ziren lagun horiek utzitako jana jatera. Kasua nahikoa ohikoa da metropoli horretan, bestalde. Azeriak Londresen bizitzera egin dira. Gauza bera jazotzen ari da koioteekin AEBetako hirietan, baita Chicagon ere. Hiri horretan egin diren azterketek erakutsi dute koioteek oso hiritartuta dauden tokietan ere biziraun dezaketela. Beren kumeek landa-eremueta-koek baino biziraupen-tasa handiagoa dute. Are gehiago, semaforoaren argien esanahia ikas dezakete trafikoaren arriskuak ekiditeko.

Hortaz, aurrerantzean hiri-ekologiaz eta -ekosistemez hitz egin beharrean izango gara, agian.¶

Greyren itzalak I

Nik ez nuen *50 shades of Grey / 50 sombras de Grey / 50 nuances de Grey* (Greyren 50 itzal) liburua irakurtzeko asmorik. Pare bat arrazoi eman niezazkizuke, seguruen zuk zeuk dituzun berberak. Hedabideetan izugarritzko oihartzuna izan duen arren, eta normalean irakurtzeko zaletasuna ez duten irakurle askok irakurri badute ere, ez nuen irakurtzeko asmorik. Gauza bi jazo ziren, baina. Batetik bazkari bat. Dozena bat lagun. Aspaldian elkar ikusi gabekoak. Mahai-inguruko solasean liburuaren monopolioa irudikaezina izan zen. Hamahirutik bik irakurri gabe genuen. Erabat lekuz kanpo egon ginen bazkari hartan, hasieran txundituta eta gero besteek esaten zutenei adi. Gehienek normalean ez zuten irakurtzen, baina honek harrapatu egin zituen. Ahoz ahokoaren bidez heldu ziren liburu honetara. Ezagun/lankide/lagunek gomendatutako irakurketa izan omen zen. Bi ginen irakurri bakoak. Biok etxera bidean gindoazela lagunak galdetu zidan ea liburua irakurtzeko asmorik ote nuen. Ezetz erantzun nion. «Ez?, ba nik bai». Hamahirutik bakarrak kale. Neuk. Nolabaiteko harrotasunez esaten nuen ezezkoa, existitzen ez den zerbaiten hezurdura babesten ariko baintz legez.

Trilogia da Christian Grey eta Anastasia Steel-en maitasun istorioa kontatzen duena. Gehienek hiru liburutzarrak irakurriak zituzten (esaten dutenez hirugarrena soberan dago). Liburu bikaintzat hartzen zuen mahaiko askok. Ni harrituta nengoen, liburu honen gainean irakurritakoa ez zelako ona. Tira, liburu honen gainean irakurritako apurra txarra zen. Defendatzaile sutsuak ziren mahaikideak eta irakurketa ezinbestekotzat jo zuten, «eskoletan irakurri behar-

ko litzatekeena». Horrek ez zidan ezer piztu, ez bada kuriositate amiñi bat; txikiegia, laster ahaztu bainuen dena.

Bigarren jazoerak lagun min batekin du zerikusia. Ez dakit zelan hasi ginen liburu honetaz hizketan, zerk eman zingun oina. Liburua irakurri barik zuela aitortu zidan, baina denbora faltagatik (argitu behar dizuet nire laguna dena irakurtzearen aldeko dela, dena ikustearen aldeko). Irakurri behar genuela esan zidan, «zer ote den jakiteko, ez dizu kuriositaterik ere pizten?». Solasaldia luzea izan zen, eta tartean batez ere ezezkoan tematu nintzenez; garbizale, elitista eta baztertzaille deitu zidan. Min eman zidan horrek. Azkenean onartu nion arrazoi zuela, sarri zer ote den jakin barik berba egiten dugula. Agindu egin nion lehenengoa irakurriko nuela. Agindua bete dut. Irakurri dut. Lehenengoa, besteak iragar ditzaket lehenengoa irakurrita.

75 milioi kopia saldu du Grey-Steel istorioak. Sadomasokismoa pil-pilean dago irakurri dutenen artean. Ehunka urte dituen sadomasokismoa gauzarik eta *coolena* bilakatu da. Heriotzaren bat ere izan da liburuan azaltzen diren jarduera sexualak praktikan jarri nahi izan eta asmatu ez dutenen artean. 145 milioi dolarreko irabazitik gora jaso du argitaletxeak. Idazlea aberats bilakatu da. Argitaletxea ere bai. Filma egingo dute antzezle eder birekin, jakina (*Pretty Woman* filmeko eskubideak erosiak dituztenek seguruen horiek ere erosiko dituzte, esperientziak argi esaten baitie zerk ematen duen audientzia). Munduan barrena hizkuntza mordo batera itzulia izan da liburua. Lasai, irakurle aztoratu hori, Axularri ez diozu kandelarik piztu behar izango, euskarak ez du bere pozoirik probatu behar izan. Salbu dugu. Kutsadura milaka euskal herritarrengana ailegatu da, baina ez euskarara. Nik espainieraz irakurri behar izan dut. Beste askok frantsez egin dute, seguruen. Kritikarik ere ez da gurean egin (edo ez dut aurkitu), beraz; hedabideetan irakurritakoak eta neure moduko beste baztertzailleek esandako txakurkeriak izan ditut aurrekari liburua irakurtzen hasteko unean. Agian horregatik lauzpabost lerro idazten ari natzaizu hementxe.

Greyren itzalak II

Liburu dendatan txoko ikusgarrian dago. Jakina, hainbeste saltzen badu, non bestela? Nik erositako liburua paper birziklatuarekin egina dago. Ekosistema zaindu behar delako, noski. 500 orrialdetik gora du lehenengo liburuak. Ai ene. Hirukoan eros dezakezu edo banaka. Nik lagunari lehenengoa irakurriko nuela agindu nion eta beraz bakana hartu nuen. Lehenengo ustekabea: bakarra erosiz gero 17,50 euro. Hirurak 34,50 euro. Bai, hau beste eztabaida bat da, baina 200 orrialdeko euskarazko eleberri bat 18 euro ordaindu berri dut. Bai, bai, badakit, ez iezadazu esan ondo dakidana.

Tira, murgil gaitezen irakurketan. Amai dezagun lehenbiziko «mitoarekin» edo liburu honek ei duen erakarpen garrantzitsu batekin: pornografiarik ez dago. Agian erotismoa, baina hortik gora, ez. Alua, zakilaren tentetasuna, klitoria eta horrelako berbak aurkituko dituzu. Hori eskandalua bada... Bazkalkideek esaten zuten «izugarri igartzen da sexu zatiak emakume batek idatzitakoak direla». Tira, ba emakumeak apur bat ezagutzen dituen gizon batek ederto batean idatz zitzakeen zati horiek.

Zirkulu handia eginez mugitzen du atzamarra; ni neu hedatuz, bultzatzen, eta bere mihiak atzamarraren erritmoa jarraitzen du neure klitori inguruan. Urru egiten dut. Gehiegi da. Gorputzak atsedean eman diezaion eskatzen dit eta ezin diot ezezkoari utsi. Banoa. Orgasmoak hartu nau, pentsamendu koherente oro galdu dut, eta barrutik iraulkatzen ari naiz, behin eta berriz.

Zer? Emakume izan behar da hori idazteko? Mesedez. Agian gure amari aztogarriak egingo zaizkio horiek denak, baina, zinez esaten diotsut, ez da hainbesterako. Batzuk itzel berotu dira horiekin. Berotze kontuetan bakoitza mundu bat da, eta ez naiz horretan sartuko. Niri apur bat aspergari eta errepikakorrek egin zaizkit. Pentsatzen egon naiz euskal literaturak dituen sexu zatietan, deskripzioetan... eta esango nuke ez direla asko. Gogoan ditudan azkenak *Twist*

eleberrian ageri direnak, eta hobeak dira... edo iruditu zaizkit. Hori esan eta gero, esan nezake ia hogeigarren orrialdean liburuan gertatuko den guztia asma zenezakeela. Hau da, erraz aurreikus litekeela gertatuko dena, besteak beste, eleberri erromantikoek antzeko eskema jarraitzen dutelako. Emakume galdua, gizon aparta, emakumearen sufrikarioa, gizonak salbatzen du, zoriontsu dira bizitza osoan eta heriotzatik gora ere bai. Honek ere jarraitzen du.

Zertaz doa hau dena? Christian Grey gizon boteretsu, kontrolatzaile eta aberatsa da. Ederretan ederrena. Ederra goa oraindik (ea zein antzezle topatzen duten). Anastasia Steel gazte eta xaloak autoestimu arazoak ditu. Bere pisukide ederraren aurrean bera txiki-txiki sentitzen da sarri, bera ez baita ederra, arrunta baizik. Gainera, okerrago dena: ez du familia dirudunik. Anastasiak elkarrizketa egingo dio Christiani unibertsitateko aldizkarirako. Ez dakit honezkerokoz asmatu ote duzun, baina badaezpada esango dizut. Gizonak badu iluntasunik, tartean sadomasokismorako zaletasuna. Anastasia gazteak betiko maitatuko duen Printze Urdina nahi du, eta, tamalez, ez du Barricadarik entzun; egin izan balu jakingo luke dagoeneko ez dagoela Printze Urdinik. Hiru liburutzar, sexuz-edo zipriztinduak, beti-betikoa kontatzeko. Eleberri erromantikoek behin eta berriro errepikatzen duten maitasun erromantikoaren mantra zaharkituari eusteko. Emakume eder, xalo eta babesgabeak Alfa Arraren beharra du, bere babesa behar du. Bere maitasuna eskuratzeko hamaika zirrikitu (edo sufrikario) jarraitu beharko du, oztopoak oztopo, baina, maitasuna gailenduko da. Ongia gaizkiaren gainetik. Enfin. Liburua amaitzerakoan horixe da ozen esan dudana berba.

Greyren itzalak III

Akorduan dut nire bazkalkideek eskolan ezinbesteko irakurketa izan beharko lukeela esaten zutenekoa. Itxaroten dut, etorkizuneko emakumeen onerako, liburu honen ira-

kurketa egiten bada, irakurketa kritikoa izango dela (irakurketa orok kritikoa beharko luke, jakina). Pentsatzen jarrita, bai, liburu hau irakurri beharko litzateke eskoletan. Literatura irakasle punki batekin, ahal dela. Beharbada azalduko litzaieke emakume batek ez duela Alfa Arraren beharrik, eta ez duela maitasun erromantiko goraiatu horren beharrik ere. Maitasuna beste gauza bat dela azaldu beharko lieke gure punkiak, bizitza beste gauza bat dela... eta amaitzen den arte, ez dela amaitzen. Beste lagun bati kontatu nion Greyren kontuak irakurtzen ari nintzela (berak ere irakurri barik du). Argi esan dit: «Mamu horiek denak akabatu behar ditugu, hilko gaituzte bestela». Arrazoi duela uste dut. Ez dut esan nahi erromantikotasunaren elementu guztiekin amaitu behar denik. Esan nahi dut guk salbatuko dugula geure burua. Eta gizarte honek literaturarekin, zinemarekin, publizitatearekin eta beste edozein aitzakiarekin otzan nahi gaituela, Alfa Arraren aurrean mantso. Liburua amaitu ostean haserretu naiz. 75 milioi kopia saldu ditu; beraz, hortik gorako irakurleak izan ditu. Zer gertatzen zaie/zaigu emakumeoi? Zer gertatzen zaie gizonei? Nancy Hustonen elkarriketa bat irakurtzen aritu naiz. Munduaren hastapena da emakumea, eta gizonak emakumearen gaineko eskubidea arautzeko joera izan du beti.

50 shades of Grey / 50 sombras de Grey / 50 nuances de Grey (Greyren 50 itzal) liburua salmenta eta irakurketan oso arrakastatsua izan bada ere, izan da haren kontra egin duenik. *Journal of Women's Health* aldizkarian agertutako artikulu batean gogor salatzen zuten liburua. AEBetako Ohioko Unibertsitatean ikerlari zenbaitek aztertu egin zuten liburua. Genero indarkeriari eusteko baliagarria dela ondorioztatu zuten, protagonista bien arteko harremanean bortxa nagusi dela, gehiegikeria emozionalak gertatzen direla. Arrazoi du. Gizonezko protagonistak bikotekidea barkatzeko ahalegina egiten du, sakelakoa begiratzen dio, ordenagailua... zelatatzen du etengabe. Dena maitasunaren izenean; izan ere, izugarri «maite» du protagonistak (Chris-

tianek) emakume gaixo eta babesgabea (Anastasia). Literaturan oso eder gera litekeela pentsa lezake norbaitek, baina eramán dezagun bizitza errealera, agian horrela ikusiko dugu benetan zer saldu nahi digun liburu honek.

Amaitzeko, aurkitu dudán bitxikeria bat. Kontakizun hau berez *Twilight / Crepúsculo / Fascination* (Ilunabarra) liburuaren zale batzuek idatzi ei zuten sarean fanfiction.net helbidean (dagoeneko ez dago), tartean E.L. Jamesek. Anastasia eta Christian, hasieran, Isabella eta Edward ziren, *Twilight* liburuko pertsonaia nagusien moduan. The Vintage (Random House) argitaletxeak eskubideak erosi zituenean, kontakizuna moldatu zuten eta sortu zen hizpide izan dugun liburua.¶



Razionalizatu edo ez razionalizatu, *that is the question...* edo ez?

Munduaren errealitatea atzemateko, ikerketei eta razionalizazioari so egiteko joera izaten dugu ikertzaileok. Errealitate objektiborik baden ere zalantzarria da, baina soziolinguistikaren gure interes objektiboetatik at gelditzen da galdera hori, nahiz eta Watzlawick eta beste konstruktibistek frogatu dutenez, mota horietako hausnarketek ere aski ondorio konkretuak izan ditzaketen.

Zientzia gogorretako ikertzaileek razionalizazio zientifikoe-tan oinarritutako prismatik ikusten omen dute mundua, ikerketetatik auto-elikatzen dute haien mundu ikuskera. Gizarte zientzietako ikertzaileak irekiagoak izaten omen dira, eta hain razionalak ez diren iturriak ere erabiltzen dituzte munduari buruz duten ikuspuntua osatzeko. Salbuespenak daude, baina medikuntza alopaticoa garaile bihurtu den garai honetan (fenomeno aski berria da, azken mende eta erdikoa), neurri handi batean horiek dira joera nagusiak. Fisika kuantikoa, noski, razionalizaziotik kanpo dago, erabat: ikertzaileek behin eta berriz errepikatu behar izaten dituzte haien esperimentuak ikusten dutena onartzeko (ikus adibidez *Science et vie* aldizkariaren 1.097. zenbakia). Borroka bat dago errealitatearen eta razionalizazioaren artean kasu horretan: esperimentuaren ondorioa ikertzaileari razionala egi-ten ez zaiolako, behin eta berriz errepikatu behar du ondorio berriak onartu ahal izateko. Kasu horretan, razionalizazioa-ri buruzko eztabaida irekitzerik egongo litzateke: zer da razionala? Ikerketak frogatzen duena? Hala baldin bada, ikerlari horien adibidea kontuan hartzen bada, badirudi konstruktua soziala dela, aurreko esperientzien gainean eraikita-

koa. Adibide horretan agertzen den moduan, horrek ez du esan nahi razionalizazio horiek behin betiko egiak direnik.

Hala ere, ez dira gutxi soluzioak eta ondorioak aurkitzeko razionalizaziotik kanpoko bideak erabili dituzten ikertzai-leak. Batzuek arazo konplexu baten soluzioa ametsetan edo intuizio bidez topatu izan dute, eta soluzioa topatu ondoren razionalizatu egin dute. Jatorrizko galderaren eta soluzioaren arteko bidea soluzioa aurkitu ondoren eginez. Batzuek burmuinaren albokotasuna aipatzen dute molde horiek ulertzeko...

Tira, eztabaida horiek ere soziolinguistikaren iker eremutik kanpo daude; hori bai, batzuetan hausnarketa epistemologikoa egitea ezinbestekoa da ikerketetan eta eragin nahi dugun esparruan egoki aritzeko. Egoki egiteko, noski, zer egiten ari garen jakin behar dugu.

Newspeak - hizketaberria

Arestian aipatutakoaren bidetik, une batez ikerketa zientifikoak albo batera uztea eta ikerketa egiteko eleberriak eta zientzia fikzioa idazten duten idazleen lana erabiltzea ez da oso ortodoxoa eta kaltegarria izan daiteke, baina hausnarketak egiteko eta ez ohiko ikuspuntu bat jasotzeko baliagarria izan daiteke. Gainera, modu horretan, inkontziente eta intuizio aberatsagoa lor dezakegu. Montaignek 1580ko *Essaie*-tan aipatzen zuen moduan: «Une tête bien faite est mieux qu'une tête bien pleine».

Soziolinguistikaren ikuspuntutik, George Orwellen 1984 (1949koa jatorrizko bertsioan, Txalapartaren euskarazko bertsioa 2007koa da) liburuaren irakurketa interesgarria da. Alde batetik, ikerketetan irakurri ohi ditugun azalpenen hiztegia, estiloa eta abar aldatzen direlako (alde horretatik, eta eskumako hemisferioa lantzearen, olerkiak irakurtzea ere oso aberatsa da); eta, bestetik, ondo pasatzeko aukera ematen duelako soziolinguistikari buruzko ideia berri batzuk jasoz.

Orwellen liburuan agertzen den mundu totalitarioan, hizkuntza plangintza funtsezkoa da. Liburuaren bukaeran hizkuntza plangintza horri buruzko eranskin bat gehitzen du Orwellek. Bertan, *hizketaberriaren* (*newspeak*) printzipioak azaltzen ditu. Estatu totalitarioak sortutako hizkuntza da *hizketaberria*; bere helburua jendea kontrolatzea da, pentsamendua eta mundu ikuskera kontrolatuz. Soziolinguistika eta hizkuntzaren plangintza ez dira gutxietsi behar! Hori plangintzan aritzen direnek kontuan hartu behar dute; hori bai, gaur egun Euskal Herrian burutzen den hizkuntza politikak ez ditu normalean helburu totalitarioak (eskualdeen arabera alde handiak daude). Helburuak demokratikoak eta ekolinguistikoak izaten dira gaur hemen. Dena den, eredu totalitario hori aztertzea interesgarria da plangintzaren atzean zein erronka dauden edo egon daitezkeen konturatzeko. Jokoa dagoena ez da bakarrik hizkuntza baten salbazioa. Orwellen deskribapena oso aberatsa da, materia eta antimateria hartzen ditu kontuan, pentsamendua eta pentsamendu eza (pentsatu behar ez dena). *Hizketaberriak* gobernu totalitarioaren ideiak eta funtzionamendua adierazteko gai izan behar du eta, aldi berean, beste pentsamendu guztiak eragotzi behar ditu. Orwellen *hizketaberria* gizartean eragiteko sortuta badago ere, hizkuntza plangintzak gehienbat oinarri intralinguistikoak ditu. Liburuaren arabera, plangintza epe luzekoa da (gutxienez 80 urte), eta bere oinarriek sinpleak dirudite: hizkuntza baten hitz kopurua ahalik eta gehien murrizten bada eta hitzak batzen badira, gizakiak pentsatzeko eskuragarri dituen kontzeptuak gutxitzen dira, hizkuntzaren fineziak baztertuz. Modu horretan, biztanleak ez dira pentsatzeko gai, eta sentimenduak eta sentsazioak bihurtzen dira ekintzen oinarri. Proaktibo izan beharrean, erreaktiboak dira. Ekintza egin aurretik pentsatu, erabakia hartu eta ondoren ekintza egin beharrean, erreakzionatu egiten dute animaliek bezala, bat-bateko sentimendu, gorroto eta beldurren esklabo bihurtzen dira. Modu horretan, estatu totalitarioak bere propagandazko bitartekoak erabiliz (telebis-

ta...), jendea errazago manipulatu du. Oso aberatsa da Orwellen deskribapena soziolinguistikaren interesa duenarentzat, bereziki hizkuntza plangintza aritzen denarentzat (are gehiago asmo totalitarioak baditu...), asko baitira Orwelllek deskribatzen dituen fineziak.

Gaitasun plangintza, frustrazioak eta gehiegi maitatutako haurrak

Bistan denez, Orwell irakurtzea ikerketa soziolinguistikoei buruzko ikuspuntu berri bat izateko ortodoxoa ez bada ere, aberatsa izan liteke, bereziki hizkuntza gaitasunari bere lekua aitortzeko. Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu hemen, hainbat autoreengana joz, gure hizkuntza gaitasunak munduari buruz dugun ikuspuntua eta ikuspuntu horren aberastasuna moldatzen duela: zenbat eta hizkuntza gaitasun handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da barneko mundua; egoera berrietara egokitzeko ahalmena ere horren arabera izango da, frustrazioak gutxitu egingo dira. Hizkuntza batean eroso sentitzeak ondorio baikorrak izango ditu hiztunarengan, eta hizkuntza erabiltzera bultzatuko du. Erosotasun hori era honetan laburbil daiteke, pentsamenduaren eta komunikazioaren isuriaren deskribapena eginez (hipotesi huts batzuk baieztapen moduan adierazten ditugu artikulu honetan; eskertuko genioke irakurleari laburpen horiek barkatzea):

- 0) Adierazteko zerbait eduki behar dut. Baikorra edo ezkorra izan daiteke, elaboratua —pentsamendu bat— edo oinarrizko sentipena —poztasuna edo mina, adibidez.
- 1) Adierazi nahi dudana zer den jakin behar dut. Ez da hain erraza, hori egiteak barneko mundu zabal bat suposatzen du; alegia, hizkuntza ondo menperatzea pentsatu ahal izateko. Hala ere, fase honetan, intuizio hutsa izan daiteke, edota ez du izan behar modu razionalean antolatutako pentsamendua: hasiera/bukaeraren norabidea eta abarrek ez dute garrantzirik.

- 2) Adierazi nahi dudana estrukturatzeko eta adierazteko baliabide linguistikoak eduki behar ditut (momentu honetan estrukturatzen da pentsamendua: hasiera eta bukaeraren arteko isuria...).
- 3) Adierazi behar dut.
- 4) Mezuaren jasotzaileak baliabide nahikoak eduki behar ditu nire mezua jasotzeko, edota, jasotzailearekiko el-karrizketaren bitartez, adierazi nahi dudana konpartit-zeko gai izan behar dut (beste kontu bat da gero nire solaskidea nirekin ados izatea edo ez izatea).

Bide hori egiten bada, printzipioz, frustrazioaren arrazoiak hizkuntzaren arazoetatik at daude (ados egon edo ez, adierazten dudana baikorra izan edo ez...), baina hizkuntza ez da funtsezko arazoa.

Aldiz, sentsazio deseroso baten aurrean pentsatzeko baliabide nahikorik ez badut, ez dut arazoa objektibatze baliabiderik; badakit zerbait gaizki dagoela, deseroso sentitzen naiz, baina ez dakit arazoa zein/zer den, lausotasunean gelditzen naiz, arazoaren iturburu jakiterik ez dut. Horren ondorioz, frustrazioa biderkatu egiten da eta frustrazio horri irtenbidea eman behar zaio: bortizkeriaren bitartez, edo, Huxleyren *Brave New World* liburuan bezala, *soma* bezalako droga baten letargian zoriontasun efimero eta faltsu bat bilatuz. Ederra panorama!! (*Alienazio* hitzari buruzko hausnarketa bat egitea adibide prototipikoa izango litzateke hemen aipatzen dugun dikotomiaz argitasuna emateko. Kasu horretan, gainera, kontzeptuaren sorrera-lanketa frustrazioen objektibizazioaren iturburu izan daiteke. Ikus ere frantsezko hizkuntza minorizatuen auzian hain garrantzitsua den *patois* hitza.)

Gauzak ez dira horren muturrekoak izaten, eta normalean izaten da hizkuntzaren erabilerak pozak (Pironek aipatzen duen moduan, hizkuntza bat ikasteak eta erabiltzeak errealitatearen gaineko boterea ematen dio umeari —eta nagusiarri—; gainera, modu horretan komunikatu ahal izaten da, eta horrek guztiak poztasuna eta sentsazio baikorrak

sortzen ditu) eta frustrazioak sortzea, momentuaren eta tes-
tinguruaren arabera. Aldizkari honetan behin eta berriz
aipatu izan dugunez, euskararen erabileraren gako bat ongi-
zatean datza: hizkuntza erabiliz ondo sentitzea. Horregatik,
gaitasuna eta bere aspektu komunikatiboak lantzeak fun-
tsezko dirudi.

Hala ere, frustrazioari dagokionez, gaur egungo gizartean
bada beste fenomeno bat. Irakaskuntzan ikusten denez, eta
orokorrean ikerketen ondorioak irakurriz, badirudi gazteak
eta bereziki nerabeak gero eta gehiago daudela frustrazioa-
ren menpe. Hori gehienetan munduaren birtualizazioari
egozten zaio: telebistak, Internet eta abarrek eredu eta mun-
du birtual bat sortzen dute, eguneroko errealitatean ispi-
lazen ez dena eta eguneroko errealitatera eramateko zaila de-
na. Horrek frustrazioa sortzen omen du.

Artikulu honetan beste iturri bat aipatu dugu: baliabide
linguistiko ezak barne mundu mugatua bultzatzen du, eta,
beraz, gazteek ezin dituzte haien frustrazioen iturriak ob-
jektibatu. Azken iturri bat aipa daiteke seguruenik («azken
iturri bat» diogu, baina seguruenik beste asko egongo dira;
artikulu hau eztabaida bultzatzeko da, baieztapen eztabai-
dagarri asko egiten da —zientzia gogorren ikertzaileek bar-
katuko dizkidate hasierako paragrafoko hitzak...—, baina
ezin gara hemen xehetasunetan sartu...): autore batzuek
gehiegi maitatuaren paradoxa aipatu dute. Ez naiz luzatuko
horretaz, baina gaiari buruz Anne Rosek idatzitako artiku-
luak oinarrizkoa dirudi (Rose, A., 1991, «Jainko txikia»,
Unescoren Albistaria 83, 32-33). Artikulu horretan, gazte
batzuek frustrazioari aurre egiteko dituzten zailtasunak mo-
du razionalean azaltzen dira.

Hizkuntza plangintza pentsatu

Artikuluaren hasieran aipatu dugunez, egoki aritzeko, ba-
tzuetan, lantzen dugun gaiari buruzko hausnarketa episte-
mologikoa egitea ezinbestekoa da. Horretarako zientzia fik-

zioa irakurtzea ez da ezinbestekoa, artikuluko zientifikoak irakurtzea, aldiz, bai...

2013. urte honen amaieran hizkuntza politikari buruzko hainbat hausnarketa sakon argitaratzen ari dira nazioarteko aldizkari soziolinguistikoetan.

Hasteko, *Journal of Language and Politics* aldizkariaren 12. zenbakian, estatu liberalen hizkuntza politikari buruzko ikuspuntu berriak landu behar direla aipatzen da (gai horrek *Jakin* aldizkariaren aurreko bi artikuluekin lotura zuzena du, autoreek *Framing* berria lantzea aipatzen baitute). Piller eta Cho-k, *Language in Society* aldizkariaren 42. zenbakian, neoliberalismoak ezkutuko hizkuntza plangintza bat nola suposatzen duen aztertzen dute. Aipatzen dutenez, ondorio dramatikoak izan ditzake ezkutuko plangintza horrek. Piller eta Choren artikulua ondoak zuzenean lot ditezke hemen *hizketaberriari* buruz aipatzen dugunarekin.

Antonio Reyesek, *Current Issues in Language Planning* aldizkariaren 14. zenbakian, hizkuntza erreforma instituzionalari buruzko jarrerak aztertzen ditu. Hizkuntzaren barneko erreformek sortzen dituzten iritziak, kontrako eta aldeko adierazpenak aztertzen ditu Reyesek bere artikuluan.

Language Policy aldizkariaren 12. zenbakiko artikuluko batean, Curdt-Christiansenek familia-hizkuntza plangintzaren garrantzia eta erronkak azpimarratzen ditu, bereziki hizkuntza txiki minorizatuentzat. Eraginkortasunerako mikro eta makro plangintzen arteko elkarreragina azpimarratzen du autore horrek. Soziolinguistika historikoaren testuinguruan kokatzen den artikuluko batean, Liudmila Mikalayevak Frantziako eta Errusiako iraultzen hizkuntza politikak aztertzen ditu. Bere aburuz, bi iraultzen arteko hizkuntza plangintzen aldeak testuinguru historiko eta soziokulturalak dituzte iturburu.

Bukatzeko, *IJSL* aldizkariaren 219. zenbakiaren ekarpena aipatu behar da. Zenbaki horretan, hizkuntza politika eta plangintza etnografiaren ikuspuntutik aztertzen da. Gaiari buruz ikuspuntu berri bat ematen da, oso lagungarria izan

daitekeena hizkuntzaren plangintzan aritzen denarentzat: batzuetan ezinbestekoa da lantzen dugun gaiari buruzko hausnarketa epistemologiko sakona egitea... Hori bai, beti ere kontuan hartuz Einsteinek aipatzen zuena: bizikletan goazela, pedalei nola eragiten diegun analizatzeko gelditzen bagara... jausi egiten gara... Plangintzari buruzko artikulu horiei guztiei buruzko informazio osatuagoa ematea mereziko luke hemen; hurrengo baterako utzi beharko dugu, ordea...¶

Lurrikara Arrasaten

«Puxika lehertu zen / barruan geunden / erortzen utzi gintuzten / zeru goietan / ez ginen bizi / eutsiko diogu lurretik // Aberastasuna deitu zioten / zorretan bizitzeari / ogi eta arrainen mirarian / ez degu sinetsiko berriz». Bertso horiek oso egokiro azaltzen dute Debagoienan, eta Euskal Herriko beste leku askotan, bizi den giroa, Krisi Handiaren ondorengoa. Baina, diogu, bereziki Debagoienan, 2013ko urriaren erdialdean Fagor enpresa eta mitoa erori osteko egunotan idatzi dugulako. Zer gertatzen da? Ez ote da baka-rik kapitalismoa amiltzen ari, baita bere alternatiba izan nahi zuen euskal kooperatibismoa ere, arrakalatzten ari ote da? «Euskal» diogu, gurean baino, munduan zehar kooperatibismoak abizen hori daramalako. Leku askotatik harriduraz eta miresmenez begiratu zaio Deba ibaia bere isurbide motzean trumilka hasten den bailarari, bertan baitu iturburua justizia soziala, lanaren kultura eta garapen jasagarria ezaugarritzat dituen ereduak; «dituen» edo «izan dituen» edo «izan zitzakeen»: orain, Fagorren amiltzeak dena zalan-tzan jarri du eta. Edo, hobe esanda, ageri-agerian utzi du aspalditik susmatzen zena.

Benetan existitzen zen sozialismoaren arrakalak baino zulo beltzak agerian geratu zirenean hasi zen kooperatibismoa eredugarria izaten; lehenago, bazen epelen ideia eroa, kapitalismoaren mozorro goxoa, inora ez zeraman hirugarren bidea. Baina zoriontasun perfekturanzko bide argitsua (eta argitua) erori zenean hor zegoen: estatuaren planifikazio zentrala eta botere orohartzailea baino, komunitatearen orekak eta herri-kulturaren bultzadak aberastasunaren ekoizpena antolatu eta banatu zezakeela zioen eredu umila; hel-

buru handiak baino, eguneroko poza promestzat zuena, mundu perfekturik ez baina gure herri hobeko bat eguneroko eraiki daitekeela arrapostu ematen zuena.

Eta «Arrasateko ereduak» honako kontuak lortuz, eratur, egonkortuz joan zen, hein handi batean: bailara osoan langabeziarekin arazorik ez, langileek produkzioa antolatzeke eta erabakitzeko baliabide asko, sortutako aberastasunaren banaketa nahiko horizontala, mozkinen parte handi bat ekimen sozialetara bideratuak... Azken kontu horri dagokionez, azpimarratu behar da euskara, euskal kultura, tokian tokiko komunikabideak, hezkuntzarako azpiegitura eta baliabideak... ekimen horien objektu pribilegiatuak izan direla.

Baina logikoa zen horrela izatea. Arizmendiarrietak eta Ulgorreko bostek abiatu zutenak, azken finean, horretan zuen abiapuntua eta abantaila, humusa eta ongarria: euskal gizarte landatar tradizionalan lanari ematen zaion garrantzia; kultura trinko eta homogenea, euskara ardatz duena; Eliza katolikoak orduan justizia sozialarekin erakutsi zuen atxikimenduak gerra ondorengo euskal gizartean eduki zuen onarpen zabala; botere politiko eta ekonomiko monolitiko eta urrunei muzin eginez, bere bideari ekin eta eusteko herri honek zenbait momentu historikotan erakutsi duen tema...

Baina alternatiba orokorra, metakontakizun perfektua izan nahi ez duen ereduak arazo garrantzitsua izan dezake arrakastarekin, tamainarekin; tamainak bai baitu inporta auzi hauetan. Larregi hazteak komunitatearen lurraldetik kanpo aritzera behartzen du, eta hortxe jadanik ez dago subjektu homogeenorik, ez kultura komunik, ez helburu kolektiborik... Hor kanpoan merkatua baino ez dago, edo besterik ez da egon neoliberalismoaren urte loriatsuetan.

Merkatuaren definizio neoliberalaren azpiko paradigmak, hazkundera ekin zion Arrasateko ereduak, Korporazio Kooperatiboa bilakatuta. Funtsean, etxeko eredu komunitarioa babestu eta garatzeko, beste edozein enpresa-agente modura mugitu da munduan zehar, Txinan, Polonian, Espainian... edo Basaurin: langileak kontratatu eta lanera jarri beste

edozein enpresatan legez —edo, gehienez jota, norik bere lanpostua erosi duen kooperatibista artifizialaren figura sortu—, lehiakortasuna bilatu produktu estandarizatuak, merkeak, iraunkortasun gutxikoak ekoiztuz eta salduz. Eta puxikak lehertu direnean lehertu dira kanpoko proiektu asko eta etxekoa arriskuan jarri.

Etxekoa arriskuan jarri, neoliberalismoaren urte loriatsuetan zabaldu den kulturak —«zorretan bizitzeari» «aberastasuna» deitu zion horrek, hain zuzen ere— birrindu dituelako humus eta ongarri ziren horrenbeste balio, jarrera eta portaera. Zer geratzen da baserriko lanean hezitako belau-naldiek erakutsitako soiltasunetik astebururo eskiatzera joan nahi duen langilearengan? Eredu kooperatiboari euskarri ideazionalak emateko unibertitatearen ere sortu zuten Debagoienan, eta bertan garatu da Mendebaldeko gizarteak berandu baino lehen trantsizio ekologikoari ekin beharko diolako ideiarengatik inguruan bildu den pentsalari talde interesgarria. Baina askotan pentsatu dugu eskola horrek buka zezakeela lan ideologikoa egiten Korporazioaren deriba neoliberalaren zerbitzuan, era nahiko paradoxikoan, jakina. Ideologikoa esaten dugunean, bere adierarik okerrenean diogu, hau da, bestelako helburuetarako erabiltzen den diskurtso hutsal eta kosmetikoa eratuz.

Orain, horixe dute erronka: eredu endogeno, jasangarri eta autozentratuaren abantailak gaur egun ez dira baliabide teorikoak, etorkizun perfektu bati begira predikatzen direnak, baizik eta eredia edo bidea mantendu eta indartzeko eguneroko ustiakuntzan lehenbailehen berreskuratu behar diren ardatzak. Fagor amildegira hurbildu zen astean, *Berria* egunkarian Alberto Barandiaranek galdetzen zuen ea zergatik sortu den hain literato gutxi, fikzio-egileak batez ere, Debagoienan, beste zereginetan aritu izan ei direla. Hilabete batzuk lehenago, Gari abeslariaren azken diskoan Oñatiko Fermin Etxegoienek artikulu honen hasieran dau den letrak ondu zituen, Pete Seeger iparramerikar kantariak ospetsu egin duen *We shall overcome* ereserkiaren euskal

bertsioa egiteko. Langileen eta jende xumearen itzaropena sustatzen duen kantak argiro dio: «eutsiko diogu lurretik», beti bezala.

Lurrikarak eta haustura energetikoak

Alde paratzen direnek ere ez dute jadanik ukatzen haustura hidraulikoak —eskisto edo harbel-arroketan infiltraturik dagoen gas naturala ateratzeko ura eta gai kimiko kutsakorrak presio handian lur azpian infiltratzen dituen meatzari-tza-teknikak, lurrazpikoa puskatzen duelako *fracking* ingelesezko berbaz deritzoguna— lurrikarak sortzen dituela praktikatzen den lurraldeetan; horretaz gain, lurrazpiko urtegiak kutsa daitezke; azalera, putzuen baso baten itxura hartzen dute lursailek, ibaiak ere kutsa daitezke, hondakin mordoa ustiatu behar da... Ez, ez da errenta gas naturala lortzeko haustura hidraulikoa erabiliko den lurraldean bizitzeari; ez da errenta, batez ere, lortzen diren gas naturalaren baliabideak urriak direlako eta oso agudo agortzen direlako. *Fracking* delakoa, funtsean, gasa ez dagoen lekutik ateratzean datzala esan dezakegu.

Horregatik, orain arte holako gas kopuruak ez erabilgarritzat jo izan dira. Baina erregai fosil hori agortzen ari denez, prezioak gora doaz merkatuan eta haustura hidraulikoaren teknika menperatzen dutenek oso marketing finantzario ona egin dute: merkatuetako marrazoek badakite hurrengo urteotan energia-baliabideak dituzten enpresek altu kotizatuko dutela burtsetan, agortzen ari den baliabidea delako —esan nahi baitugu, energia sortzeko era konbentzionala, erregai fosilak, alegia—, eta euren produktua ederto saldu dute AEBetan: oso lurralde zabalak eta gutxi populatuak dituen lekua izanik, nonahi zabaldu dira putzuak eta enpresen akzioak gorantz igo dira etengabe. Orain bestelako emaitzak jasotzen ari dira: komunitate landatar askoren bizimodua hondatua, lurrikarak, ur kutsatuak... Eta putzuen emaitzak abiadura handian jaisten ari dira: hamar urteko

bitzta duen putzu batek emaitzen %90 lehenengo urtean lortzen du, gero lorpen urriak eta arazo guztien biderkatzea baino ez dira geratzen. *Frackinga* finantza-merkatuak hausteko teknika da, aurreikuspenak sortu, *pelotazoa* eman bur-tsetan —enpresen zuzendaritza taldekoek akzioak gora doazenean euren *stock option* direlakoak erabili (akzioak prezio berezian erosten dituzte eta segituan saldu, euforia aprobe-txatuz)—, dirua harrapatu eta ospa!: gero hautsita geratzen dira lurra, lurraldea eta jendea.

Orain Europan egin nahi dute antzeko negozioa, baina oraingoan informazioa azkar hedatu da eta leku askotan urteotan ezagutzen ez zen aurkako mugimendua —erakunde ekologistek piztuta eta bultzatuta— agertzen ari da: Erresuma Batuan sekulako protestek lortu dute prospekzioak gelditzea; Frantzian debekatu da teknika hori, ezin da ezta bilaketak egiteko ere erabili. Hego Euskal Herrian, Nafarroan Legebiltzarrak ere debekua ezarri du, UPNko gobernuaren nahien kontra; Autonomia Erkidegoan Arabako lautadetan prospekzioen kontrako gizarte mugimendu ahaltzua eratu zen Patxi Lopezen Jauraritzak *fracking* teknika pagotxa moduan aurkeztu zuenean, eta Urkulluren gobernuak anbiguo-tasunean topatu du EAJk berezkoa duen moldea: informa-zio gutxi, berba onak eta, beti ere, merkatuen alde. Espai-niako Gobernuak edukiko du azken hitza, baimenei dago-kienez. Gai liskartsua izango da hau hurrengo urteotan.

Haustura artistikoak

Artista postmodernoen, horiek badakite bai merkatua hausten, marrazoak disekatzen ditu Urliak, kosta ahala kosta bere nortasuna ezkatzen du kalean graffitiak egiten dituen Sandiak... Eta horrela obren kotizazioa goraka doa denetarik ikusi duten artezaleen merkatuan: harritzea, epatatzea, hori-xe da jadanik jendearen bizimoduarekin, gogo eta asmoe-kin, min eta pozekin, nahi eta ezinekin inolako konexioa mantentzen ez duen jarduera horretan bilatzen den bakarra.

Total, oso-oso aberatsak direnek euren inbertsioak dibertsifikatu nahi dituzte eta euren fikziozko kapitalen parte bat desbideratzen dute arlo horretara, inoiz inbertsioa berreskuratuko dutelakoan, edo, sikiera, epe laburreko glamour poxi bat lortzen dutelakoan. Horixe bai merkatuak haustea, *art fracking* edo holako zerbait deitu beharko lukete!

Abel Azcona nafar artistak bezala: ez zituen ba 42 egun egin sei metro koadroko espazio batean, ilunpetan, kanpoaldearekiko inolako kontakturik gabe, bakarrik eguerdiko hamabietan litro bat ur eta elikagai hiperproteiko likidoa jasoz? Azkenean ospitalera eraman behar izan zuten; geroago, lerdokeriak albiste izateari utzi zion eta auskalo zer gertatu zaion *performance* artistari. Antza, Platonen haitzuloaren mitoan oinarrituriko proiektua omen zen, artistak bere identitatea galdu nahi omen zuen eta mar-mar-mar-mar. Ene! Arreta deitzeko teknikak nola aurreratu diren! Espektakuluaren gizartean, artistak bere egoan erabat murgiltzeko eta horren emaitza erakusteko eskubidea exijitzen duela dirudi. A ze nekea!¶